- (1992c): «Las relaciones entre los nacionalismos periféricos: vasco, gallego y catalán», en P. Ibarra (ed.): *Ideología y Nacionalismo*. Vitoria-Gasteiz: Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, pp. 94-150.
- (1992d): «El nacionalismo vasco y los Congresos de Minorías Nacionales de la Sociedad de Naciones (1916-1936)», en *XI Congreso de Estudios Vascos: Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa*. Donostia: Eusko-Ikaskuntza, 1992, pp. 311-322.
- (1994): «Castelao no Galeuzca», en *A Trabe de Ouro*, vol. 1, n.º 5, pp. 71-79.
- (1995): «O Galeusca no ronsel da memoria», en *Ehun urte Euskal Herrian. Desarrollo nacional y social en el siglo XX. IPES, Cuaderno de formación*, 21, pp. 23-36.
- (2000-2001): «Castelao e o País Vasco», en *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca*, 7, pp. 325-360.
- (2009): «El Galeuzca histórico: la búsqueda trinacional de la soberanía (1923-1959)», en *Hermes*, 29, pp. 72-83.
- (2014): «O protagonismo jelkide navarro na viaxe triangular e no Galeuzca de 1933», en J. Agirreazkuenaga Zigorraga y E. J. Alonso Olea (eds.): *Estatu-Nazioen baitako Nazioak: Nazio-gintza Kulturala eta Politikoa, Gaur Egungo Europan*. Barcelona: Base, pp. 341-362.
- FÁBREGAS, Joan P. (1932): *Irlanda i Catalunya. Paral·lelisme político-economic*. Barcelona: Atenes, S.A.
- FERNÁNDEZ DÍAZ, Xosé Carlos (2006): *El ferrocarril en Galicia. Pasado, presente y futuro*. Vigo: Ir Indo Edicións.
- FERRÉ TRILL, Xavier (2011): «Antoni Rovira i Virgili i Josep Conangla i Fontanilles (1949-1950): memòria política sobre el fet nacional», en *Aplec de treballs*, 29, pp. 113-126.
- FERRER I PONT, Joan-Carles (2007): *Nosaltres sols: la revolta irlandesa a Catalunya (1920-1923)*. Montserrat: Publicacions de l'Abadia de Montserrat.
- GARCÍA IZQUIERDO, José M. (2023): *Francesc Maspons i Anglasesell. El nostre home a la Societat de Nacions. Vida i obra (1872?-1966)*. Valls: Cossetània Edicions.
- GUIMERA, Àngel (1889): «Discurs del President del Consistori», en *Jochs Florals de Barcelona en 1889*. Barcelona: Estampa de la Renaixensa, pp. 47-66.
- JASPE, Álvaro (2008): «‘Cautela, seguir mudo’. Madrid’s Diplomatic Response to the Emergence of the Irish Free State 1918-1931», en *Estudios irlandeses/Journal of Irish Studies*, 3, pp. 121-131.
- (2011): «Ireland and Spain 1931-1933: Divergent Republics», en *Estudios irlandeses/Journal of Irish Studies*, 6, pp. 8-20.
- L'ESTAT CATALÀ* (1922): «Per l'Estat Català», en *L'Estat Català*, 1 (15 de noviembre de 1922), pp. 4-5.
- LORENZO ESPINOSA, José M. (1992a): *Gudari, una pasión útil. Vida y obra de Eli Gallaestegi (1892-1974)*. Tafalla: Txalaparta.
- (1992b): «Influencia del nacionalismo irlandés en el nacionalismo vasco, 1916-1936», en *XI Congreso de Estudios Vascos: Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, pp. 239-247.

- LLORENS I VILA, Jordi (1988): *Catalanisme i moviments nacionalistes contemporanis (1885-1901): missatges a Irlanda, Creta i Finlàndia*. Barcelona: Rafael Dalmau.
- MCCREANOR, Kyle (2019): *Ireland and the Basque Country: Nationalisms in Contact, 1895-1939*. Trabajo de fin de Máster en Historia. Montréal: Concordia University.
- (2020): «The Irish Revolution and the Basque Nationalist Movement, 1916-23», en *History Ireland*, vol. 28, n.º 1, pp. 38-41.
- MAÍZ SUÁREZ, Ramón (2000): «España y Estado español en el discurso político del nacionalismo gallego histórico (1886-1993)», en *Historia y política: Ideas, procesos y movimientos sociales*, 4, pp. 171-208.
- MASPONS I ANGLASELL, Francesc (1932): *La Generalidad de Cataluña y la República Española*. Barcelona: Tip. Occitania. Traduccs. al francés: *La Generalitat de la Catalogne et la République Espagnole*. Barcelona: s. n., 1932, y al castellano: *La Generalidad de Cataluña y la República Española*. Barcelona: Centro de Información Bibliográfica, 1932.
- MEES, Ludger (1991): *Entre nación y clase. El nacionalismo vasco y su base social en perspectiva comparativa*. Bilbao: Fundación Sabino Arana.
- MOLAS BATLLORI, Isidre (1974): «Federació Democràtica Nacionalista (1919-1923)», en *Recerques: història, economia, cultura*, 4, pp. 137-153.
- NEIVA ZARDOYA, José Luis (1999): *La idea euskara en Navarra, 1864-1902*. Bilbao: Fundación Sabino Arana.
- NÚÑEZ SEIXAS, Xosé M. (1992): «El mito del nacionalismo irlandés y su influencia en los nacionalismos gallego, vasco y catalán (1880-1936)», en *Spagna contemporanea*, 2, pp. 25-58.
- (1995a): «Relaciones exteriores del nacionalismo vasco», en S. de Pablo Contreras (ed.): *Los nacionalistas: Historia del nacionalismo vasco, 1876-1960*. Vitoria-Gasteiz: Fundación Sancho el Sabio, pp. 381-422.
- (1998): «El espejo irlandés y los reflejos ibéricos», en *Cuadernos de Alzate: Revista vasca de la cultura y las ideas*, 18, pp. 169-190.
- (2012): «Irlanda», en S. de Pablo y otros (eds.), *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*. Madrid: Tecnos, 2012, pp. 547-562.
- (2017): «Ecos de Pascua, mitos rebeldes: el nacionalismo vasco e Irlanda (1890-1939)», en *Historia Contemporánea*, 55, pp. 447-482.
- OTAEGUI, Tomás (1922), *Nacionalismo Basko*. Buenos Aires: Est. Gráfico J. Estrach.
- RISCO, Vicente (1994 [1920]): *Teoría do nazionalismo galego*. Vigo: Galaxia.
- (1930): *El problema político de Galicia*. Madrid: Cía Iberoamericana.
- ROIG I ROSICH, Josep M. (2010): *Francesc Macià, polític, teòric, agitador: documents (1907-1931)*. Barcelona: Generalitat de Catalunya.
- ROVIRA I VIRGILI, Antoni (1912-1914): *Historia dels moviments nacionalistes*. Barcelona: Societat Catalana d'Edicions, 3 vols. Trad. *Historia de los movimientos nacionalistas*, Barcelona: Minerva, 1919, 3 vols.
- RUBIO CABALLERO, José Antonio (2011): «El espejo Irlandés: panceltismo y nordismo en el discurso nacionalista de Bretaña (1845-1945)», en *Ayer*, 84, pp. 131-158.
- RUBIRALTA I CASAS, Fermí (2021): *Estat Català sota el franquisme 1939-1968*. Barcelona: Editorial Base.
- (2023): *Daniel Cardona i Civit (1890-1943). Na biografia política*. Barcelona: Afers.
- RUIZ DESCAMPS, Nicolás (2011): *Las organizaciones juveniles del nacionalismo vasco: política, cultura y ocio (1893-1923)*. Tesis doctoral dirigida por J. L. de la Granja Sainz. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.



- SOLER PARICIO, Pere (2021): «Ambrose Martin: nacionalista irlandès. Del quarter d'Estat Català a la defensa del govern d'Euzkadi», en *Butlletí de la Societat Catalana d'Estudis Històrics*, 32, pp. 91-122.
- (2022): «Irlanda y el País Vasco durante la Guerra Civil española», en *Sancho el Sabio*, 45, pp. 99-132.
- SUNYER, Magí (2015): «La renaixença, una paradoxa en tres actes i un pròleg», en *Butlletí de la Societat Catalana d'Estudis Històrics*, 26, pp. 95-114.
- UCELAY DA CAL, Enrique (1978): «La crisi dels nacionalistes radicals catalans (1931-1932)», en *A Recerques: història, economia, cultura*, 8, pp. 159-206.
- (2006): «Entre el ejemplo italiano y el irlandés: la escisión generalizada de los nacionalismos hispanos, 1919-1922», en *Ayer*, 63, pp. 75-118.
- UGALDE SOLANO, Mercedes (1993): *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*. Bilbao: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea; Emakunde.
- UGALDE ZUBIRI, Alexander (1996): *La acción exterior del nacionalismo vasco (1890-1939): historia, pensamiento y relaciones internacionales*. Bilbao: IVAP.
- (2001): *El Consejo Vasco del Movimiento Europeo (1951-2001)*. Vitoria-Gasteiz: Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua/Consejo Vasco del Movimiento Europeo.
- VILLALONGA YBARRA, José (1918a): «La nación vasca y los principios de Wilson», en *Hermes*, 27.
- (1918b): «La Sociedad de las Naciones», *Hermes*, 27, pp. 178-182.
- WHELAN, Barry (2012): «The experience of Basque dissidents in Ireland during the Second World War», en *International Journal of Iberian Studies*, vol. 26, n.º 3, pp. 201-210.

## RESUMEN

Desde el último cuarto del siglo XIX, Cataluña, Euskadi y Galicia mostraron una admiración especial hacia Irlanda. El alzamiento de Pascua de 1916 se erigió en auténtico símbolo para catalanes, vascos y, en menor medida, gallegos. Esta insurrección y los posteriores acontecimientos conducentes hacia la consecución de un Estado libre, estuvieron presentes en los discursos de las campañas en favor de las respectivas autonomías entre 1917 y 1919. El modelo irlandés inspiró el Pacto de la Triple Alianza, suscrito en 1923 por los nacionalistas periféricos. En la Segunda República se forjó un nuevo pacto tripartito, Galeuzca, firmado en 1933, y donde Irlanda ya no ejerció una influencia decisiva. Con la guerra civil, el alineamiento masivo de los irlandeses con el bando nacional, hizo añicos el espejo irlandés.

**PALABRAS CLAVE:** Irlanda, nacionalismo, Galeuzca, dictadura de Primo de Rivera, Segunda República.

## LABURPENA

XIX. mendearen azken laurdenetik, Kataluniak, Euskadik eta Galiziak miresmen bezia erakutsi zioten Irlandari. 1916ko Pazko altxamendua benetako ikur bihurtu zen kataluniarrentzat, euskaldunentzat eta, neurri txikiagoan, galiziarrentzat. Matxinada hori eta Irlandako Estatu aske bat lortzera bideratutako ondorengo gertaerak, 1917 eta 1919 urteen artean bakoitzaren autonomien aldeko kanpainetako diskurtsoetan presente egon ziren. Eredü irlandarrak Aliantza Hirukoitzaren Ituna inspiratu zuen, 1923an nazionalista periferikoek sinatua. Bigarren Errepublikan hiruko itun berri bat eratu zen, Galeuzca, 1933an sinatua, non Irlandako ereduak jada ez zuen eragin erabakigarririk izan. Gerra zibilarekin, irlandarrek bando nazionalarekin izan zuten lerrokatze masiboak, irlandar ispilua apurtu zuen.

**HITZ GAKOAK:** Irlanda, nazionalismoa, Galeuzca, Primo de Riveraren diktadura, Bigarren Errepublika.

## ABSTRACT

From the last quarter of the 19th century, Catalonia, the Basque Country and Galicia showed a special admiration for Ireland. The 1916th Easter Rising became a true symbol for Catalans, Basques and, to a lesser extent, Galicians. This insurrection and the subsequent events leading to the achievement of a free state, were present in the speeches of the campaigns in favour of the respective autonomies, between 1917 and 1919. The Irish model inspired the Pact of the Triple Alliance, signed in 1923 by the peripheral nationalists. The Second Republic saw the forging of a new tripartite pact, Galeuzca, signed in 1933, in which Ireland no longer exercised a decisive influence. With the civil war, the massive alignment of the Irish with the national side shattered the Irish mirror.

**KEYWORDS:** Ireland, nationalism, Galeuzca, Primo de Rivera's Dictatorship, Second Republic.



# Didáctica

EDURNE TURRILLAS



Parque de la Memoria, Sartaguda. Al fondo la escultura de Ulibarrena.  
(Fuente: Instituto Navarro de la Memoria)



Parque de la Memoria, Sartaguda. Con Josefina Lamberto.  
(Fuente: Instituto Navarro de la Memoria)



# Iraganaren ikaskuntza, orainaldiko eta etorkizuneko proiektu gisa: Sartagudako Memoriaren Parkerako hezkuntza-proposamena



EDURNE TURRILLAS

*Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa*  
[turrillas.132458@e.unavarra.es • <https://orcid.org/0009-0003-9159-9855>]

## Sarrera

Artikulu honek Memoria Tokiek ikasteko tresna gisa ikasle gazteen artean duten erabilgarritasuna eta eragina ikertzea du helburu. Horretarako, Sartagudako Memoriaren Parkea eta Nafarroako Memoriaren Institutuak bertan antolatzen duen belaunaldien arteko topaketa kasu- azterketa aukeratu dira. Ekitaldi honek Nafarroako hainbat institututako ikasleak eta frankismoaren biktimen senideak biltzen ditu, eta aukera ematen die gazteei 1936ko estatu-kolpearen ondoren jasandako errepresioari buruzko testigantza zuzenak entzuteko. Xedea ikasleek memoria historikoaren irakaskuntza eta espazio horiek ikaskuntzan duten eragina nola haute-maten duten aztertzea da.

Hori dela eta, Sartagudako topaketan parte hartu zuten irakasleei eta ikasleei egindako inkesta bat aztertu egin zen. Ikasleek hezkuntzan memoria historikoaren erabilerari buruz duten iritzia ezagutzea eta Sartagudako topaketan izandako esperientzia ebaluatzea zen helburua. Gainera, topaketara joan aurretik, irakasleek Nafarroako memoria historikoarekin lotutako gaiak beren ikasgeletan landu ote zituzten ikertu zen. Hala ere, artikulu honetan aztertu nahi dena da, Iturrama BHIko ikastetxean praktikan jarritako proposamen bat. Bertan errepresio frankista, memoria historikoa eta Memoria Tokiak bezalako gaiak landu ziren. Horri esker, alde aurreko prestakuntza horrek inkestan islatutako ikasleen balorazioetan eragina izan zuela ondorioztatu zen. Lanaren helburu nagusietako bat da erakustea nola proposamen didaktiko horrek lortzen duen ikasleengan iraganarekiko ulermen eta sensibilitate handiagoa sustatzea, Sartagudako topaketa bezalako jardueretan aktiboki parte hartzea erraztuz.

Hala ere, gai horiek jorratzea ez dago eztabaidatik kanpo. Espainiako estatuan memoriari buruzko politketan aurrerapausoak eman badira ere, ikus dezakegu gizar-tean eztabaida sortzen duen gaia dela eta gaur egun politika horiek atzerakada bat jasaten ari direla. Fenomeno horrek, zintzotasun historikoaren babesa arriskuan

\* [Enviado 2024-10-30 • Aceptado 2024-11-11] • DOI: <https://doi.org/10.58504/rgu.38.6>

jartzeaz gain, belaunaldi berriek beren iraganaz duten pertzepzioa desitxuratzeko mehatxua ere egiten du. Lan honen beste ideia garrantzitsu bat da azaltzea funtsezkoa dela memoria historikoari buruzko hezkuntza-proposamen orokorrak eta nahitaezkoak ezartzea ikastetxe guztietan. Memoria historikoa egungo hezkuntza curriculumean sartzeak bermatzen du erantzukizun hori ez dagokiola soilik zenbait irakasleren interes pertsonalari. Helburua da gizartea, eta bereziki gazteak, balio demokratikoetan eta tolerantzian heztea, gure iragan kolektiboaren ulermen sako-nagoa eta kritikoagoa sustatuz.

Laburbilduz, memoria historikoaren eta Memoria Tokien azterketa funtsezkoa da, ez bakarrik ikasteko tresna gisa, baita gizarte justuago eta demokratikoago bat eraikitzeko zutabe gisa ere. Egungo erronken aurrean, nahitaezkoa da gai horietan hezkuntza indartzea, belaunaldi berriek balio demokratikoekiko hausnarketa kritikoa eta konpromiso aktiboa izan dezaten. Azkenik, ikasleek gai horiek nola interpretatzen eta baloratzen dituzten ikertzeko beharra planteatzen da, funtsezko galderak aztertuz: nola eragiten du memoria historikoaren gaiekin lan egiteak ikasleek gai horiei buruz duten pertzepzioan eta balioespenean? Ba al dago harremanik memoria historikoa gelan lantzeko moduaren eta ikasleek gai hauei buruz egiten dituzten balorazioen artean? Nola landu beharko litzateke memoria historikoaren irakaskuntza eraginkorragoa izateko? Zein da gazteen iritzia eta jarrera memoria historikoari dagokionez? Galdera horiei guztiei erantzutea, ondorioak ateratzea eta horiei buruz hausnartzea da helburua.

### 1. Marko Teorikoa

Memoriak funtsezko zeregina du gizarte demokratikoetan, iraganeko balioak eta esperientziak zaintzeko eta transmititzeko bidea baita. Demokrazia batean, memoria historikoak etengabe gogorarazten ditu egungo gizartearen osaerari forma eta zentzua eman dioten gertaerak. Hainbat funtzio betetzen ditu: identitatea eta gizarte-kohesioa eraikitzea, justizia sustatzea eta eskubideak babestea. Gertaera historikoak gogoratzean, hala nola giza eskubideen urraketak, oroimenak erantzukizun kolektiboaren zentzua indartzen du eta printzipio demokratikoen ikaskuntza sustatzen du. Testuinguru horretan, autore desberdinek, hala nola, Theodor W. Adorno, Walter Benjamin, Elizabeth Jelin eta Raimundo Cuesta autoreek oroime-nak hezkuntza eta etika-tresna gisa duen potentzialari buruz hausnartu dute.

Autore horiek memoriak gizarte demokratikoetan duen zeregina» kontzeptua aztertzea. Gai honek gero eta arreta handiagoa jaso du ikerketa historikoaren alde-tik, eta Memoria Tokiak tresna pedagogiko gisa hartzen baditugu ardatz, garrantzi-tsua da gutxienez azalpen labur bat ematea kontzeptu horren esanahiari buruz eta esleitzen zaion balioaren arabera izan ditzakeen interpretazioei buruz. Pierre Norak sortu eta gaian espezializatutako hainbat egilek asko erabili duten «memoria-tokien» kontzeptuari buruzko azalpen eta gogoeta ugari eman dira. Hala ere, funtsezkoa da lehen teorizazioak kontuan hartzea. Izan ere, artikulu honen helburua

memoria-tokiak indarkeriarekin eta bidegabekeriekin lotutako isilpeko memoria lantzeko baliabide baliotsu gisa aurkeztea da. Horren adibide dugu Sartagudako Memoriaren Parkean egiten den Belaunaldien arteko Topaketa.

Hala ere, funtzio hori ez da «memoria-toki» guztietan ematen. «Memoria Tokiak» monumentalak eta hegemonikoak ere badaude, hala nola militarrek eraikitako memorialak edo diktadurek ezarritako monumentuak, hala nola Erorien Harena (Cuelgamuros) edo Parisko «Garaipenaren Arkua». Hemen identifika dezakegu lieux de mémoire eta lieux dominants-en arteko bereizketa: toki batzuetan pertsonen esperientziak eta testigantzak entzuten dira, enpatiaren bidez memoria kolektiboa bultzatzeko (Sartagudako Memoriaren Parkean gertatzen den bezala); beste batzuek, berriz, diskurtso autolegitimatzailerak ezartzen dute, hausnarketa kritikoari tarterik ireki gabe (Marín, 2014, 120-121 or.). Alderdi hori kontuan hartzea funtsezkoa da, proposamen honen ezaugarrietako bat memoria-tokien izaera pedagogikoa nabarmentzea baita.

Gai hori argitu ondoren, memoriak hezkuntza-tresna gisa duen zereginari buruz hausnartu duten egileetan murgilduko gara. Adornorekin hasiko gara. Adornok, *Dialéctica de la Ilustración* lanean, Max Horkheimerrekin batera, gizarte modernoak amnesia kolektiborako duen joera kritikatu zuen, kontsumo kulturaren emaitza dena. Memoria galtze horrek alienaziora garamatzala eta iragan traumatikoaren aurrean erantzukizun etikoa zailtzen duela argudiatu zuen, Auschwitzeko izugarrikeriak kasu. Adornoren ustez, memoria kritikoa iraganeko manipulazio politikoari aurre egiteko bitarteko bat da, biktimen oroimenean oinarritutako eraldaketa etikoa eskatuz. Jarrera horrek, halaber, iraganeko sufrimenduan oinarritzen den justiziaren beharra nabarmentzen du, tragediak errepikatzea saihesteko agindu moral gisa. (Almanza, 2017, 132-148.or).

Walter Benjaminek, bere aldetik, *Tesis sobre la historia* lanean, salatu zuen garai-leek idatzi ohi dutela narratiba historikoa, zapalduen ahotsak isilaraziz. Benjaminek garaituen memoria justiziaren ekintza gisa berreskuratzearen alde egin zuen, botere menderatzailea justifikatzen duten narratiba ofizialak aurrez aurre jarritz. Ildo kritiko beretik, Elizabeth Jelin soziologo argentinarrek memoriak hezkuntzan duen garrantzia azpimarratzen du, herritartasun kritiko eta kontziente bat eraikitze baliabide gisa, bereziki errepresio politikoa jasan duten gizarteetan. Jelinek historia partziala irakasteak dituen arriskuez ohartarazi du, eta belaunaldien arteko elkarriketa nabarmendu du iraganaren ulermena aberasteko bide gisa (Jelin, 2002, 5.or).

Debjaio de este párrafo quiero añadir este otro:

Laura Benadibak ekarpen esanguratsua egin du memoria historikoaren irakaskuntzan, batez ere ahozko historiaren bidez, hezkuntza-tresna gisa. La historia oral como herramienta para la construcción de la memoria colectiva (2010) lanean, Benadibak testigantzekin lan egiteak ikasleei eta irakasleei hainbat komunitateen esperientzietara eta oroitzapenetara hurbiltzeko aukera ematen diela aztertzen



du. Ikuspegi horrek prozesu historikoak ulertzen ez ezik, iraganari eta orainarekin duen harremanari buruzko kontzientzia kritikoa garatzen ere laguntzen du. Gainera, hori bereziki garrantzitsua da; izan ere, gaur egun, memoria historikoari buruz ikasgeletan egindako lan gehienak biktimen edo haien senideen ahozko iturrietan oinarritzen dira, irakaskuntza aberastuz eta gertakari historikoei giza dimentsioa emanez. Benadibaren metodologia Latinoamerikako hezkuntza-proiektuetan aplikatu da, belaunaldien arteko lotura aktiboa sustatuz eta eskola-eremuan memoria historikoaz jabetzea erraztuz.

Raimundo Cuesta ere memoriaren erabilera pedagogikoaren defendatzailea izan da, gertaerak transmititzetik haratago doan tresna kritikoa izan behar duela argudiatuz. *Historia y Memoria: los lugares olvidados de la pedagogía* izeneko Nazioarteko Mintegian eskainitako hitzaldian, Cuestak «Memoria duen Historia» proposatzen du, garaituen esperientzia eta giza sufrimendua barne hartzen dituen, eta historia kritiko baten alde egiten du, garaituen memoria aldarrikatuko duena. Hezkuntza-eremuan, Cuestak irakaskuntza zalantzan jarriko dituen didaktika kritikoa alde egiten du, eta bost postulatutan oinarritutako programa proposatzen du: oraina problematizatzea, historikoki pentsatzea, elkarrizketatuz ikastea, nahia hezte eta kode pedagogiko eta profesionalak aurkaratzea. Hori guztia, *Los deberes de la memoria* proiektua nabarmentzen da. Gerra zibila, diktadura eta Espainiako demokraziarako trantsizioa bezalako gaiak jorratzen ditu, behetik historia bat bilatuz eta belaunaldi ezberdinetako memoriekin lan eginez (Cuesta, 2009, 35.or).

### *1.1. Nazioarteko mailan emandako urratsak. Alemania, Frantzia eta Latinoamerika*

Raimundo Cuestak *Los deberes de la memoria en la educación* lanean Holokaustoa eta erregimen faxisten izugarrikeriak gogoratzea gure garairako funtsezkoa dela planteatzen du. Hau da, benetako hezkuntza-programa baten beharra, Adornok esaten duen moduan, Auschwitz gertatutakoa ez errepikatzeko. Uste osoa zegoen horrelako zerbait ez litzatekeela errepikatu behar, baina, tamalez, hori berriro gerta daiteke. Horregatik, iraganeko izugarrikeriak errepikatu behar ez direlako ideiak kontzientzia kritikoa garatzea eragin zuen hezkuntza-eremuan. Europako herrialde askok hezkuntza-ekintzak egin zituzten, hala nola memoria-tokietara bisitak, gai horri heltzeko. Hala ere, memoriarekin lotutako hezkuntza-ikuspegi guztiek ez dute pentsamendu kritikoa sustatzen, eta, besterik gabe, memoria curriculumean sartzeak ez du bermatzen ikasgelan behar bezala tratatzea (Gastón eta Layana, 2022, 218.or ).

Esate baterako, ez da oso eraginkorra izaten narratiba itxiak dituzten eta ikaslearen zeregina hartzaile soil batengana mugatzen duten curriculumak hartzea. Adibide hori Frantziako eta Alemaniako esperientzietan ikus daiteke. Memoria-tokietara bisitak bezalako jardueren errutinizazioa arazotsua izan daiteke ikasleekin elkarrizketa aktiboa sustatzen ez bada. Ikerketen arabera, ikasleek erraz atzeman ditzakete

zenbait gairi buruz espero diren diskurtsoak, hausnarketa kritiko pertsonalik egin gabe (Tutiaux-Guillon, 2008, 31-42.or).

Beste espazio geografiko batean jartzen badugu arreta hezkuntzan memoriaren tratamendua nola eraman den ikusteko orduan, Latinoamerikaren kasua dugu. Elizabeth Jelin eta Federico Guillermo Lorenz-en *Educación y memoria, La escuela elabora el pasado* liburua aitzindaria izan zen hezkuntza-erakundeek iraganari buruz, bereziki memoria gatazkatsu edo traumatikoen testuinguruetan, nola lantzen eta irakasten duten aztertzeko orduan. Hezkuntzaren eta memoriaren arteko harremana, eskoletan memoria kolektiboak nola eraikitzen eta transmititzen diren aztertzen du. Egileek irakasleen rola, curriculum-edukia eta testuinguru soziopolitikoak nabarmentzen dituzte memoria historikoa irakasteko funtsezko faktore gisa. Helburu nagusia historiaren ulermen kritikoa sustatzea da, ikasgelan hausnarketa mugatu dezaketen narratiba ofizialak edo hegemonikoak desafiatuz.

Liburuaren ardatza Argentinako hezkuntza-praktikak dira, non diktadura militarren eta giza eskubideen urraketek oroimenak hezkuntza-agendan funtsezko lekua duten. Hala ere, aurrerapen horiek arriskuan daude Javier Mileiren lehendakariatzapean, zeinak jarrera kritikoa hartu baitu memoria historikoarekiko, diktaduraren giza eskubideen urraketak minimizatuz eta herrialdean giza eskubideen irakaskuntza eta memoria kritikoa arriskuan jarritz. Gainera, testuak Latinoamerikako beste herrialde batzuek, hala nola Brasilek, Txilek, Peruk eta Uruguai iragan errepresiboari nola aurre egin dioten aztertzen du. Gobernu demokratikoen itzulera-ondoren, hezkuntza-politikak berriz diseinatzeko beharra sortu zen, iraganeko giza eskubideen urraketari aurre egiteko. Hala ere, aurreko diktaduraren politikak prozesu hori zailtzen duen aztarna bat utzi zuten, narratiba alternatiboen historia ofiziala zatituz. Laburbilduz, liburuak diktaduraren osteko testuinguruetan irakastearen erronkak nabarmentzen ditu.

## 1.2. *Estatu espainiarren egoera*

Estatu espainiarren kasuan, zailtasunak handiagoak izan dira diktaduraren amaieraren ondoren iraganari buruz egin den memoria kritiko eskasaren ondorioz. Hau da, adostasuneko eta adiskidetzeko kultura politikoa egon zen trantsizioan. 1936tik aurrera matxinatuek eta ondoren frankismoak zabaldutako indarkeriaren memoria berreskuratzeak eta publikoki kudeatzeak gizartean dagoen eztabaida politiko eta sozial nagusietako bat ekarri du. Sektore jakin batzuen erresistentziak eta beste batzuetan erabakirik ez hartzeak eragin dute memoria-politika publikoak modu desberdinean hedatzea lurraldeari dagokionez. Horrek guztiak hezkuntza-sistemako errepresio frankistari aurre egiteko curriculum-espaziorik eza ekarri zuen. Gai honi buruzko hezkuntza-esperientziak irakasle konprometituetara eta talde pedagogiko berritzaileetara mugatuta daude (Gastón eta Layana, 2022, 218-219.or).

2007ko Memoria Historikoen Legea eta 2022ko Lege Demokratikoa bezalako lege nazionalak egon arren, Estatu espainiarrean oso egoera desberdinak daude er-

kidego autonomoek egindako memoria-politikei dagokienez. Memoria Historikoaren Legearen helburu nagusia Espainiako Gerra Zibilean eta Francisco Francoren diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zuten pertsonen eskubideak aitortzea eta zabaltzea zen. 2022ko Lege Demokratikoak, 2007ko legean jasotako neurri guztiak sakondu eta indartzen ditu, eta memoria demokratikoa hezkuntza-curriculumean sartzea gaineratzen du. Halaber, hezkuntzan ere aurrerapausoak eman dira. Kontuan izan behar da, egungo curriculumetan erraztasun gehiago daudela memoria historikoarekin lotutako gaiak lantzeko. Hau da, LOMLOEri esker, bigarren hezkuntzako irakasleek askatasun handiagoa dute ikasgelan gai horiek lantzeko. Legeak ikasleei Espainiako oraintsuko historia ulertzen eta hausnartzen lagunduko dieten edukiak sartzea sustatzen du, Gerra Zibilaren eta diktadura frankistaren garaiak barne.

Hala ere, Espainiako estatuaren barruan, aurrerapena ezberdina izan da. Memoria-politiken arloan dauden desberdintasunei buruz hitz egiten badugu, ikus dezakegu Nafarroa lege oso aurreratuak dauden autonomia-erkidegoetako bat dela, Espainiako gainerako lurraldeekin alderatuta. Horren adibidea da, aurrerago *Memoria duten Eskolen* proiektu aitzindariari buruz egingo den aipamena. Aldiz, PP eta Vox alderdiak hainbat autonomia erkidegotako gobernuetara iritsi direnean, atzeraldia izan da. Zenbait eskualdek memoria historikoaren lege asko indargabetu dituzte eta «Konkordiaren Legeak» ezarri dira. Gaztela eta Leonen, Valentziako Erkidegoan, Balear Uharteetan eta Kantabrian, esaterako, lege-aldaketak izan dituzte, eta eraldatu egin dute memoria historikoarekiko hezkuntza-ikuspegia.

Bestetik, nahiz eta Espainiako lurraldean desberdintasun handiak egon, azken urteotan memoria hezkuntzaren erdigunean jarri duten proiektuak egin dira. 2022an egindako *Memoria duen Historia Hezkuntzan Nazioarteko I Kongresuak* hezkuntzaren bidez memoria historikoa belaunaldi berriei nola transmititu eztabaida bultzatu zuen. Espainiako hainbat ikastetxetan memoria historikoaren irakaskuntza ardatz duten hezkuntza-proiektu eta unitate didaktiko desberdinak aurkeztu ziren. Hau da, memoria historikoaren irakaskuntzan lehen mailako iturrien, memoria-tokien eta ahozko baliabideen erabilera barne hartzen duten ekimenak aurkeztu ziren. Proiektu horiek, bai tokian-tokian bai nazioarteko lankidetzan, Espainiaren iraganaren azterketa kritikoa sustatuko duen hezkuntza sustatzeko ahalegin handia egin dutela erakutsi zuten. Lehen kongresu honek arrakasta handia izan zuenez, 2024ko azaroan kongresu honen bigarren edizioa egingo da.

### 1.3. *Nafarroako kasua: Memoria duten Eskolak*

2015etik, Nafarroak aurrerapen nabarmena izan du memoria-politika publikoen ezarpenean, hein handi batean gobernuaren osaeran izandako aldaketa baten ondorioz. Horregatik, urte horretan bertan, Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuaren barruan, Memoria Historikoaren atal bat sortu zen, eta 2018an Nafarroako Memoriaren Institutu bihurtu zen.

Urte hauetan funtsezko bost ardatzen inguruan aritu dira lanean: 1936tik aurrera eraildako pertsonen gorpuzkiak berreskuratzea eta identifikatzea, gorpuak lurpetik ateratzeko programa baten bidez eta ADN bankua sortuz; gizartearen parte-hartzeari irekitako omenaldi instituzionalen bidezko erreparazio publikoa; espazio publikoan oraindik indarrean dagoen sinbologia frankista kentzea; memoria-tokiak sustatzea iragana kritikoki berrikusteko gune gisa; eta hezkuntza-programa bat abian jartzea belaunaldi gazteenak iraganeko alderdi ilun eta ezkutuenetan sartzeko eta gaur egunera arte nola proiektatzen diren hausnartzeko. Horren ondorioz, 2016an *Memoria duten Eskolak* programa sortu zen (Gastón eta Layana, 2022, 220.or).

Gainera, horrek guztiak Nafarroako Memoria Historikoaren lekuak 2018ko abenduaren 26ko 29/2018 Foru Legearen babes du. Lege honek leku horiek babesteko eta ofizialki izendatzeko esparrua ezartzen du, eta, hain zuzen ere, dibulgazioari eta pedagogiari buruzko aipamena egiten du, zehazki, 17. artikulua. Dibulgazio-jarduerak, non ezartzen den gai horretan arduraduna den Gobernuko Departamentuak hainbat jarduera sustatuko dituela, Memoria duten Eskolak programa barne. Arau-babes honek curriculum-lana sustatzen du ikastetxeetan, memoria-tokiak tresna pedagogiko baliotsu gisa erabiliz.

NMI sortu aurretik ekimen esanguratsuak gauzatu ziren Nafarroan. 2001ean, Geronimo de Uztariz Institutuak (GUI) *Historiaren Didaktikari* buruzko Mintegia antolatu zuen, hezkuntza-erreformatan eta irakaskuntza kritikoa oinarritua. Ondoren, 2005ean, *Ahozko eta Ikusizko Iturrien Historiari* buruzko Nazioarteko Kongresua egin zen, irakaskuntzan iturri historikoen erabilera sustatuz. Kongresu horretatik sortu zen «Gogoan» proiektua, GUIk bultzatua, Nafarroako hainbat institututako irakasleak gerra zibilari eta frankismoari buruzko proiektu didaktikoetan sartu zituen (Mendiola eta Ozkoidi, 2006, 22-26.or). Horrekin lotuta, 2014an, IGUK Gerra Zibilaren eta frankismoaren irakaskuntzari buruzko jardunaldi bat antolatu zuen. Memoria historikoari buruzko hezkuntza-esperientziak partekatu ziren Nafarroako eskoletan (Layana eta Gastón, 2020, 220-221.or).

NMIren ardatzetako bat *Memoria duten Eskolak* izeneko hezkuntza-programa sortzea da. Programa horren bidez, derrigorrezko hezkuntzako etapa guztietako ikastetxeetan memoriarekin lotutako proiektuak eta jarduerak sustatu nahi dira. *Memoria duten Eskolak* programa hiru ekintza-ardatz nagusiren inguruan egituratzen da: irakasleen prestakuntza; ikasleekin egiten diren jarduerak ikastetxe barruan zein kanpoan; eta *Memoria duten Eskolak* sare bat sortzea, ikastetxeek beren memoria-proiektuak garatzeko atxikitzea erabaki dezaten.

Programaren barruan, ikasleak memoria historikoaz sentsibilizatzen dituzten hezkuntza-esperientziak diseinatzen dira eta ikasleengan esperientziak sortzen dituztenak lehenesten dira. Jarduera horien artean, besteak beste, Ezkaba mendian San Kristobal gotorlekuak izandako ihesa oroitarazten duen «Askatasunaren botilak» martxa eta belaunaldien arteko topaketak Sartagudako Memoriaren Parkean. Esperientzia horiei esker, ikasleek errepresaliatuen senideekin elkarreragin eta go-

goeta kritikoa sustatzen duten jarduera sortzaileetan parte har dezakete. Beste motatako esperientziak proposatzen dira. Adibidez, gazteen bisitak memoria-tokietan. Era berean, NMIk programatutako erakusketetara bisita egiten ahal da, hala nola 2019an inauguratutakoa eta Lur Azpian<sup>1</sup> izena duena. Badira memoria ardatz duten antzerki-lanak ere, eta horiei esker programa bat abiarazi ahal izan da, «Memoria duen antzezlan» izenekoa<sup>2</sup> (Gastón eta Layana, 2022, 226.or).

#### 1.4. *Sartagudako memoria parkean egiten den belaunaldien arteko topaketa*

Sartagudako Memoriaren Parkean<sup>3</sup> antolatutako belaunaldien arteko topaketa Nafarroako Memoriaren Institutuak sortu zuen eta *Memoria duten Eskolak* programaren barruan dago. *Memoria duten Eskolak* programaren bidez gauzatutako proiektuen helburua historiografiak errepresio frankistari buruz egindako ekarpen garrantzitsuenak belaunaldi gazteenei hurbiltzea da. Topaketa horietan, hainbat ikastetxetako ikasleek biktimen eta haien senideen bizipenak entzuteko aukera dute, errepresioaren ondorioei buruzko ikuspegi zuzena emanez. Bost edizio egin dira 2019an hasita (Nafarroako Memoriaren Institutua, 2020).

Edizio guztiek antzeko eskema jarraitzen dute. Jardunaldiari hasiera emateko, Nafarroako Memoriaren Institutuko kideek ekitaldia aurkezten dute. Ondoren, ikasleak taldetan banatzen dira. Talde horiek biktimen senideekin biltzen dira, haien esperientzia kontatzen dute, ikasleek biktima horiekin elkarrizketan parte hartzen dute eta ikaskuntza aberasgarria sortzen dute. Horrek guztiak izaera artistikoa izan dezaketen tailerrekin jarraitzen du. Horietan parte hartzen ez duten ikasleek Sartagudako Memoriaren Pasealekua bisita dezakete. Tailerrak amaitzen direnean, amaierako ekitaldiak egiten dira Parkeko plazan. Ekitaldi horiek ikastetxetako ikasleek egiten dituzte, eta tailerretan eta alde zuzenetik ikastetxetako ikasgeletan egindako lanak erakusten dituzte (Ibáñez, 2022).

Azken urteotan, Sartagudan biktimen senideen eta ikasleen arteko topaketa ekimen baliotsua izan da memoria historikoari heltzeko. Topaketak eta elkarrizketak eraginkorrak diren arren, ikasleen batzuen jarrera pasiboa sumatu izan da eta horrek galdera desberdinak sustatu izan ditu. Topaketara joan aurretik, irakasleek lantzen al dituzte memoria historikoarekin eta frankismoaren errepresioarekin lotutako gaiak ikasgelan? Zer interes dituzte ikasleek? Eta irakasleek? Argi dago beharrezkoa dela gai horiek topaketara joan aurretik lantzea, jarduera ahalik eta gehien aprobeztatzeko. Horregatik, *Memoria duten Eskolak* programaren barruan, Sartagudako Memoriaren Parkean egiten den belaunaldien arteko topaketa aukeratzea erabaki zen. Egindako inkestaren helburua, gazteek memoria historikoaren irakaskuntzari buruz zuten iritzia ezagutzea zen, bai eta topaketara joan aurretik ikasgelan gai horiek landu ote zituzten eta inkestan egindako balorazioetan horrek eraginik izan ote zuen identifikatzea ere. Hala ere, artikulua honetan gehiago azalduko dut Iturraman hiru egunez garatutako proposamen didaktikoa memoria historikoarekin lotura zituena gaiak jorratu zituen.

## 2. Inkesta

Baina Iturramako ikastetxean praktikara eramandako proposamen didaktikoa azaldu aurretik, labur-labur aipatuko ditut inkestaren helburua, nori zuzendua izan zen eta lortutako emaitzak eta ondorioak. Prestatutako inkesta honen xedea ikasleek eta irakasleek Sartagudako belaunaldien arteko topaketan parte hartzeari buruz dituzten iritziak jasotzea eta memoria historikoarekin lotutako gaiari buruz duten pertzepzioa ebaluatzea zen. Ikasgelako aurretiazko jarduerak ekitaldiaren ulermenean eta balorazioan nola eragiten duten neurtu nahi zen, baita memoria historikoari hezkuntzaren esparruan ematen dioten garrantzian ere. Gainera, ikasle batzuegan azken urteetan ikusitako pasibotasuna ulertu nahi zen, eta haien parte-hartzea eta konpromisoa hobetzeko irtenbideak aurkitu.

Bi inkesta diseinatu ziren, bata ikasleentzat eta bestea irakasleentzat, galdera kuantitatiboak eta kualitatiboak barne. Galdera kuantitatiboek, bai edo ez formatuan edo zenbakizko eskalen bidez, Sartagudako topaketaren interes eta balorazio-maila neurtzeko aukera ematen zuten. Bestalde, galdera kualitatiboek gonbidatzen zituzten galdetutako pertsonak beren iritziak xehetasunez adieraztera eta garatzera, belaunaldien arteko topaketari buruzko beren ikuspegiak eta sentimenduak sakonago ulertzeko eta ikasleen hezkuntzan memoria historikoaren gaiak lantzearen garrantziaz jabetzeko. Inkestek ikertzen zuten ea ezagutzen zuten edo aurretik Memoriaren Parkean egonak ziren, ea ekitaldiaren aurretik ikasgelan memoria historikoari buruzko gaiak jorratu zituzten, eta ea topaketak egungo arazoei buruzko hausnarketa errazten zuen. Beren esperientziari buruzko azken hausnarketa ere eskatzen zitzairen. Era berean, ikasleek memoria-tokien garrantziari, entzundako testigantzen balorazioari eta memoria historikoarekiko konpromisoari buruzko galdera gehigarriei erantzun zieten. Sartagudako Belaunaldien arteko V. Topaketaren ondoren bidalitako inkestek 265 ikasle eta 17 irakasleren erantzunak jaso zituzten.

Ikasleen erantzunei soilik erreparatzen badiegu, lortutako erantzunen analisiak erakutsi zuen topaketan parte hartu izanak aukera eman ziela gazteei Sartagudako Memoriaren Parkearen existentzia eta asmoa ezagutzeko. Ikasle gehienek ez zuten alde aurretik parkea ezagutzen, baina haien parte-hartzeak parkea ezagutzeko eta memoria historikoarekin lotutako gaiak lantzeko aukera eman zien. Gainera, errepresio frankistaren biktimen senideen testigantzak entzuteko gai izan ziren. Ikasle askok testigantza horiek hunkigarri eta gogoetsu gisa deskribatu zituzten, eta memoria historikoaz kontzientzia handiagoa hartu zutela adierazi zuten. Senitartekoen sufrimenduarekiko enpatziari esker, ikasleek hobeto ulertu zituzten irakasleek 1936ko estatu-kolpearen eta ondoren Nafarroan izandako errepresioaren inguruan emandako azalpenak. Topaketaren zati hori da gehien baloratu zutena; izan ere, hunkitu egiten zituen, enpatizatzen lagundu zien eta iragan traumatikoaren eta errepikapena saihesteko behararen gaineko kontzientzia handiagoa sustatu zuen. Iritzi desberdinak zeuden arren, gehienek Memoria Tokiak izatearen alde egin zuten, biktimen oroitzapena eta hezkuntza-tresna gisa erabiltzea babesteko.

### 3. Proposamena

Inkesten emaitzen artean Iturrama ikastetxea izan zen Sartagudako belaunaldien arteko topaketako esperientzian eta balorazioan erantzun onenak lortu zituzten ikastetxetako bat. Era berean, Memoria Tokien eta memoria historikoaren irakas-kuntzaren garrantziari buruzko balorazio onak ere egin zituzten. Emaitza hori ez da kasualitatea; izan ere, Sartagudako topaketara joan baino egun batzuk lehenago, ikasleak memoria historikoarekin eta Memoria Tokien lotutako gaiak lantzen aritu ziren, hainbat material eta jardueraren bidez. Gai horiek landu izan zituzten nik aurrera eramandako esku hartzeari esker. Proposamen hori, batxilergoko lehen mailako Nafarroako Geografia eta Historia ikasgaien gauzatu zen. Emandako gaia 1936ko estatu-kolpearen ondoren frankismo-garaiko errepresioak Nafarroan izan zituen ondorioak eta, ondoren, horri buruz egin den memoria berreskuratzea izan zen.

Jasotako eskolei esker eta ikasleek erantzun zuten inkesta aztertu ondoren, ikusi izan ahal da ikasgelan aipaturiko gai hauek ematea lagungarria izan daitekeela Sartagudako Memoriaren Parkean izandako esperientziari buruzko galderei inguruko eta Memoriaren Tokiak ikasteko tresna gisa buruzko balorazio on egiteko. Era berean, erantzun horien atzean ikaskuntza egokia edo hobea garatu den ala ez ikusteko. Inkesten emaitzak aztertu ondoren, esan dezakegu harreman bat dagoela horretan. Hau da, ikasgelako topaketaren aurretik gaia zenbat eta gehiago landu, orduan eta gehiago aprobetxatzen dute ikasleek topaketan senideek emandako testigantzak eta Memoriaren Parkean eskaintzen diren jarduerak. Esate baterako, enpatia, kontzientzia eta interes handiagoa garatzen dute, eta, ondorioz, gehiago ikasten dute emandako gaiari buruz.

Zeintzuk izan dira proposamen honen helburuak? Lehenengoa eta nagusia, Sartagudako Memoriaren Parkean belaunaldien arteko topaketara joan aurretik ikasleek ikasgelan 1936ko estatu-kolpetik Nafarroako herrietan bizi izandako errepresioarekin zerikusia duten gaiak lantzea, baita memoria historikoari buruzko gaiak jorratzea ere. Horrela, topaketara joan aurretik ikasleek alde aurreko ezagutza lortu eta bide batez, Sartagudako Memoriaren parkean jarduera hobeto aprobetxatzeko eta eraginkorragoa izateko.

Proposamenaren funtsezko beste helburu bat Nafarroan errepresioa nola agertu zen erakusten duten adibide zehatzak eskaintzea zen. Errepresio horrek zein pertsonari eragin zion erakutsiz, hala nola: sindikalistak, politikariak, emakumeak, artistak, besteak beste. Gainera, ikasleak biktimen gorpuak bilatzeko eta berreskuratzekeo prozesuek ezagutzea nahi zen, baita Memoriaren Tokien Nafarroan duten esanahiak eta kokapenak ere. Ulermen horrek aukera ematen die eskualdearen iragan traumatikoa ezagutzeko, gaur egun dituen ondorioak ulertzeko eta memoria horiek berreskuratzekeo eta ohoratzekeo hasitako ekintzak balioesteko. Ezagutza hori garrantzitsua da biktimizekiko eta entzun zituzten kontakizunekiko enpatia lantzeko.

Azkenik, proposamenaren saioak prestatzeko, aurrez aipatutako hainbat baliabide erabili ziren. Baliabide horien artean bilatzaileak, datu-baseak eta gaiari buruz-

ko bibliografia espezializatua, testigantzak, argazkiak, bideoak, mapak, erakusketa birtualak eta webguneak zeuden besteak beste. Beraz, beste xede garrantzitsu bat ikasleei tresna horiek kontsultatzen eta erabiltzen irakastea zen, bai beren interes pertsonalerako, bai etorkizuneko lan eta ikerketetarako.

Horretarako, helburu guztiak lortzearren, kurrikulumean agertzen diren kompetentzia ezberdinak garatu ziren. Esate baterako, LOMLOEk kompetentzia espezifiko batzuk ezartzen ditu, aurkeztutako proposamenarekin lotuta daudenak. Lehenik, kontzeptu historikoak eta geografikoak ulertzeko kompetentzia garatu zen, ikasleei Nafarroako memoria historikoari eta 1936ko estatu-kolpearen ondorengo errepresioari buruz ikasteko aukera emanaz. Ondoren, iturri historikoen azterketa eta interpretazioa nabarmendu zen, *Oroibidea*<sup>4</sup> baliabideak eskaintzen dituen dokumentuak eta testigantzak erabiliz. Iraganaren eta orainaren arteko lotura ere sustatu zen, gaur egun Nafarroan duen eragina ulertzeko, eta, azkenik, pentsamendu kritikoa landu zen, gertaera historikoak ebaluatzeko eta memoria demokratikoari buruz hausnartzeko giltzarria. Denboralizazioari dagokionez, prestatutako proposamena hiru klasetan banatu zen.

### 3.1. Azterketa

Lehenengo saioan, klaseari hasiera emateko, galdetegi bat eman zitzaien. Hasierrako inkestaren xedea zen ikasleek memoria historikoa bezalako gaietarako buruz duten ezagutza maila ezagutzeko. Zehazki, 1936ko estatu kolpearen ondoren Nafarroan izandako errepresioari eta Memoria Tokietarako buruz. Galdetegi horretan honelako galderak erantzun behar zituzten: haien iritziz zer den memoria historikoa, memoria historikoarekin lotura duten omenaldietan parte hartzearen ingurukoak, memoria-tokien adibideen ezagutzaren aipamenak, ikasgelan memoria historikoari buruzko gaiak lantzea garrantzitsua den jakitea... Inkesta hori hurrengo astean eman zitzaien, jasotako klaseak eman ondoren. Modu horretan, egun horietan emandako informazioaren eragina izan zuen eta gaiari buruzko ezagutza gehiago lortu zuten ikusteko.

Inkesta hori erantzun ondoren, Berri Txarrak taldearen *Maravillas* abestia entzun zen eta bakoitzari abesti horren letra banatu zitzaion azter zezaten. Hiru esaldi nabarmendu ziren horren inguruan hausnartzeko eta, horrela, *Maravillas* Lamberto eta bere familiari gertatutakoaren historia kontatu ahal izateko. Azpimarratutako esaldiak honako hauek izan ziren:

- «Zein dira deitu gabe datozenak?»
- «Agur ahizpak eta senitarteko guztiak»
- «Norbaitek oroituko ditu etorkizunean, ahantzuraren zingira honetan gertatuak».

Galdera horiei erantzunetako, Vicente eta *Maravillas* Lamberto nortzuk ziren azaltzea ezinbestekoa izan zen, zer gertatu zitzaien biei, jasan zuten errepresioa, haien heriotzak eta, gaur egun, ezin izan direla haien gorpuak berreskuratu kontatzea. Horretarako, *Maravillas* Lambertori buruz *Oroibidean* bildutako informazioa erabili zen, lehen aipatutako bilatzaile bibliografikoa, non jasan zituen gertakari



errepresiboei buruzko idatzizko eta ahozko testigantzak jasotzen diren. Era berean, *De la esperanza al terror* liburuaren Larragako errepresioari buruzko atala. Errepresio frankistaren adibideetako bat ikusi ahal izan zuten, batez ere emakumeengan emandako errepresio zehatza. Maravillasen ahizpen testigantza aukeratu ziren (Josefina eta Pilar), Maravillasek eta Vicentek jasandako gertakariak ezagut zitzaten, eraman zituztenean haiek etxean baitzeuden. Halaber, Maravillasen gorpua nola aurkitu zuten kontatzen zuen gizon baten testigantza ere erabili izan zen. Hautatutako testigantza guztiak Oroibidetik eta *De la esperanza al terror* liburutik lortu ziren.

Aukeratutako hurrengo galderarekin, «Zein dira deitu gabe datozenak?», Maravillas bortxatu eta Lambertotarrak hil zituztenen izenak ezagutzen direla jakinarazi zitzairen. Horrela, kolpistek gertakari errepresiboak egitean zuten zigorgabetasuna erakutsi zitzairen. Ikusi izan zuten, halaber, nola bi hilketa hauen ondoren, ahizpak eta ama pobrezian bizi ziren herrian. Horren ondorioz, Maravillasen ahizpak, Josefina, zerbitzari gisa lan egin behar izan zuen aitaren eta ahizparen hiltzaileen etxeetako batean.

Azkenekoan, «Norbaitek oroituko ditu etorkizunean, ahanzturaren zingira honetan gertatuak» hitzekin, oroimenaren eta borrokaren adibideak erakusteko xedea zen, gertatu zena ezagutzera emateko egin direnak. Esate baterako, Maravillas Lambertok eta bere familiari gertatutakoari buruz hitz egiten duen abesti bat egotea memoria egitearen adibide bat dela ulertu zuten. Gainera, Berri Txarrak taldeak abesti hau atera aurretik, urte batzuk lehenago, Fermin Balentziak Maravillas gertatutakoa kontatzen zion abesti bat egin zuen. Horregatik, honen letra ere jaso zuten.

Ondoren, AFFNA 36 NAFSE zer den azaldu zen. Nafarroako elkarte memoria-ista garrantzitsuenetako bat, baina Nafarroan memoria historikoa berreskuratzen eta biktimen senideak defendatzen lan egiten dutenak elkarte gehiago aipatu ziren. Horrekin lotuz, horren kide Josefina Lambertok zela esan zen. Ildo horretatik, Josefina bere familiak jasan zuen errepresioaren memoria berreskuratzeko egin zuen borroka-lana azaldu zitzairen. Adibidez, Josefina eta bere familiak ahizpa eta aita hil ondoren izan zuten bizitza. Nola joan behar izan zuten Iruñera eta pobrezian bizi, Josefina bere familiaren bizitza, edo, adibidez, Pakistanera bidali zutenean bere familian gertatutakoa ikertzen saiatzeagatik. Are gehiago, bere familiak bizi izan zuena aitortzeko eta ikertzeko egin zuen lan guztia. Informazio hori azaltzeko, azalpenekin batera, Josefina Lambertoren ETBk bideoaren bidez jasotako testigantzak erabili ziren, haren eta familiaren bizitza nolakoa izan zen azaltzeko, ahizpa eta aita hil ondoren.

Halaber, adierazi zitzairen 2018an Maravillas Lambertok izeneko plaza bat inauguratu zela Lezkairun, izen hori duen plaza bat lortzeko eman zen prozesua eta Josefina Lambertok parte hartu zuen plazaren inaugurazio eguneko bideo ikusi zuten. Era berean, Maravillasekin gertatutakoa berreskuratzen eta aitortzen gazteek ere parte hartu zutela ikus zezaten, Iruñeko Alde Zaharreko Nabarrera plazan zegoen gaztetxeak Maravillas izena zuela aipatu zen.

Bigarren esku hartzean, gaia 1936an Nafarroan jasandako bortizkeriaren historia eta memoria izan zen. Taldetan lehen aipatutako eta azaldutako *Lur Azpian*<sup>5</sup> erakusketa birtuala lantzen hasi baino lehen, galdera ezberdinak egin ziren ikusteko zer jakintza maila zuten gaiaren inguruan. Horrela, lehenengo saioan egindako lehen inkestaz gain, gai horiei buruz zer ezagutza-maila zuten ikusteko forma bat zen, baita haiekin hitz egiteko eta berresteko modu bat ere. Honako galderak erantzun zituzten:

- Zer eginkizun izan zuen Nafarroak Espainiako Gerra Zibilean, eta nola eragin zuen horrek errepresio frankistan? Nafarroan gerra bat izan zen?
- Zeintzuk izan ziren erregimen frankistan Nafarroan herritarren aurka egin ziren errepresio modu espezifiko batzuk?
- Zein talde izan ziren bereziki ahulak Nafarroan errepresio frankistaren aurrean, eta zergatik?
- Zuen familiak errepresiorik jasan al du? Zer oroitzapen dago familian? Normaltasunez hitz egiten den gaia da?

Galdera horiek erantzuerakoan, oinarrizko ideia batzuk errepasatu ahal izan genituen. Hau da, Nafarroan ez zela ez Gerra Zibilik ez gerra-fronterik izan, gerrarik gabeko errepresioa izan zela. Horrekin batera, Nafarroan, errepresio frankistak eragindako 3507 heriotza zenbatu izanaren zenbakia ezagutu. Modu berean, emandako errepresio tipologia ezberdinak zein norengana zuzendua zegoen errepresio horren adibideak. Azkenik, zenbait ikaslek beren familian errepresioa jasan zutenen istorioak kontatu zituzten. Altsasuko neska baten kasuan, bere herenaitona nola hil zuten kontatu zuen.

Ondoren, 3 pertsonako 4 taldetan banatu eta Lur Azpian erakusketa birtualaren gainean lanean ibili ziren. Erakusketa hori 4 gai ezberdinetan sailkatuta dago: 1936ko estatu-kolpe militarra, Gerraondoa, Desobiratzeak Trantsizioan eta Memoria. Atal bakoitza lantzeko, gai bakoitzari buruzko galdetegi bat prestatu ziren beraiek erantzuteko, erakusketa jarraitzeko eta ideia zein adibide garrantzitsuenekin geratzeko. Klasearen amaieran, aurkezpen txiki baten bitartez talde bakoitzak bere atalaren berri eman zuen.

Azkeneko saioan, Sartagudako Memoriaren Parkea eta Memoriaren Tokien esanahia landu genuen Nafarroan dauden adibideak ikusita. Ezagutzen ez zuten gaia zenez, zaila egiten zitzairen parte hartzea, ondorioz, galdetegi bat egin zen *Kahoot* aplikazio erabiliz. Horri esker, Memoria Tokien esanahia eta adibideak aztertu ziren. Erantzuten zuten galdera bakoitzeko, erantzun zuzena zein zen eta zergatia azaltzen zen, hau da, Memoria Tokiak zer diren, haien esanahia, duten balioa eta Iruñean dauden adibideak ezagutu zituzten.

Ondoren, *Memoria Guneak*<sup>6</sup> webgunea ezagutu zuten eta 1936ko estatu-kolpearen ondoren herrietan jasan zuten errepresioa ikertzen aritu ziren taldeetan, bakoitzak bere lurraldeetan zein Memoria Toki zeuden erakutsi zien gelako gainerakoei. Klasearen amaieran, Sartagudako Memoria Parkea aurkeztu eta zein elkartek bul-

tzatu zuten parke honen eraikuntza, noiz inauguratu zuten, nola osatuta dagoen... aipatu zitzairen. Horretarako, Sartagudako Memoriaren Parkea osorik ikus daitekeen bideo baten euskarria erabili zen. Aldi berean, biktimen senideekin izandako topaketa hori zertan zetzan azaldu zitzairen. Memoriaren Parkeari eta Sartagudako topaketari buruz jaso ziren azalpen guztien artean, biktimen senideen testigantza entzutean enpatiaren eta errespetuaren garrantzia nabarmendu zen. Horrekin lotuta, Sartagudako testuinguru sozial, ekonomiko eta politikoaren inguruko azalpena jaso zuten, 1936ko estatu-kolpearen eman aurretik eta ondoren herrian estatu-kolpearen ondoren gertatu zen errepresioa ikasiz. Horrela, Sartagudan izan zen errepresioaren dimentsioa eta Erriberan eman zen guztia ulertzea lortu zuten, eta memoriaren parkea Sartagudan zergatik egin zelako ere ulertu zuten.

Jasotako hiru saio eta Sartagudako Memoriaren Parkean belaunaldien arteko topaketan parte hartu ondoren, berriro pasatu zitzairen lehenengo eguneko moldatutako inkesta. Aldaketen artean, galdera berri bat zegoen, Memoria Toki bat zer zen definitzea eskatzen zuena. Gehienek erantzunak modu sakonagoan eta landuagoan eman zituzten, eta Memoria Tokien izen gehiago ere jarri zituzten. Era berean, 1936ko estatu-kolpearen ondoren eman ziren errepresio mota gehiago ere ezagutzen zituzten nabarmendu zen. Horrela, bi inkesten analisiari esker, ikasleek ezagutza eta gaitasun berriak eskuratu zituztela ikusi zen.

### 3.2. *Proposamenaren ondorioak*

Egindako hezkuntza-proposamenak funtsezko hainbat ondorio atera zituen. Lehenik eta behin, ikasle-talde bakoitza bakarra da, eta, beraz, emaitzak eta ikaskuntzak talde horren berariazkoak dira. Iturramako ikasleek Bigarren Errepublikarekin, 1936ko estatu-kolpearekin, Gerra Zibilekin eta frankismoarekin zerikusia zuten gaiak ikasi bazituzten ere Gogoan proiektuan parte hartu zutelako, alde aurreko ezagutza mugatua zuten. Taldeak profil desberdinak zituen, hainbat ikastetxetako ikasleak biltzen baitzituen, eta horrek lagundu zuen taldearen ezagutza, oro har, askotarikoa izan zedin. Ikasle askok ez zuten Maravillas Lambertoren historiaren edo Nafarroako errepresioaren ezagutza sakonik.

Beraz, irakasleek erabilitako materialak lagundu behar dute gai hauek modu ulergarri eta hurbilean azaltzen. Prestatutako proposamenerako, era guztietako materialak erabili ziren: *De la esperanza al Terror* liburuan Lamberto familiari gertatutako guztia eta testigantzak jasotzen dituen, aipatutako Berri Txarrak eta Fermin Balentziaren abestien letrak, 1936ko estatu-kolpearen ondoren Nafarroan izandako errepresioan espezializatutako bibliografia, egunkariko albisteak, FDMHNren datu-basea, Oroibideak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak, *Lur Azpian* erakusketa birtuala, Sartagudako Memoriaren Parkeari buruzko bideoak, jarduerak eta galde-sortak Kahootaren bidez... Baliabide horiek guztiek proposamenaren helburuak neurri handi batean lortzen lagundu zuten.

Horrekin lotuta, Nafarroako Memoriaren Institutuak eskaintzen dituen zerbitzu, baliabide eta proiektuei esker, *Oroibidea*-ko orria erabiltzen ikasi zuten. Bertan, agertzen den *Lur Azpian* erakusketa birtualaren bidez, eraildako biktimen eta errepresaliatuen senideen testigantzak entzun ahal izan zituzten. Modu berean, nola eman ziren gorpuak lurpetik ateratzeko prozesuak eta ondorengo hiletak. Erakusketa irudiz, dokumentuz eta testigantzez beteta zegoen, eta oso baliagarriak izan ziren bilatu behar zituzten beharrezko jakintzak eta gaitasunak eskura zituzten. Ildo beretik, lehen aipaturiko *Memoria Guneak* webgunea ezagutu zuten. Horrela, ikusi ahal izan zuten zein Memoria Toki dauden beren herri zein hirietan.

Hasieran proposatutako xede bat, estatu-kolpetik Nafarroako herrietan bizi izandako errepresioarekin zerikusia zuten eta memoria historikoari buruzko gaiak jorratzea zen. Era berean, biktimen gorpuak bilatzeko eta berreskuratzeko prozesuek ezagutzea eta Memoria Tokiek Nafarroan duten esanahiak eta kokapenak ere. Iturramako ikasleentzat egindako lehen eta bigarren inkestetako erantzunak alde-ratuz gero, ikus daiteke ezagutza horiek eskuratu zituztela, bigarren inkestako erantzunak landuagoak baitira.

Lehenengo galdetegian, memoria historikoa zer den eta definitzea eskatzen zuen galderari erantzun laburrak eman ziren: «Gure arbasoek jasandako errepresioa aztertzea eta gogoratzea», edo «Historian zehar gertaera baten ondorioz errepresioak egindakoa birgogoratzeko monumentu edo liburu bat». Hala ere, bigarren galdetegian, erantzun landuagoak eman ziren. Adibidez: «Memoria historikoa, herrialde batean, kasu honetan Nafarroan gertatutako gertakizun latzak. Non biktimak egon diren, eta horiek oroitzeko egiten diren monumentuak zein ekitaldiak dira» edo «Memoria historikoa, Gerra Zibilean egon ziren hildakoei eta errepresaliatuei omenaldia da. Errepresaliatuak ahaztu ez daitezten».

2. galdetegiako galdera berriak Memoria Toki bat zer zen definitzea eskatzen zuen. Esate baterako, jasotako azalpenak eman aurretik ez zekiten zer zen Memoria Toki bat. 2. inkestako erantzunak aztertuz, ikasleek Memoria Toki direnen definitzioak eta adibideak emateko gai izan zirela ikusi zen. Horren froga da erantzunen artean honako hauek: «Hildako errepresaliatuen omenaldi tokiak. Historian zehar hildako pertsonak omentzeko eta gu kontzientzia hartzeko dauden plaka eta eskulturak», «Memoria tokiak biktimak oroitzeko tokiak dira. Hainbat daude, garrantzitsuena Sartaguda da, baina aipagarriak dira: Otsoportillo Urbanan kokatuta», edo «Memoriaren tokiak, gerra zibilean emandako eraildautei omenaldia egiteko tokiak dira. Hauek ekitaldiak egiteko eta historia gizartearen memorian mantentzeko balioko dute» besteak beste.

Era berean, bi inkestetan galdetu zitzaizen ea uste zuten garrantzitsua zela ikasgelako memoria historikoari buruzko gaiak lantzea. Bietan baietz erantzun zuten. Ikasle batzuek diotenez, horri esker gazteek iragan traumatikoa ezagutzen dute eta, batzuetan, beren familietan gertatutako gertaera errepresiboak ezagutzen dituzte. Hau da, 1936ko estatu-kolpearen ondoren Nafarroako herrietan gertatutako gerta-

kari errepresiboak ikertzeari buruz egindako lanari esker, Altsasuko ikasle batek bere herenaitona nola fusilatu zuten jakin zuen. Horrek asko hunkitu zituen ikasleak, eta erantzunetan ikus daiteke: «Nik uste dut horrelako gaiak jorratu behar direla gertakizun historiko oso garrantzitsuak direlako eta horrelako gaiak oso interesgarriak direlako. Agian zure familia kide bat atxilotua izan zelako eta zu ez zenekien» edo «Gure klasean adibidez egon delako jendea jakin izan duena bere familiako batek errepresaliatua izan dela lehen ez zekiena». Gainera, ikus daiteke erantzun horietan ikusten dela errepresioaren eta biktimekiko enpatia eta kontzientzia handiagoa dagoela: «Herri bateko historia delako, eta familia asko borrokatu dutelako hauen memoria mantentzeko. Gainera, ez diren agertu gorpuei omenaldiak egiteko balio dute».

Proposamenaren helburuetako bat enpatia eta pentsamendu kritikoa sustatzea zen, eta hori lortu zen, ikasleek ulermen eta sentsibilitate handiagoa erakutsi baitzuten errepresioarekiko, haien biktimekiko eta belaunaldien arteko topaketan entzundako testigantzekiko. Sartagudako Memoriaren Parkeko jarduerak eta testigantzen esplorazioak eragin nabarmena izan zuten ikasleengan. Bestetik, ikasleek 1936ko estatu-kolpetik aurrera Nafarroan bizi izan zen iragan traumatikoari buruz transmititu nahi ziren ezagutzak lortu zituzten. Halaber, Oroibidea eta Memoria Guneak bezalako baliabideak erabiltzen ikastea zen helburuetako bat eta baliabide horiek erabili zituzten klaseko lanetarako.

Esan daiteke, hiru egun gutxi direla errepresio frankista edo memoria historikoa jorratzeko. Beharrezkoa da egun gehiago erabiltzea eta ikas egoera sakonagoa eta denboran luzeagoan eratzea. Hala ere, hiru egun horiekin, ikasleek ikuspegi orokor batekin geratu ziren gaiaren inguruan. Ikusi ahal izan zuten zein pertsona erreprimitu zituzten, errepresio-tipologia anitza, emakumeek jasan zuten errepresio espezifikoa, hobotik ateratzeko prozesuak eta arazo horiek gaur egun ere indarrean jarraitzen dutela. Laburbilduz, ikasgelan aurretik memoria historikoarekin egindako gaiak landu izana, lagundu izan zuen Sartagudako topaketan parte hartu zuten ikastetxe guztiei egindako inkestari buruz Iturrama ikastetxea balorazio onenak egin dituzten ikastetxeetako bat izaten. Era berean, Iturramako ikasleei egindako beste inkesta pertsonalizatu batzuei esker, aurretiazko eskola horiek erakutsi zuten memoria historikoari buruzko ezagutza eta kontzientzia handiagoa lortzeko eragina izan zutela. Hori dela eta, ondoriozta dezakegu Memoria Tokiak eta horietan gazteekin egiten diren jarduerak eraginkorrak direla aurrez ikasgelan haiekin memoria historikoarekin lotura duten gaiak lantzen badira.

### Ondorioak

Memoria historikoak gizarte demokratikoetan duen zeregina eta hezkuntza-garrantzia aztertzeak hainbat ondorio ematen ditu. Lehenik eta behin, memoria historikoa funtsezko tresna da iraganeko balioak eta esperientziak transmititzeko, eta aukera ematen die gizarte demokratikoei giza eskubideen urraketei eta botere

-gehiagikeriei buruz hausnartzeko. Ildo horretan, gerrak edo diktadurak bezalako gertaera traumatikoak ez errepikatzeko konpromisoa sortuz. Gainera, hezkuntzaren esparruan, memoria historikoaren irakaskuntzak garrantzi berezia hartzen du herri-tartasun kritiko eta kontziente baten prestakuntzan. Garrantzitsua da belaunaldi berriek iragana ezagutzea eta kritikoki aztertzea, batez ere gaur egungo testuinguruan, Gerra Zibilari eta frankismoari buruzko inpunitate eta errebisionismo diskurtsoek jarraitzen baitute oraindik. Memoria historikoan oinarritutako hezkuntzak balio demokratikoak sustatzeaz gain, gizarte tolerantia eta baketsua eraikitzen ere laguntzen du.

Hala ere, nahiz eta azken legegintza-aurrerapenak, hala nola 2022ko Memoria Demokratikoaren Legea edo 3/2020 LOMLOEn (Hezkuntzaren Lege Organikoa) ezarritako eskumenak, Gerra Zibila eta frankismoa bezalako gaiak irakasteko aukera ematen duten, oraindik ere gai horiek ikasgelan behar bezala ezartzeko erronkak daude. Horregatik, ezinbestekoa da memoria historikoaren irakaskuntza parte-hartzailea eta aktiboa izatea, eta ikasleei aukera ematea iraganeko gertaerak eta arazo garaikideak konektatzeko. Jardunbide egokien adibide nabarmena da «Memoria duten Eskolak» programa Nafarroan, memoria historikoa derrigorrezko hezkuntzan integratzea bilatzen duena. Programa honek jarduera interaktiboak sustatzen ditu, hala nola belaunaldien arteko topaketa Sartagudako Memoriaren Parkean, non gazteek Nafarroako iragan traumatikoaren lekuko zuzenekin hitz egiteko aukera duten. Artikulu honek erakutsi du memoria gaitan hezkuntza-inplikazio handiagoa izateak ikasleek Sartagudako topaketa sakonago ulertzea dakarrela, eta, gainera, iraganarekiko eta egungo arazoekiko enpatia eta pentsamendu kritiko handiagoa sortzen duela.

Sartagudako Memoriaren Parkean belaunaldien arteko topaketan parte hartu ondoren ikasleei eta irakasleei egindako inkestaren azterketak agerian utzi zuen memoria historikoari buruzko proiektuetan parte hartu eta azalpen gehiago jaso dituzten ikasleek topaketaren balorazio hobekia egiten zituztela, modu eraginkorragoan aprobetxatuz eta memoria-tokien esanahia hobeto ulertuz. Aurkeztutako hezkuntza-proposamena hiru egunetan hainbat materialen bidez emateko diseinatuta zegoen, eta nahikoa izan zen ikasleek gutxieneko ezagutza eta enpatia historikoa eskuratzeko. Horrek belaunaldien arteko topaketa arrakastatsuagoa izatea bermatu zuen, ikasleek ikasgelan ikasitakoa hobeto baloratu eta ulertzen dutelako, biktimen senideekiko elkarrizketa modu esanguratsuagoan aprobetxatuz. Horren erakusgarri da Iturramako ikastetxean izandako esperientzia. Bertan, proposamen hau ezarri zen eta ikasleek planteatutako helburuak lortu zituzten. Izan ere, ikastetxe horretako ikasleek baloratu zuten ondoen Sartagudako belaunaldien arteko topaketa, eta iritzi positiboagoak eman dituzte memoria historikoarekin lotutako gaien garrantziari eta irakaskuntzari buruz. Beraz, garrantzitsua da, topaketaren aurretik, memoria historikoarekin lotutako gaiak ikasgelan lantzea eta ikasleek jarduera horietan aktiboki parte hartzea.

Azkenik, ikasle gehienek onartu zuten leku horiek eta memoria historikoaren hezkuntza funtsezko tresnak direla indarkeria eta errepresioa arbuatuko dituen herritartasun demokratikoa garatzeko. Gainera, memoria historikoa irakastearen garrantzia azpimarratu zuten, iraganeko gertaera traumatikoak errepika ez daitezten. Horrek agerian uzten du gai horiek hainbat irakasgaitan txertatzeko beharra, eta ez soilik irakasleen interes indibidualaren mende. Beraz, ezinbestekoa da memoria historikoa hezkuntza-curriculumaren ardatz nagusi bihurtzea, iraganeko biktimak ohoratzeaz gain, balio demokratikoak sendotuko dituen eta gizarte justuago eta kontzienteago bat eraikitzen lagunduko duen hezkuntza sustatuz.

## OHARRAK

1. Joan den mendeko 70eko hamarkadaren amaieran, 1936ko estatu-kolpearen ondorioz hildako nafarren gorpuak aurkitu eta lurpetik ateratzeko ekimen politikorik eza ikusita, familia askok erabaki zuten errepresioaren biktima izan ziren senideak bilatzea. Horrela, hainbat bilera, antolaketa eta gestio egiten hasi ziren, eta 2000 biktima baino gehiago atera zituzten lurpetik, eta omenaldi publiko egin zituzten haien oroimenean eta aldarrikapenean. Erakusketaren helburua da Nafarroako herri askotan, batez ere Erriberan, 1978tik 1980ra bitartean, egindako desobiratze goiztiarren prozesua gogora ekartzea. Lur Azpian erakusketa modu birtualean ezagutu daiteke. Erakusketa 4 gai ezberdinetan sailkatuta dago: 1936ko estatu-kolpe militarra, Gerraondoa, Desobiratzeak Trantsizioan eta Memoria.
2. Obrak lantzeko, batzuetan, material didaktikoak edo unitate didaktikoak ematen dira, obran planteatutako curriculum-edukiak lantzeko. Horren adibide da *Donde el bosque se espesa* antzezlanaren erabili zela Espainiako Gerra Zibiletik Balkanetako gerrara arte izandako giza eskubideen urraketari aurre egiteko, itxuraz urrun dauden gatazken arteko loturak nabarmenduz. Hori prestatzeko, Iturrama BHI institutuko irakasle-talde batek unitate didaktiko bat egin zuen, ikasleak prozesu historiko horiei buruzko hausnarketan inplikatu zituen. Unitate hori, 'Askatasunaren Memoria' izenekoa, hainbat ikastetxek hartu zuten 2020ko martxotik.
3. Azoaren 26ko 33/2013 Foru Legean, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izan ziren Nafarroako herritarrei errekonozimendu eta erreparazio morala emateari buruzkoan, «Monumentuak, parkeak eta oroitzapen-elementuak babestu eta mantentzeari buruzko IV. Tituluaren» barruan, 15. artikuluan, Memoria-  
ren Parkeari buruzkoan, Sartagudako Memoriaren Parkeak aitorpen eta babes ofizial handiena duela adierazten da.
4. Oroibidea.es 2020an Nafarroako Gobernuak Nafarroako Memoriaren Institutuaren bitartez sortutako plataforma digitala da. Artxibo digital honek 1936ko estatu-kolpea, gerra zibila, diktadura frankista eta Nafarroako trantsizio demokratikoa ditu ardatz. Nafarroako ondare memorialista zaintzea eta zabaltzea du helburu. Sortu zenetik, Oroibideak frankismoko 23 000 biktima baino gehiagori buruzko datuak eta dokumentuak bildu ditu, besteak beste, testuak, audioak, elkarrizketak, bideoak, dokumentu juridikoak, erakusketak eta mapak (hala nola, hobiak kokatzeko mapak).
5. Nafarroako Memoriaren Institutuak antolatutako *Lur Azpian* erakusketak 1936ko estatu-kolpearen, Gerra Zibilaren eta frankismoaren biktimen errepresioa eta desobiratzeak jorratzen ditu. 2019an hasi eta ondoren digitalizatuta, erakusketa honek 1936ko kolpe militarren ondoren eraildako 40 senideren testigantzak biltzen ditu, dokumentuekin eta argazkiekin batera. Edukiek elkarrizketak, dokumentu historikoak, gutunak eta gorpuak hobe ateratzeko lanen argazkiak biltzen dituzte, memoria historikoaren berreskurapenean familien eta elkarte memorialisten papera nabarmenduz.
6. Memoria Guneak Nafarroako Memoriaren Institutuaren ekimen bat da, Nafarroako memoria historikoarekin lotutako lekuak identifikatu, babestu eta zabaltzeko. Proiektu hau 29/2018 Foru Legean oinarritzen da, zeinak gune horiek Nafarroako Memoria Historikoaren Leku gisa deklaratzeko eta babesten dituen. Sortutako sareak, leku horiek babesteaz gain, 1936ko estatu-kolpearen ondoren gertatutako gertaera traumatikoen inguruan herri-

tarrak heztea du helburu. Horretarako, memoria-toki guztiak mapa baten eta baita ibilbideak eginez erakusten dira. Krimenak, espetxeratzeak eta beste abusu batzuk gertatu ziren lekuak biltzen ditu, baita oroimen kolektiborako leku esanguratsuak ere.

Gune horien zabalkundea webgune espezifiko baten bidez egiten da, baita gune turistikoko eta kulturaletan banatutako ikus-entzunezko materialen eta liburuxken bidez ere.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- ADORNO, Theodor W. eta HORKHEIMER, Max (1944). *Dialéctica de la Ilustración*. Editorial Trotta.
- ADORNO Theodor W. (1998): *Educación para la emancipación*. Madrid: Morata.
- AGUILAR, Paloma (2006): «Evocación de la guerra y el franquismo en la política, la cultura y la sociedad españolas», en JULIÁ, S. (ed): *Memoria de la guerra y el franquismo*, Madrid, Taurus.
- ALMANZA, Tulia (2017): «Actualidad filosófica de Theodor W. Adorno a través de su relectura crítica». *Franciscanum* 167, vol. LIX.
- Altaffaylla Kultur Taldea (2018) [1986]: *Navarra 1936: De la esperanza al terror*. Tafalla: Altaffaylla Kultur Taldea.
- ARÓSTEGUI, Julio (2009): *España en la memoria de tres generaciones*, Madrid, Editorial Complutense.
- AYUNTAMIENTO DE SARTAGUDA. ASOCIACIÓN «PUEBLO DE LAS VIUDAS» DE SARTAGUDA. Berreskuratuta: <https://sartaguda.net/asociacion-pueblo-de-las-viudas-de-sartaguda/>.
- BAZÁN, Florencia Magalí (2017): *Elizabeth Jelin, La lucha por el pasado. Cómo construimos la memoria social*. Ciudad autónoma de Buenos Aires, Siglo XXI Editores.
- BENJAMIN, Walter (2008): *Tesis sobre la historia y otros fragmentos* (B. Echeverría, Trad. e Intro.). Ediciones Era.
- CASTO, Julia (2023): *Estudio sobre la educación para la memoria histórica como medida de justicia transicional. La experiencia en el Estado español*. (Trabajo Fin de Máster, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea). Berreskuratuta: <https://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/607>
- CONGRESO HISTORIA CON MEMORIA EN LA EDUCACIÓN. (2022): *I. Nazioarteko Kongresua Memoria duen Historia Hezkuntzan*. Berreskuratuta: <https://congresohistoriaconmemoriaenlaeducacion.org/eu/hasiera/>
- CUESTA, Raimundo (1999): «La educación histórica del deseo. La didáctica de la crítica y el futuro del viaje de Fedicaria», *Con-Ciencia Social*, 3, pp. 70-97.
- CUESTA, Raimundo, MAINER, Juan, MATEOS, Julio., MERCHÁN, Javier y VICENTE, Marisa (2005): «Didáctica crítica. Allí donde se encuentran la necesidad y el deseo», *Con-Ciencia Social*, 9, pp. 17-54.
- CUESTA, Raimundo (2007): *Los deberes de la memoria en la educación*. Barcelona: Octaedro.
- (2011): «Historia con memoria y didáctica crítica». *Con-ciencia social: anuario de didáctica de la geografía, la historia y las ciencias sociales*, n.º15.
- (2009): «Memoria, historia y didáctica: los deberes de la educación hacia el pasado, el presente y el futuro». Nazioarteko Mintegian emandako hitzaldia *Historia y Memoria: los lugares olvidados de la pedagogía* deiturikoa. Universidad Academia de Humanismo Cristiano y la Corporación Parque por la Paz Villa Grimaldi eratutakoa.
- DIARIO DE NOTICIAS (2024ko apirilaren 3a): «Oroibidea se convierte en un archivo digital de referencia de la Guerra Civil y el franquismo a nivel estatal al recoger datos y documentos sobre más de 23 000 personas represaliadas».



- (2021ko martxoaren 31): «Digitalizada la exposición ‘Lur Azpian’, en la Tierra».
- (2022ko urriaren 4a): «Navarra declara tres nuevos lugares».
- EFE (2024ko otsailaren 15a): «Cuatro leyes de memoria autonómicas están en riesgo por iniciativas de PP y Vox». *EFE*. Berreskuratua: <https://efe.com/espana/2024-02-15/leyes-memoria-historica-pp-vox-autonomias/>
- ESPACIOS DE MEMORIA. Berreskuratuta: <https://www.espaciosdememoria.com/es/>
- GASTÓN AGUAS, José Miguel eta LAYANA ILUNDAIN, César. (2020): «Del terror a la esperanza: lugares de memoria en Navarra». *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*. 27, 71-94. DOI:<https://doi.org/10.48035/rhsj-gh.27.4>.
- (2022): «El programa “Escuelas con Memoria” del Gobierno de Navarra». *Con-Ciencia Social* (segunda época), 5, 219-228. DOI: 10.7203/con-cienciasocial.5.24277.
- (2022): *Historia con memoria en la educación: I Congreso Internacional*. Gobierno de Navarra.
- GOBIERNO DE NAVARRA (2024ko maiatzaren 28a): «El Gobierno de Navarra expone ante el Consejo de Europa su experiencia de “Escuelas con memoria” como ejemplo de política memorialística y educativa». *Navarra.es*. Berreskuratuta: <https://www.navarra.es/es/-/nota-prensa/el-gobierno-de-navarra-expone-ante-el-consejo-de-europa-su-experiencia-de-escuelas-con-memoria-como-ejemplo-de-politica-memorialistica-y-educativa>
- (n.d.): *Aitzinsolasa | Exhumaciones tempranas*. Exhumaciones Tempranas. Berreskuratuta: <https://exhumacionestempranas.navarra.es/?lang=lg-eus>
- (n.d.): *UD Memoria de Libertad*. Paz y Convivencia. Berreskuratuta: <https://pazyconvivencia.navarra.es/eu/libertaden-memoria-ud>
- «‘Oroibidea’ se convierte en un archivo digital de referencia de la Guerra Civil y el franquismo a nivel estatal al recoger datos y documentos sobre más de 23 000 personas represaliadas». Berreskuratuta: <https://www.navarra.es/es/-/nota-prensa/-oroibidea-se-convierte-en-un-archivo-digital-de-referencia-de-la-guerra-civil-y-el-franquismo-a-nivel-estatal-al-recoger-datos-y-documentos-sobre-mas-de-23-000-personas-represaliadas>
- IBÁÑEZ, Manuel (2022ko maiatzaren 4a): «III Encuentro Intergeneracional de la Memoria». Berreskuratuta: <https://memoriahistorica.educacion.navarra.es/blog/2022/05/04/iii-encuentro-intergeneracional-de-la-memoria/>
- (2022, abuztuaren 5a): «“Memoria duten Eskolak” liburuaren aurkezpena». Memoria Historikoa Eta Hezkuntza. Berreskuratuta: <https://memoriahistorica.educacion.navarra.es/eu/blog/2022/07/05/memoria-duten-eskolak-liburuaren-aurkezpena/>
- INSTITUTO NAVARRO DE LA MEMORIA (2020a): Bajo Tierra. Exhumaciones tempranas en Navarra. Berreskuratuta: <https://exhumacionestempranas.navarra.es>
- (2020b): Programa Escuelas con Memoria. Berreskuratuta: <https://pazyconvivencia.navarra.es/es/escuelas-con-memoria>
- (2022): Escuelas con Memoria. Berreskuratuta: <https://memoriahistorica.educacion.navarra.es/escuelas-con-memoria/>.
- UD Memoria en Libertad. Berreskuratuta: <https://pazyconvivencia.navarra.es/eu/libertaden-memoria-ud>
- JELIN, Elizabeth (2002): *Los trabajos de la memoria*. Siglo Veintiuno Editores.
- JELIN, Elizabeth eta LORENZ, Federico Guillermo (2004): *Educación y memoria: la escuela elabora el pasado*. Siglo XXI de España.
- LAYANA ILUNDAIN, César eta GASTÓN AGUAS, José Miguel (2020b): «“Escuelas con Memoria”: El programa educativo del Instituto Navarro de la Memoria». *Nuestra Historia* (9), 217-232.

- (2022): *Escuelas con memoria / Memoria duten eskolak*. Agapea.
- MARÍN SUÁREZ, Carlos (2014): «De ‘lugares de memoria’ a ‘lugares de historia’: la arqueología contemporánea ante el patrimonio de la guerra civil española y de la dictadura franquista», in Soledad BIASATTI eta Gonzalo COMPAÑY (konp.): *Memorias sujetadas: hacia una lectura crítica y situada de los procesos de memorialización*, JAS Arqueología, Madril: 109-144.
- MEMORIA HISTÓRICA DE EDUCACIÓN NAVARRA. Bajo Tierra. Berreskuratuta: <https://memoriahistorica.educacion.navarra.es/bajo-tierra/>
- NORA, Pierre (1989): «Between Memory and History: Les Lieux de Mémoire», *Representations*, 26: 7-24. Esteka: <https://www.jstor.org/stable/2928520?seq=15>.
- OROIBIDEA. Berreskuratuta: <https://oroibidea.es/>
- SAPOROSI, Lucas (2018): «Las disputas por el pasado reciente y la actualidad de los derechos humanos. Pasiones, sentidos y reapropiaciones de la memoria social. Entrevista a Elizabeth Jelin». *Aletheia*, 9(17).
- TUTIAUX-GUILLON, Nicole (2008): «Mémoires et histoire scolaire en France: quelques interrogations didactiques». *Revue française de pédagogie*, 165, 31-42.

### LEGEGERIA

- Ley 52/2007, de 26 de diciembre, por la que se reconocen y amplían derechos y se establecen medidas en favor de quienes padecieron persecución o violencia durante la guerra civil y la dictadura.
- LEY FORAL 33/2013, DE 26 DE NOVIEMBRE, DE RECONOCIMIENTO Y REPARACIÓN MORAL DE LAS CIUDADANAS Y CIUDADANOS NAVARROS ASESINADOS Y VÍCTIMAS DE LA REPRESIÓN A RAÍZ DEL GOLPE MILITAR DE 1936.
- LEY FORAL 29/2018, DE 26 DE DICIEMBRE, DE LUGARES DE LA MEMORIA HISTÓRICA DE NAVARRA.
- Ley Orgánica 3/2020, de 29 de diciembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (LOMLOE). (2020): Boletín Oficial del Estado, 340, de 30 de diciembre de 2020.
- Ley 20/2022, de 19 de octubre, de Memoria Democrática.

## LABURPENA

Lan honek memoria historikoaren irakaskuntza eta Memoria Tokiak hezkuntza-tresna gisa duten erabilera aztertzen ditu. Horretarako, «Memoria duten Eskolak» programak antolatutako Sartagudako belaunaldien arteko topaketa eta bertan parte hartu zuten ikasle eta irakasleei egindako inkesta azertu dira. Memoria historikoaren garrantzia nabarmentzen da gizarte demokratikoetan eta ikasleen hezkuntzan. Sartagudako Memoriaren Parkea iragan traumatiko bat transmititzeko eta horri buruz hausnartzeko gunea da. Inkestak ikasleek memoria historikoari buruz dituzten iritziak eta ikasgelan nola lan egiten duten jakin nahi du. Gainera, topaketaren aurretik esku-hartze pedagogiko bat aurkezten da. Lanak ondorioztatzen duenez, Memoria-Tokiak eta horiek eskola-curriculumean txertatzea funtsezkoak dira memoria historikoa irakasteko, herritartasun kritikoa eta demokratikoekin konprometitua sustatuz.

**HITZ GAKOAK:** Memoria Tokiak, Memoria historikoa hezkuntzan, Memoria duten Eskolak, Sartagudako belaunaldien arteko Topaketa, Herritartasun demokratikoa.

## RESUMEN

Este trabajo analiza la enseñanza de la memoria histórica y el uso de los Lugares de Memoria como herramienta educativa, centrándose en el encuentro intergeneracional de Sartaguda, organizado por el programa «Escuelas con Memoria», y en una encuesta realizada al alumnado y profesorado participante. Se destaca la importancia de la memoria histórica en las sociedades democráticas y en la formación del alumnado. El Parque de la Memoria de Sartaguda actúa como un espacio para transmitir y reflexionar sobre un pasado traumático. La encuesta pretende conocer las percepciones del alumnado sobre la memoria histórica y cómo se trabaja en clase. Además, se presenta una intervención pedagógica previa al encuentro. El trabajo concluye que los Lugares de Memoria y su integración en el currículo escolar son esenciales para la enseñanza de la memoria histórica, promoviendo una ciudadanía crítica y comprometida con los valores democráticos.

**PALABRAS CLAVE:** Lugares de Memoria, Memoria histórica en la educación, Escuelas con Memoria, Encuentro intergeneracional de Sartaguda, Ciudadanía democrática.

## ABSTRACT

This paper analyses the teaching of historical memory and the use of Places of Memory as an educational tool, focusing on the intergenerational meeting in Sartaguda, organised by the 'Schools with Memory' programme, and on a survey of participating students and teachers. The importance of historical memory in democratic societies and in the education of pupils is highlighted. The Sartaguda Memory Park acts as a space for transmitting and reflecting on a traumatic past. The survey aims to find out the pupils' perceptions of historical memory and how it is worked on in the classroom. In addition, a pedagogical intervention is presented prior to the meeting. The study concludes that the Places of Memory and their integration into the school curriculum are essential for the teaching of historical memory, promoting a critical citizenship committed to democratic values.

**KEYWORDS:** Places of Memory, Historical Memory in Education, Schools of Memory, Intergenerational Meeting in Sartaguda, Democratic Citizenship.

## Estudios

AITOR GARJON IRIGOIEN • MAIALEN ALTUNA ETXEBERRIA



Delfina (Instituto Navarro de la Memoria, Centro de Documentación de la Memoria, Archivo Histórico de Defensa, 21373\_4).



# «Vestida con un buzo y armada con un fusil»: análisis de género en la justicia militar contra las mujeres en Navarra (1936-1940)<sup>1</sup>



AITOR GARJON IRIGOIEN

*Universidad Pública de Navarra / Nafarroako Unibertsitate Publikoa*

[aitor.garjon@unavarra.es <https://orcid.org/0009-0000-1814-4406>]

## Introducción

El estudio de la represión ejercida tras el golpe de estado militar de 1936 y de sus dimensiones es inabarcable dada la ingente cantidad de estudios, monografías y artículos que se han publicado desde finales del siglo XX y sobre todo a partir de principios del siglo XXI; pero es un tema relevante que continúa despertando intereses, a pesar de los intentos habidos por relativizarlo. La implicación y protagonismo de los militares golpistas en la organización, dirección y puesta en marcha del golpe, así como en la dirección de la coalición heterogénea de fuerzas contrarrevolucionarias ha sido también abarcada en diferentes investigaciones.

Entre sus objetivos estaban el de la toma violenta del poder político, así como el de la aniquilación de todos aquellos sectores que cuestionaban el conjunto de valores ultraconservadores que compartía la coalición contrarrevolucionaria (Layana Ilundáin, 2021, pp. 20 y 25-28). La paralización mediante el terror de cualquier intento de oposición a los sublevados fue uno de los ejes de aniquilación de las culturas políticas derrotadas (Gómez Bravo, 2011; Rodrigo, 2012, p. 138).

La dimensión de género en las investigaciones relacionadas con la represión política también tiene un amplio recorrido historiográfico. El interés por la represión que sufrieron las mujeres es notorio en las investigaciones llevadas a cabo en los últimos años, habiendo sido su acepción más común el estudio de cómo fueron perseguidas y su identificación como víctimas (Cenarro Lagunas, 2024, p.5). Entendiendo el género como una forma primaria a través de la cual se articula el poder que de una manera no natural y no universal, hace que en esas relaciones sociales unas personas queden en situación de desventaja respecto de las otras (Canyelles i

---

\* [Enviado: 2024-03-31 • Aceptado: 2024-10-30] • DOI: <https://doi.org/10.58504/rgu.38.7>

Gamundí, 2017, pp. 15-17; Llonza González & Aresti Esteban, 2019, pp. 359-378; Scott, 1990, p. 271).

Desigualdad que se viene repitiendo en un sistema patriarcal que organiza la sociedad en función de una división sexual del trabajo y de las relaciones sociales, teniendo la capacidad de adaptarse a las diferentes épocas, variando en función del espacio y del tiempo. Los modelos de género tienen un fundamento histórico que determina su carácter inestable, por lo que están abiertos a la posibilidad de transformación. El contexto de violencia creado tras el golpe militar de 1936 permitió la redefinición de estos modelos de género reapareciendo los propios de la etapa premoderna que definían a las mujeres como seres inferiores al varón, en lugar de diferentes y complementarios (Cenarro Lagunas, 2017, pp. 19-20).

Así, para el análisis de la represión sufrida por las mujeres y de la represión de género hay que partir de la premisa de que es una categoría propia a la vez que complementaria de la represión sufrida por los hombres. Una represión dirigida hacia aquellas mujeres que se posicionaron en cualquier espectro políticamente contrario al golpe militar y hacia aquellas que transgredieron el orden social de género (Ginard Féron, 2013, pp. 23-36; Piérola Narvarte, 2011).

En este trabajo se realiza un análisis desde una perspectiva de género del discurso utilizado en los sumarios militares. Para ello se ha trabajado con 32 sumarios incoados a mujeres entre los años 1936 y 1940 y disponibles en el Instituto Navarro de la Memoria (INM) y en el Fondo Documental de la Memoria Histórica en Navarra (FDMHN) de la Universidad pública de Navarra (UPNA)<sup>2</sup>. Se han tenido en cuenta las descripciones que realizaban militares, jueces militares, informes requeridos a la Guardia Civil, a Falange, al Requeté, Ayuntamientos, parroquias...<sup>3</sup> De esta manera se ha pretendido observar cómo los elementos que llevaron a cabo la limpieza política intentaron reforzar unas funciones sociales y roles determinados para cada uno de los sexos, y cómo los proyectaron.

Otros trabajos ya han arrojado luz sobre la represión que sufrieron las mujeres a través de la justicia militar, también fue una persecución con rasgos diferenciados, como por ejemplo en las causas para ser represaliadas. Hombres y mujeres no fueron acusadas de lo mismo y las mujeres fueron culpables de una transgresión moral y social. Esto se refleja en el discurso utilizado donde en el caso de las mujeres se antepone las consideraciones morales a las políticas (Ibáñez Domingo, 2021a, pp. 270-280; Rodríguez López, 2010a; Sánchez Sánchez, 2009, pp. 127-139).

Por eso entre los objetivos de este trabajo se encuentra el comprobar si esa persecución con rasgos diferenciados se dio también en el caso de la justicia militar llevada a cabo contra mujeres en Navarra. Comprobar si las transgresiones y consideraciones morales tienen mayor presencia en el caso de los sumarios incoados a mujeres. También observar, aunque sea de manera más superficial, si el componente moral tiene presencia en las acusaciones hechas contra los hombres y no solo el político.

## 1. Los antifeminismos en los inicios del siglo XX

Las tres primeras décadas del siglo XX supusieron una profunda metamorfosis: la descomposición del «viejo mundo» asociado a los moldes culturales que prevalecieron durante el largo siglo XIX, la quiebra del modelo burgués, y el ascenso y protagonismo político y social de las masas expresado de manera radical (Hobsbawm, 2017, pp. 62-67).

Dentro de estos cambios el protagonismo y relevancia de las mujeres también fue reseñable y creciente. La concepción decimonónica de la mujer se resquebrajaba a la vez que los cambios sociales adentraban a las mujeres en ámbitos compartidos y espacios públicos. Los lenguajes y discursos de género utilizados por las diferentes culturas para definir el papel que debían cumplir las mujeres en las futuras organizaciones sociales y políticas fueron difiriendo (Ortega López, 2022, pp. 218-219).

Los avances conseguidos por el movimiento feminista democrático y el sufragismo y su ascenso, provocó que las élites burguesas y las clases medias conservadoras reaccionaran a esta oleada. En gran medida, elaborando discursos cargados de componentes acentuadamente misóginos donde se enfatizaba la necesidad de volver a un modelo tradicional y patriarcal de familia burguesa, la irremisible sumisión de la mujer al hombre y la negación de toda capacidad jurídica al sexo femenino (Ortega López, 2022, pp. 219-220).

Se fue conformando un magma de concepciones antifeministas que posteriormente nutrió los postulados misóginos y androcéntricos del fascismo, el catolicismo conservador, la extrema derecha antiliberal, el tradicionalismo o el nacionalismo reaccionario (Ortega López, 2008).

Estas concepciones partían de un principio básico de la tradición católica: la desigualdad de los sexos y la subordinación de la mujer al marido dentro del matrimonio. Esta asimetría de género se presentó como algo innato y natural, situando a las mujeres en una posición de inferioridad y de invisibilidad social y justificando la subordinación económica, social y jurídica de las mujeres (Di Febo & Juliá Díaz, 2012, pp. 71-79; Molinero Ruiz, 1998, pp. 99-103).

La realidad que la Segunda República había supuesto para las mujeres hizo que las derechas reaccionarias fuesen conscientes de la importancia de la actividad política de las mujeres. Así se readaptó el discurso definiendo un nuevo modelo de mujer marcado por el ultracatolicismo y el patriotismo, esto es, con un marcado carácter antirrepublicano. Se creó un nuevo discurso patriarcal de lo femenino con novedosas representaciones y simbolizaciones sobre las mujeres españolas (Ortega López, 2022, p. 221).

Por ejemplo, las organizaciones fascistas femeninas hicieron a las mujeres partícipes de los movimientos de masas, pero no para promocionar su protagonismo político, sino para que defendieran su propia subordinación. Se puede apreciar en un discurso realizado por José Antonio Primo de Rivera en 1935:



«[...] no entendemos que la manera de respetar a la mujer consista en sustraerla a su magnífico destino y entregarla a funciones varoniles. El verdadero feminismo no debería consistir en querer para las mujeres las funciones que hoy se estiman superiores, sino en rodear cada vez de mayor dignidad humana y social a las funciones femeninas» (Molinero Ruiz, 1998, p. 101).

Esta sociedad jerarquizada tuvo a la familia como elemento clave dentro de su concepción organicista donde el papel social de la mujer estaba en el corazón de la vertiente conservadora y estabilizadora del fascismo. El franquismo describió la misión femenina como la abnegación y utilizó un discurso sublimador de la centralidad de la madre en el papel formador-transmisor de las ideas del «nuevo estado». Se recuperaron antiguos arquetipos femeninos como «Reina del hogar» y «Perfecta casada», acordes al mandato de una feminidad de obligada y abnegada dedicación al hogar y a la familia, al servicio de la purificación y nacionalización de España (Molinero Ruiz, 1998, p. 102; Nash Baldwin, 2015; Piérola Narvarte, 2011, p. 107).

## 2. La justicia militar como instrumento de represión política

La represión franquista tuvo sus características propias y no fue solo una forma de acción política y de control social, sino que también fue un elemento constitutivo del propio régimen. Se llevó a cabo una represión política de la retaguardia de manera intensiva. Varias investigaciones permiten hablar de la represión franquista como «un fenómeno complejo y poliédrico, cuyo objetivo fundamental era la construcción de un nuevo estado a partir de la extirpación violenta del proyecto reformista republicano y de sus apoyos sociales» (Layana Ilundáin, 2021, p. 29). Así, en Navarra pese al predominio de las fuerzas de derecha, la izquierda sufrió un fuerte ataque represivo. Se llevó a cabo una limpieza política que fue materializada de diferentes maneras. La cuantificación de esta represión es uno de los trabajos que desde hace varios años lleva realizando el FDMHN de la UPNA. Dicho fondo recoge un total de 28.402 casos de violencias sufridas en Navarra durante el periodo 1936-1978, de los cuales 1.684 casos fueron dirigidos contra mujeres (Majuelo Gil et al., 2021; Piérola Narvarte, 2021).

A su vez, conforme el bando sublevado iba conquistando territorios se iba imponiendo un modelo normativo de feminidad y unos mecanismos de represión específicos de género dirigidos a castigar y a reeducar a aquellas mujeres transgresoras. Para ello, los derechos igualitarios y de ciudadanía introducidos por el régimen democrático de la Segunda República fueron denigrados y rechazados sistemáticamente (Di Febo, 2003, p. 25; Nash Baldwin, 2015). Para el imaginario de este «nuevo estado» el binomio de roja y mujer suponía una subversión del orden social y moral establecido. Se procedió así a la estigmatización de las mujeres antifascistas como rojas y como símbolo de la decadencia moral y la pérdida de valores católicos.

La justicia militar fue uno de los instrumentos «legales» de represión política que marcó las pautas de eliminación, castigo, aislamiento y conversión de las personas «enemigas». Junto con las jurisdicciones extraordinarias (Responsabilidades Políticas, Tribunal de la Masonería y el Comunismo, Juntas de Depuración Laboral...) y el sistema penitenciario, erigieron la columna vertebral de la violencia política franquista. Así se pudo llegar a una situación caracterizada por el control casi absoluto de las disidencias, y al mismo tiempo, a una extensión generalizada del terror en relación con el enemigo (Gil, 2004, pp. 24-30; Gómez Bravo, 2011, pp. 78-79).

El papel que debía jugar la jurisdicción militar en el ordenamiento jurídico fue uno de los debates más importantes entre los sectores militares y los gobiernos parlamentarios a lo largo del siglo XIX y principios del XX. La Segunda República trajo consigo un proceso de desmilitarización y de reducción del papel que tenían las Fuerzas Armadas, reduciendo el ámbito de la jurisdicción militar a los hechos esencialmente militares. Sus funciones estaban estipuladas en la Constitución de 1931, y por lo tanto, los delitos políticos y de orden público quedarán a cargo de la justicia ordinaria (Castro Campano, 2010, pp. 3-8; Gómez Bravo, 2011, pp. 78-79).

El golpe militar de julio de 1936 era algo premeditado y preparado como lo demuestran las instrucciones reservadas que dictó Emilio Mola en junio de 1936. El 24 de julio de 1936 fue proclamada la Junta de Defensa Nacional (JDN), con sede en Burgos, integrada únicamente por militares y que asumió todos los poderes de la justicia. El 28 de julio se estableció un órgano ejecutivo en la JDN que entre otras, incluía las reglas de enjuiciamiento por Consejo de Guerra para todos los delitos contra el orden público, entre ellos los de rebelión y sedición<sup>4</sup>. Ese mismo día la JDN declaró el estado de guerra en todo el territorio, lo cual, entre otras pautas, declaraba que la justicia tenía que ser llevada a cabo por la jurisdicción castrense, a ser posible por consejos de guerra sumarísimos. Se quebró así con un simple documento y en tan solo unas horas, todo el ordenamiento jurídico español (Gómez Bravo, 2011, p. 78; Jimeno Aranguren, 2019; Villalta Luna, 2022). Será el 7 de abril de 1948 cuando Franco decreta el final oficial del Estado de Guerra.

Estos juicios se rigieron por el Código de Justicia Militar de 1890, el cual contemplaba dos tipos de procedimientos criminales: el ordinario y el sumarísimo. El procedimiento sumarísimo comenzaba con la fase de instrucción en forma de sumario secreto, donde se tomaban declaraciones a los diferentes testigos, se pedían informes de la conducta política, social y moral al párroco, al alcalde, a los responsables locales de Falange y del Requeté, y a la Guardia Civil. También había una declaración indagatoria y el sumario concluía con la confección de un auto resumido que sería leído en la vista. Finalizado el sumario, éste era remitido a la autoridad judicial militar situada en Burgos, que podía: determinar una ampliación del sumario en el caso de detectar deficiencias; dictar el sobreseimiento (que podía ser provisional o definitivo); o elevar la causa a plenario. De esta última manera, se

entregaban las actuaciones realizadas al fiscal para preparar la acusación y al abogado defensor. Posteriormente se constituía un Consejo de Guerra o Tribunal militar que era el que dictaba las sentencias (Jimeno Aranguren, 2019, pp. 46-49).

Un decreto del 1 de noviembre de 1936<sup>5</sup> estableció el procedimiento sumarísimo de urgencia, muy parecido al sumarísimo, pero que suprimía la fase del plenario para realizar juicios más rápidos; cercenando así todavía más las garantías procesales. En la práctica la justicia militar estaba integrada por jueces militares, secretarios y fiscales procedentes de la justicia ordinaria, o por personas sin ningún tipo de formación jurídica anterior. Los funcionarios eran designados libremente por el general en jefe del Ejército, dejando en evidencia que no existía independencia judicial alguna y que los generales del ejército se limitaban a aplicar instrucciones y órdenes de sus superiores militares (Carrillo, 2006; Jiménez Villarejo & Doñate Martín, 2012, p. 30, 2012, pp. 46-49).

Estos tribunales no terminaron su labor con el fin de la guerra, sino más bien al contrario, los procedimientos sumarísimos por delitos cometidos contra el «movimiento nacional» adquirieron aún más relevancia una vez terminada la guerra (Castro Campano, 2010, pp. 3-8). Desde 1939, el nuevo estado propició un crecimiento de la estrategia represiva junto con el de la justicia militar, que abarcaba aspectos de la defensa del Ejército, del Estado y del orden público (Ibáñez Domingo, 2021b, p. 120).

### 3. La justicia militar en perspectiva de género

Son varias las investigaciones realizadas desde una perspectiva de género en lo que a justicia militar se refiere. En primer lugar, es pertinente señalar que las cifras ofrecidas hay que entenderlas como abiertas y próximas. El uso de diferentes tipos de fuentes y metodologías no garantiza que se incluyan todas aquellas personas que se enfrentaron a este tipo de procedimientos.

Siempre hay un número menor de mujeres encausadas en términos comparativos y en ninguna provincia superan el 10% respecto al total de personas encausadas. En torno a un 5% de los procedimientos militares derivados del Guerra Civil fue llevado a cabo contra mujeres (Ginard Féron, 2011, pp. 153-155; Ibáñez Domingo, 2021a, p. 271; Moya Alcañiz, 2016, p. 66, 2023). En torno al 3% del total de las ejecuciones de condena de muerte fueron a mujeres, y más de 50 000 fueron encarceladas por delitos políticos; eso sin tener en cuenta los asesinatos extrajudiciales y las muertes en otros contextos diferentes a los señalados (Di Febo & Juliá Díaz, 2012, pp. 29-31; Nash Baldwin, 2015, p. 200). En el caso de Navarra, el trabajo realizado por Urrizola refleja la magnitud de esta tipología represiva entre los años 1936-1940. Unas cuarenta personas recibieron una condena de muerte que fue ejecutada, pero ninguna de ellas eran mujeres (Urrizola Hualde, 2017). No se puede hablar de cifras definitivas en cuanto a sumarios incoados en Navarra porque aún no han podido ser consultados en su totalidad.

Testu honen helburu nagusia ikerketetan ahozko iturriak, eta zehazki bizitza-istorioak, erabiltzeko beharrezkoak diren aspektu nagusiak azaltzea da. Konkretuago, bizitza-istorioen erabilerarako gakoak azalduko ditut eta baita hauen inguruan hausnartu eta zenbait adibide eman ere. Artikulu hau, gainera, gida edo irakaskuntzarako material moduan erabilgarri izatea espero dut, batez ere bizitza-istorioen erabileran hastapenetan dauden ikertzaileei lagungarri izateko.

Testuaren laburtasunak bultzatuta, bi aspektu nagusitan sakonduko dut, alde batetik, bizitza-istorioen inguruko ideia nagusiak plazaratuko ditut eta elkarrizketak prestatu eta gauzatzeko gakoak planteatuko ditut; eta bestetik, iturri hauen analisia eta interpretazioa arlo konplexuena denez, lanketa horri buruzko gogoetak egingo ditut. Puntu honetan, bizitza-istorioen erabileraren zailtasunak argitzeko adibide praktikoak ekarriko ditut. Azkenik, ahozko iturri hauen artxibo eta tratamendua ere jorratuko dut.

## 1. Bizitza-istorioak zertarako?

Bizitza-istorioa elkarrizketa kualitatibo mota bat da, eta bere helburua kontakizun biografiko esanguratsuak lortzea da. Elkarrizketa mota hau galde-erantzun egituratik desberdina da, solasaldien modua bilatzen baita; hau da, galde-erantzun logika baino, elkarrizketatuak bere bizitzaren pasarte esanguratsuen narrazio askea egitea bilatzen da (Llona, 2012c, or. 32). Nahiz eta berezitasun batzuk dituzten, antzekotasunak ere badaude beste teknika kualitatiboekin, hala nola elkarrizketa sakonekin edo behaketa parte-hartzailearekin. Hori dela eta, hainbat autorek nabarmendu dute bizitza-istorioen bilakaera diziplinarteko testuinguruan kokatu behar dela.

Historiaren sorreran bertan kokatzen da ahozko historiaren erabilera, ahozko transmisioa baitzen memoria kolektiboa gordetzeko modua. Hala, Tucídides, He-

\* [Enviado 2024-09-16 • Aceptado 2024-11-11] • DOI: <https://doi.org/10.58504/rgu.38.8>

rodoto edo Bernal Díaz del Castillo bezalako autore klasikoek ahozko iturrietan oinarritu zituzten beren diskurtsoak. XIX. mendean, aurreko tradizio hau jarraitu zuten zenbait autorek, baina positibismoaren gorakadak idatzizko dokumentuak lehenetsi zituen, eta ahozko historiaren interesa murriztu egin zen akademian. Historia zientifikoa garatzean, gertakari politiko eta belikoek hartu zuten leku zentrala eta iturri idatziak objektibotasun eta zientifikotasunaren berme bilakatu ziren (Benadiba, 2015, or. 91).

XX. mendean, gerra osteko Estatu Batuetako testuinguruan, Chicagoko Eskolako soziologoek bizitza-istorioen erabilera berritu zuten, batez ere, nekazal jatorriko emigrante polakoen narrazio biografikoak jasotzeari ekinez. William I. Thomas eta Florian Znaniecki-k 1918 eta 1920 artean argitaratutako *The Polish Peasant in Europe and America* liburua soziologiaren ibilbidearen zein ikerketa kualitatiboan mugarri garrantzitsua izan zen, eta lehen aldiz kokatu zituzten bizitza-istorioak garaiako zientzia parametroen barruan. Paraleloki, Bronislaw Malinowski antropologoak lekuan lekuko lana eta behaketa parte hartzailea ezarri zituen ikerketarako oinarri moduan, ikerketan ematen den harreman intersubjektiboari ateak irekiz. Beste aurrerapen esanguratsu bat, Franz Boas eta haren taldeak Estatu Batuetako herri indigenen historia berreskuratze ahaleginetik etorri zen, hainbat teknika kualitatibo uztartu baitzituzten: behaketa parte-hartzailea, elkarrizketak, testu historikoen analisia eta bizitza-istorioak.

Hala ere, zientzian metodo kualitatiboan garrantzia bigarren mailan mantendu zen, eta ikerketa kuantitatiboan eta teoriaren arteko lotura nagusitu zen, soziologia kuantitatiboaren gorakadarekin. XX. mendeko bigarren erdian, aldaketa esanguratsua gertatu zen: interesaren fokua norbanakoen analisitik kolektiboan azterketa-ara pasatu zen, eta «behetik egindako» ikerketak protagonismoa hartzen hasi ziren. Horrek jende «arruntaren» esperientzien berreskurapena ekarri zuen, eta aldaketa honetan genero ikuspegiak eta kritika feministak eragin nabarmena izan zuten.<sup>2</sup> Ikuspegi berritzaile hau garatzeko bizitza-istorioen erabilera ezinbestekoa izan zen eta ordura arte akademikoki ikertzen ez zirenen esperientziak jasotzea ekarri zuen: klase herrikoiak, emakumeak, haurrak, immigranteak, baztertutako taldeak, etab. (Dominguez 2011, or. 39). 1950-1960 hamarkadetan, bizitza-istorioen metodologia hedatuz joan zen eta zenbait lan esanguratsu nabarmentzen hasi ziren; horien artean entzutetsuenak Oscar Lewis antropologoaren pobrezia-aren inguruko lanak eta bizitza-istorioetan oinarritutako Ronald Fraser-en Espainiako Gerra Zibilaren inguruko ikerketa ditugu (García-Orellan, 2012, or. 62-67). Estatu mailan, garrantzitsuak izan ziren Paul Thompson-en bizitza-istorioen inguruko *La voz del pasado* lanaren itzulpena argitaratzea eta Mercedes Vilanovaren lan aitzindariak ere.

Esan daiteke bizitza-istorioek informazio kualitatiboa baliatzen duen diziplina ororekin dutela zerikusia, eta, arloen arteko muga artifizialak gaindituz, lehen esku-informazioa jasotzeko bide pribilegiatuetako bat izan direla. Paul Thompsonen, esaterako, ahozko historia diziplinartekotasunean sortu zela azpimarratu zuen, so-

ziologia, antropologia, historia eta literatura edo kultura analisiaren arteko bidegurutzean (Thompson, 2004, or. 15). Diziplina hauek historiari ekarpenak egin dizkiote bizitza soziala eta norbanakoak sakontasun handiagoz ulertzea ahalbidetzen duten kontzeptu eta marko teorikoeekin (Benadiba, 2015, or. 91). Hortaz, artikulu honetan aurkezten ditudan hainbat ideia aplikagarriak izan daitezke beste ikerketa metodo edo teknika kualitatibo batzuetan, eta diziplina anitzetan erabili daitezkeen tresnak dira.

Ordutik, hainbat erakunde eta taldek ordura arte protagonismoa izan ez zuten testigantzak jasotzeko ekimenak martxan jarri dituzte eta ahozko artxiboak sortuz joan dira, materia hori gorde eta ikertzaile zein interesdunen esku jartzeko helburuarekin.<sup>3</sup> Bestalde, ahozko iturriek ikerketa hutsa ez diren beste ekinbide batzuetarako ere balio izan dute, mugimendu sozialetan edota irakaskuntzan, kasu.<sup>4</sup> Azken honetan, ahozko-istorioak metodologia didaktiko modan erabiliak izan dira, historia edo gertaera sozialak ikuspegi pertsonal eta subjektibo batetik landu eta hausnartzeko bideak irekiaz.<sup>5</sup>

Urte askoan, zientziaren ikuspegi positibistatik memoria iraganean kokatzen den ikerketa objektu moduan ulertu izan dute. Ikuspegi horretatik, hainbat ikertzailek uste izan dute gertaera historiko eta kulturalen azalpen objektibo bat ematea posible dela. Ikuspegi postmodernistek agerian utzi dute, ordea, orainak ere eragina duela kontakizun historikoak sortzerako orduan. Begirada honen arabera, bizitza-istorioetan eragina dute bizitako esperientziek, baina baita oraineko gertakariak eta etorkizuneko proiektuek ere. Aldaketa honek, agerian utzi du ahozko iturrien lanketaren konplexutasuna eta, era berean, historia ikertzeko eremua arlo kulturalaria bideratzeko aukera eman du (Llona, 2012b, or. 11). Bestalde, interpretaziozko ikuspegiaren etorrerarekin, paradigmak aldaketa esanguratsua gertatu zen gizarte zientzietan eta ikertzaileen interesak gertakarien berreraikitze batetik, hauen zentzuaren bilaketara eta subjektibitateen inguruko galderetara aldatu ziren. Ikuspuntu honek, halaber, subjektuen agentzia ikerketaren erdigunean kokatzea ekarri zuen, eta hori ezinbestekoa da, botere harremanen analisirako eta egunerokoan oinarritutako ikerketetarako (Llona, 2012c, or. 41).

Pilar Dominguezek azpimarratzen duenez, bizitza-istorioen balio nagusia da historia edo gertaera baretik kontaktzen dutela, hau da, pertsonaren subjektibitateak sortzen direla (Dominguez, 2011, or. 38). Horregatik, baliagarriak dira aldi historiko edo kultura jakin bateko esperientzia indibidual eta kolektiboaren gakoak arakatzeko. Bizitza-istorioen bitartez azter daiteke subjektuek munduari zentzua nola ematen dioten, betiere testuinguru espezifikotatik eta unibertso kultural partikularren barruan kokatuta. Miren Llonaren hitzak jaso, bizitza-istorioak bide pribilegiatuak dira gizabanakoek beren ekintzei, gorputzei eta, azken batean, beren bizitzei ematen dizkieten esanahietara iristeko (Llona, 2012c, or. 42). Hortaz, ahozko iturrietan interes nagusia ez dira iraganeko gertakariak, baizik eta hauek orainean hartzen duten esanahia (Beorlegui, 2019, or. 134).

Iturri hauen erabileraren inguruan sortu izan diren zalantza eta gatazkek honakoa azpimarratu beharra ekartzen dute: iturri hauetatik jasotzen den informazioa ez da gertaerak berreraikitzeke erabiltzen, gertaera horien zentzua ezagutzeko baizik. Ronald Fraserek dioen moduan, iturri hauekin lan egiterakoan helburua ez da gertaera historiko batean benetan gertatu zena azalratzea, baizik eta jendeak nola bizi izan zuen azaltzea, zein zen hauen egia, kontatu nahi izan dutena. Izan ere, protagonistek gertaera horien inguruan pentsatzen dutena bera egitate historiko bat baita, analisirako baliagarria dena bere horretan (Fraser, 2019, or. 24). Beste modu batera esanda, bizitza-istorioak ez dira historia «osatzeko» datuak bilatzeko eta, horregatik, narrazio hauek ez dira ikerketaren amaiera edo emaitza. Ezaugarri hauek bi ondorio dakartzate: alde batetik, iturri hauek ez direla beren kabuz azaltzeko gai. Norberak bere bizitzaren inguruan egiten dituen interpretazioak direnez, ikertzailearen interpretazioa beharrezkoa egiten dute. Eta, bestalde, iturri hauen konplexutasunak eta berezitasunak hauek nola eraiki, analizatu eta artxibatu behar diren jakiteko metodologia propio bat garatzeko beharra sortzen du (Beorlegui, 2019, or. 135). Beraz, kontakizunetan jasotakoa ikertzaileak interpretatu eta landu egin behar du eta prozesu horren ondoren soilik aurkeztuko ditu emaitzak.

Zientzian nagusi izan den eredu positibista eta elitistaren ondorioz, nagusi izan dira botere eremuetatik, goitik, egindako ikerketak eta dokumentu ofizialek edo artxibokoek lehentasuna izan dute informazioa biltzerako orduan, batez ere historia bezalako tradizio luzeko diziplinetan. Subjektibitateen analisisen bitartez, agerian geratu da, ordea, arau zein iturri normatiboen eta esperientziaren artean aldea egoten dela. Antonio Cazorla historialariak dioen bezala, historia jende arruntak egiten du, eta, gainera, beraien bizipenak ez dira bat etortzen boterea dutenek sortzen dituzten dokumentu eta narratibekin. Alderdi horrek garrantzi berezia hartzen du diktadura-garaian, hala nola frankismoan, analisirako erabil ditzakegun dokumentu idatzi gehienak errepresio eta kontrol zorrotz batean ekoitziak izan baitziren (Cazorla, 2016, or. 16).

Joan J. Pujadas eta Jordi Rocari jarraituz, menpeko sektoreetan ahozko iturri eta iturri biografikoak erabiltzeak, baztertutako subjektu sozialak birbaloratzea dakar. Honetaz gain, dilema sozialei heltzeko ikuspegi berriak ere irekitzen ditu, aurretik kontakizun historikoetatik kanpo egon diren eragileen parte-hartzea barne hartzen baitu (Pujadas eta Roca, 2010). Informazio baliotsu horietatik abiatuta, narratiba berriak garatu dira azken urteetan eta gertakari historiko zein fenomeno kulturelei buruzko ikuspegi berritzaileak sortu dira. Horrek ikerketa eremuak ireki ditu identitateen, eguneroko bizitzaren zein sexualitatearen esparruetan, esaterako.

Botere guneetatik at egon diren subjektuen, botere harremanen eta eguneroko bizitzaren inguruko azterketak egiteko teknika nagusietako bat da bizitza-istorioena. Bilatzen dena subjektibitatean arakatzeko da, lanketa horretatik bakarrik iritsi baitaiteke garaiko subjektuen agentzia indibidual eta kolektiboa ezagutzera, baita garaiko kultura zein pentsamolde eta jokamoldeak ulertzera ere. Maurice Halb-

wachs autoreak *memoria kolektiboa* kontzeptuarekin oroimenaren izaera soziala nabarmendu du, emozioen eta oroitzapenen banakako lanketa taldeen barruan gertatzen baita. Horrek memoria indibidualaren eta kolektiboaren arteko erlaziora garamatza: iraganeko gertaera bati buruzko zerbait ezagutu nahi denean, beti galdetu behar diogu norbaiti, ez baitago oroitzapenak gorde eta antolatuko dituenik oroimenaren subjektu kolektiborik (Halbwachs, 2004a). Paradoxikoki, banakako bertsioen bidez bakarrik da posible memoria kolektiboaren esanahietara iristea. Autorearen arabera, memoria gizartearen kontzientzian finkatutako marko sozialen bidez berreskuratzen da eta memoria indibidualak eta sozialak elkar eragiten dute etengabe. Beraz, oroitzapenak ez dira soilik esperientzia indibidualak, kolektiboak ere badira (Halbwachs, 2004b) .

Cristina Borderiasen hitzak jarraituz, metodo biografikoak sarbidea ematen du gizabanakoa eta egiturak bat egiten duten gune horretara (Borderias, 1997, or. 181). Bide beretik, Miren Llonak dio oroimenaren subjektibotasunaren bidez, esperientzia indibidualaren eremutik espazio sozial eta kulturalera garamatzen bide bat marraztu daitekeela (Llona, 2009, or. 363). Zentzu honetan, baliagarriak dira erresistentziak edo jokabide disidenteak ezagutu eta aztertzeko ere, iturri hauen bitartez bizitzan egoteko modu berriak adierazten dituzten esperientziak ezagutu baitaitezke (Llona, 2020, or. 8-10).

Bestalde, azterketa oroimenean oinarritua egoteak sarbide pribilegiatua ematen du bizitako esperientziak oroitzapenean uzten dituen arrasto emozionalera, protagonisten subjektibitate eta hauen agentziara sarbidea ahalbidetzen baitu. Gorputzean gogor grabatutako asaldura, kezka edo inpresioei lotutako aztarna ezabaezinak izendatzen ditu Miren Llonak *oroimenaren enklabe* moduan. Gune hauek norbanakoak iraganeko emozioak oroitzeko eta esperimentatzeko erabil ditzakeen leku mental pribilegiatuak dira. Elkarrizketetan, errotutako oroimen gune horiek azaleratu eta identifikatzea lortu behar dugu, bertan topa baitaitezke analisirako oinarri izango diren bizipen subjektiboki esanguratsuak.

Azken batean, metodologikoki bizitza-istorioen analisisik abiatuta sistema kultural eta sozialetara iristea da gakoa, kontakizun partikular horietan arakatuz iritsi baitaiteke gizarte antolaketa eta botere harremanak nola gorpuzten diren ezagutzera. Elkarrizketa hauetatik lortutako informazioa subjektiboa da eta beharrezkoa da hala izatea izaera kualitatiboa duten auziak argitzeko erabili ahal izateko. Elkarrizketatuaren memoriaren bidez, honen agentzia hautematea lortu daiteke, bai eta garai baten esanahiak eta gertatu ziren gizarte- eta kultura-aldaketak interpretatzea ere. Iturri subjektiboen bitartez iritsi ahalko da *sentimen egitura*<sup>6</sup> berriak aztertzea edo mendekoen eguneroko erresistentziak eta haien motibazio eta estrategiak azaltzea, adibidez (Llona 2009, or. 360-362).

Horregatik, ikerketa modu kritiko batean egiterako orduan, ezinbestekoa da kontuan izatea erabiltzen ditugun metodologiek eta analisirako aukeratzen ditugun iturriek ikerketaren emaitzetan eragina izango dutela. Garai historiko jakin bat edo



fenomeno zein kultura bat ikuspegi epistemologiko kritiko batetik begiratu nahi badugu, ikuspegi feministatik kasu, ezinbestekoa dugu ikerketa lanak planteatzera-koan metodologiaren inguruko hausnarketa egitea.

Artikulu honetan nire tesi-ikerketa erabiliko dut bertatik eratorritako adibideak erabiltzeko. Testuinguruan jartzeko, tesian erregimen frankistan jazotako genero errepresioaren eta erresistentzien analisia egin nuen. Bertan, premisa batetik abiatu nintzen: erregimen diktatorial eta errepresiboak ez dira soilik neurri hertsatzaile instituzionalizatuen bidez ezartzen, baizik eta egunerokotasunean txertatzen dira, eta bitarteko sinbolikoak, emozionalak eta gorputzezkoak erabiltzen dituzte. Ikuspegi honetatik, erresistentziak ere ez dira soilik araubide autoritarioari zuzenean aurre egiten dioten erakundeetara mugatzen; aitzitik, pertsonen eguneroko bizitzako ekintzen eta jarreraren bidez ere ematen dira. Boterearen eta haren erantzunaren eguneroko dimentsio hori izan zen analisiaren ardatz nagusia. Helburu horretara iristeko ezin nuen botere postuetatik eta instituzioetatik sortutako iturrietara bakarrik jo, hauek ez baitituzte botere harremanen alderdi asko erakusten eta, are gutxiago, eguneroko erresistentziak aztertzeko informazio nahikoa ematen. Hortaz, bizitza-istorioak bilakatu ziren analisirako materiala lortzeko bide nagusia (Altuna, 2024).

## 2. Bizitza-istorioak ikerketaren giltzarri

Aurrerago aipatu dudan moduan, bizitza-istorioetan elkarrizketatuak protagonismoa izatea eta oroitzapenen narrazioak bere bidea har dezan bilatzen dugu. Gure papera memoria katalizatzea da (Dominguez, 2011, or. 37) eta elkarrizketan gure jarrerak «aktiboki neurritsua» izan beharko luke (Llona, 2012, or. 31). Dena den, elkarrizketak aurretik zenbait prestaketa lan egitea komeni zaigu, lortu nahi ditugun kontaketa ireki horietara iristeko zenbait estrategia landu baititzaiegu.

Lehenik eta behin, interesgarria da elkarrizketaren gidoi bat prestatzea landu nahi ditugun gaiak identifikatzeko. Gidoi hau gehiago dago zuzendua ikertzailearen ideia eta helburuak argitzera elkarrizketan bere horretan aplikatzeko galdera sorta biltzera baino. Esan bezala, elkarrizketaren momentuan, bizitza-istorio ahalik eta libreena egitea da helburua, narrazioa ahalik eta gutxien moztea lortu nahi dugu. Elkarrizketatzaileak interesatzen zaizkion gaiak argi baditu, elkarrizketaren momentuan errazagoa izango zaio momentuan sortzen doan solasaldian hizketarako intereseko gaiak irekitzea modu sotilean. Paul Thompsonek zioen moduan, elkarrizketaren estrategia ez da elkarrizketatuaren ardura, geurea baizik, eta askoz errazagoa da gidaritza malgu eraginkor bat lortzea aurretik ideiak argi baditugu (Thompson, 1988, or. 228).<sup>7</sup> Horretarako, garrantzitsua da gure eskuhartzeak galdera moduan baino solasaldi bezala planteatzea, eta hori ere aurretik landu dezakegu. Pentsatu behar dugu nola gauzatu zenbait gaien inguruan hitz egiten hasteko galderak edo komentarioak, hauek eguneroko hizkerara ahalik eta gehien gertura daitezten.

Demagun gure ikerketan interesa dugula berrogeigarren hamarkadan eskolan ematen botere-harremanak aztertzeke eta baita eremu horretan genero eta klase aldetik ematen ziren ezberdintasunetan sakontzeke ere. Gai horiek landu ahal izateko bizitza-istorioetan kualitatiboki interesgarria den informazioa lortu nahi badugu, estrategia egokia ez da zuzenean botere harremanen inguruan galdetzea. Hau da, ez da komeni honelako formulak erabiltzea: «Zuen eskolan harreman hierarkikoa zegoen irakasle eta ikasleen artean?» edo «mutilek lantzen zituzten edukiak hezkuntza maila altuagokoak ziren?». Horrela eginez gero, protagonistaren hausnarketa jasoko genuke, kasurik onenean, eta elkarrizketatuak ez luke zer erantzun jakingo, kasurik okerrenean. Guk jaso nahi duguna ez da pertsona horren analisia, pertsona horren esperientzia baizik, izandako bizipenak eta hauek nola bizi eta interpretatzen dituen. Bestela esanda, ez dugu jaso nahi garaiko politikaren edo munduaren narratiba bat, bildu nahi duguna bere esperientzia oroituak dira, zer egin zuen eta zergatik egin zuen (Fraser, 19990, 147).

Gero, informazio hori haien subjektibitatea eta testuingurua kontuan hartuta guk analizatu beharko dugu ditugun erraminta teoriko eta metodologikoekin. Horregatik, hausnarketa irekitzen duten galderak baino, bizipenen inguruan hitz egiteko bidea irekitzen dutenak egitea da elkarrizketa interesgarri bat lortzeko gakoa. Ronald Fraserrek «galdera inozente» moduan izendatu zuen hori lortzeko erabili ditzakegun estrategietako bat, elkarrizketatzailearen jakintza eza agerian uztean datza, modu horretan elkarrizketatuari azalpenak emateko bidea irekiz (Fraser, 1990, or. 140). Solasaldiaren amaieran egin daitezke hausnarketara bideratutako galderak ere, baina narrazioan zehar bizipenetan zentratzea da egokiena, oroimenaren planoa mantentzeko.

Gidoia prestatzerakoan pentsa dezakegu gure galdera teorikoak erantzuteko zein bizipenen inguruan hitz egitea nahi dugun. Esate baterako, proposatutako kasuan, protagonistaren esperientzien narrazio librearen barruan, aukera ikusiz gero, eremu horren inguruan hitz egiteko bidea ireki dezakegu honelako galderaren batekin «non ikasi zenuen?» eta modu librean utzi narrazioak bidea jarrai dezan. Kontatzen ari dena interesatzen zaigula jakin dezan gure entzutea aktiboa izatea ezinbestekoa da, batez ere, gizartean lekua izan ez duten kontakizunak direnean. Narrazioarekin bide horretatik jarraitzea interesatzen zaigula adierazteko gaian sakontzen duten galderak ere planteatu ditzakegu honelako formulekin: «ze ikasgai gustatzen zitzaizun gehien?», «irakasleak zorrotzak ziren?». Galdera «simple» hauen bitartez narrazioa ez etetea lortuko dugu, ez baita bizipenen planotik eta bere oroimenean jarritik urrunduko. Era berean, elkarrizketatuari garrantzitsuenak diren bideetatik joateko aukera libre geratuko zaio. Miren Llonak azpimarratzen duen moduan, elkarrizketa hauetan garrantzitsuena enpatiaz entzutea eta giro lasai eta intimoa sortzea da, galderak modu erraz, labur eta sentikorrean egiten ikastearekin batera (Llona, 2012c, or. 35).

Adibide konkretura bueltatuta, erabiltzen ditugun terminoen inguruan hausnartzea bizitza-istorio aberatsagoa eta giro lasaiagoa lortzeko lagungarria izan dai-

teke. Alde batetik, elkarrizketan zehar garrantzitsua da elkarrizketatuaren hizkera edo hark erabiltzen dituen hitzak errepikatzea, batez ere gure hitz egiteko formatik urruntzen bada. Adibidez, irakasle orde, maistra hitza erabiltzen badu, hitz hori hobestea komeni da. Berdina gertatzen da erabiltzen dituen esamolde edo hizkera motarekin ere, batez ere hark esandako zerbaiten inguruan galdetzen dugunean. Bestalde, zenbait terminoren atzean narratiba espektatiba batzuk egon daitezke eta elkarrizketatuak bere kontakizuna bide horretara bidera dezake.

Tesi prozesuan izandako esperientziarekin hobe uler daiteke atal hau. Lan horretarako bildu nituen bizitza-istorioekin frankismo garaia bizi izan zutenen esperientzia emozional eta fisikoa jaso nahi izan nuen. Lehen elkarrizketak egiterakoan, ohartu nintzen elkarrizketatuen esperientzia propioarekin konektatu ahal izateko *frankismo* terminoa saihestu beharra nuela aurkezpenak egiterakoan, baita proiektua azaltzerakoan eta galderak planteatzerakoan ere. Izan ere, termino hori erabiltzean narrazioa gerrarekin eta errepresio politiko eta instituzionalarekin lotutako gaietara mugatzen zuten. Garrantzitsua da kontuan izatea elkarrizketak egin nituen aldian memoria historikoa berreskuratzeko mugimendu handia egon zela, eta alderdi horietan zentratutako elkarrizketa eta narratiba ugari sortu zirela.<sup>8</sup>

Elkarrizketatutako pertsona batzuek parte hartu zuten memoria berreskuratzera bideratutako elkarrizketetan, eta, gehienek, frankismoaren memoria historikoari buruzko ikuspegi horretatik egindako kontakizunak entzunak zituzten. Elkarrizketa horietan, espetxeratzeen, fusilamenduen eta garai hartako beste errepresio modu instituzional batzuen ingurukoak izaten ziren nagusitzen ziren gaiak, baita pertsonalki edo inguru hurbilean bizi izan ez bazituzten ere. Gai horiei buruz entzun zutenari buruz hitz egiten hastean, beren bizi-esperientzia alde batera uzten zuten eta niri haien eguneroko bizipenak jasotzea interesatzen zitzaidan, hain justu. *Frankismo* hitza alde batera utzi eta solasaldia elkarrizketatuen hurbileko testuinguruarekin lotutako kontuetara bideratzen nuenean, aldiz, nire lanerako kontakizun aberats eta kualitatiboki interesgarriagoak lortzen nituen, elkarrizketatutako pertsonen esperientzia eta bizipena narrazioaren ardatz bilakatzen baitzen honela. Hau da, frankismo hitza azalpenetik ezabatzean, haien bizitzan eta bizipenetan gehiago zentratzen ziren eta informazio horri esker arakatu ahal izan nituen diktaduran egunerokoan ematen ziren botere harremanen ingurukoak.

Kasu honetan bezala, elkarrizketa bakoitzean, hurrengoak hobetzeko edo lortu nahi dugun narrazioetara iristeko irakaskuntzak atera ditzakegu, eta hausnarketa teorikorako ere giltzak izan daitezkeen ideiak ere agertu daitezke prozesuan. Horregatik, ikerketaren inguruko hausnarketa, zalantza eta irakaspenak landa koadernoan erregistratzea garrantzitsua da, prozesuan zehar emandako pausuak eta hautuak gordeztea baliagarria baita analisirako, aurrerago zehatzago ikusiko dugun moduan.

Narrazioek espero ez ditugun norabideak hartzen dituzte eta norabide horietan posible da gure gidoian eta aurreikuspenetan identifikatu gabeko arloren batek protagonismoa hartzea ere. Askotan, protagonistarentzat garrantzitsuak izan diren

pasarteak behin eta berriz agertuko dira, emozionalki biziak izandako esperientziak direlako. Pasarte horiek gure ikerketarako interesekoak ez izan arren, lekua eman eta narrazioa moztu gabe solasaldia bideratzen saiatu beharko dugu. Beste kasu batzuetan, espero ez genuen norabide bat agertzen da eta ohartu gaitezke, aurreikusi ez arren, interesgarria dela ikerketarako. Kasu horretan, gidoiean egon ez arren, lehenago ikerketa galderen inguruan hausnartzen ibili izanak lagunduko digu atal hori interesgarri moduan identifikatzen. Gainera, arlo horiek ezagutzeak aukera ematen digu elkarrizketa ostean horren inguruan hausnartzeko, gaiaren inguruko bibliografiara jotzeko eta ikerketan ildo berriak irekitzeko.

Elkarrekin hizketan sortzen diren narratiba hauetan garrantzitsua izango da, hortaz, elkarrizketatzaileak jokatzeko duen papera. Esaterako, hitzez edo keinuz interesa azpimarratuz sendotu daitezke elkarrizketatuak hartutako norabide batzuk. Indargarri positibo hau are nabarmenagoa da elkarrizketatuak kontatzen duenaren interesa zalantzakotzat jotzen duenean, ohikoa izaten dena kontakizuna ez denean interesgarri bezala hartu bere bizi-esperientzian edo/eta maila teoriko eta akademikoan landua izan ez den gai bat denean. Portellik dioen moduan, elkarrizketatu askok ez dakite bizitako zenbait gauza historia direla, orain arte nagusitu diren narratibetan agertu ez direlako (Portelli, 2004, or. 47). Egoera hau askotan gertatzen da emakumeei egiten zaizkien elkarrizketetan eta sozialki baloratuak izan ez diren arloen inguruko narrazioetan: zaintza lanak, haien desira eta ilusioak, etxeko lanak, neskameen bizipenak, eta abar luze bat.

Beraz, elkarrizketatu zein elkarrizketatzailearen esku dago lanketa teorikorako interesgarria izango den informazioa lortzea. Hain justu, elkargune horretatik sortzen den emaitza narratiboan elkarrizketatzaileak ere eragina duelako, elkarrizketa fenomeno intersubjektiboa dela esaten dugu. Elkarrizketak «koprodukzio» moduan hartzen dira, parte-hartzaileek lankidetzan eraikitakoak (Dominguez, 2011, or. 40). Gainera, elkarrizketatu zein elkarrizketatzaileak, bere interes propioak eta elkarrizketa jorratzeko estrategia anitzak izan ditzakete; batzuetan, kontrakoak ere izan daitezkeenak. Alessandro Portellik azaltzen duen moduan, pertsona berdina batek kontatutakoa ez da inoiz berdina izango bi momentu ezberdinetan, eta are gutxiago bi pertsona ezberdinek egindako elkarrizketetan (Portelli, 2004, or. 44).<sup>9</sup>

Horregatik, komunikazio zuzena baino, negoziazio bat ematen dela azpimarratzen dute elkarrizketetan ematen diren botere harremanak ikertu dituztenek (Davis, 2003, or. 153-160). Ildo horretan, Jordi Roca eta Lidia Martínez-ek nabarmendu dute elkarrizketetan espektatiba eta suposizioen jokoak ematen dela, eta narrazioetan haur egokitzeko behar edo borondatea sortzen dela (Roca eta Martínez, 2012, or. 95). Bestela esanda, elkarrizketatua asmatzen saiatuko da elkarrizketatzaileak zer jakin nahi duen eta bere narrazioa haren espektatiba horietara egokitzen ahaleginduko da. Are gehiago, aipatu den moduan, elkarrizketatuak ikuspegi edo informazio jakin bat adierazteko nahia izan dezake eta elkarrizketa bertara bideratu, elkarrizketatzaileak egiten dizkion galderak direnak direla.

Behin gidoia prestatuta eta kontaktuak eginda, elkarrizketa egiteko hitzordua jartzeko momentua iristen da. Parte-hartzaileei ordu batzuk lasai hartzeko moduan izatea eskatzea garrantzitsua da, bi ordu edo bi ordu eta erdiko tartea libre izatea. Batez ere, komeni da presazko hitzordurik ez izatea goiz edo arratsalde horretan, halako egoera batek guztiz baldintza baitezake hizketaldi lasai bat sortzeko aukera. Lehen kontaktutik, ikerketa proiektua, testuingurua eta helburuak azaltzea ezinbestekoa, eta baita haien testigantzekin nola lan egingo dugun argi uztea ere. Parte hartzaileak informazio osatua izan behar du proiektuan parte hartu nahi duen ala ez erabakitzeko eta ematen duen informazioa nola erabiliko den ezagutzeko. Elkarrizketa grabatua izango dela ere aipatu beharko dugu ezinbestean, baita zergatia ongi azaldu eta konfidentzialtasunaz adostasunak lortu ere. Elkarrizketatu guztiek ados egon behar dute proiektuan parte hartzearekin, eta idatzizko edo ahozko baimena eman behar dute elkarrizketak grabatzeko, non argi geratuko den informazioa helburu akademikoetarako edo/eta dibulgaziorako soilik erabiliko direla.

Badira aditu batzuk bizitza-istorioak bideoan erregistratzearen alde egiten dutenak, keinuak, tonua eta esandakoa interpretatzeko interesgarriak diren beste hainbat informazio jasotzen dutelako (Dominguez, 2012, or. 178). Dena den, nire esperientzian, intimitatea lortzeko erlazio zuzena ezinbestekoa da eta gertutasun eta konfiantza hori eraikitzeke zenbait erabaki lagungarriak izan daitezke. Horien artean, anonimotasuna gordetzea nagusienetako bat da, batez ere elkarrizketatuari askatasuna ematen diolako. Izan ere, bere hitzak ez direla identifikatuak izango jakiteak, arlo sentikorrei buruz hitz egitea errazten du, familia barruko gertakariei buruz, adibidez. Bestalde, aparatu teknologikoen erabilerak intimitate giroa lortzea zailagoa bihur dezake. Ronald Fraser autoreak dokumental batean parte hartzean izan zituen esperientzia deserosoak partekatu zituen eta azkenean honako ondorio-ra iritsi zen: «ohartu nintzen ez zegoela ezer bi pertsona, bere soiltasunean, bizitza bat birsortzen egotea bezalakorik mahai gainean grabagailu txiki bat dutela» (Fraser, 1990, or. 133). Artikulu honetan aurrerago aztertuko den kasuan ere, ikus daiteke bideoan grabatua izateak arazoak sortu ditzakeela. Dena den, bideo bidezko dokumentatzeak beste aukera interesgarri batzuk ere sortzen ditu, hedapen eta dibulgazioari begira, besteak beste.

Solasaldirako lekua aukeratzeko orduan, parte-hartzaileek hautatzea da komenigarriena, gure proposamenak egitearekin batera. Gehienetan, elkarrizketatuaren etxean bertan egitea da praktikoena, batez ere adinekoen kasuan, giro egokia sortzen baitu hausnarketarako eta narrazio patxadatsurako. Bestalde, bizitza-istorioak kontakizun zabal eta sakonak dira eta, kasu batzuetan, saio bakarra egin daitekeen arren, saio bat baino gehiago egitea ere ohikoa da. Beraz, behin elkarrizketa amaituta transkribapena egin eta beste saioen bat beharrezkoa ote den argitu beharko dugu. Gogoan izan behar da, transkribapen lanak denbora eskatzen duela eta helburua ahalik eta literalena egitea dela (Benadiba, 2007, or. 63).<sup>10</sup>

Orokorrean, anekdota, istorio edo pasarte konkretuak dira analisi kualitatibora-ko informazio esanguratsuen ematen dutenak eta horiek lortzeko elkarrizketatua eroso egotea ezinbestekoa da. Zentzu honetan, Ronald Fraserrek anekdoten balioa nabarmentzen du, hitz gutxitan narratzailearen mundu ikuskeraren berri emateko ahalmena dutelako (Fraser, 1990, or. 134-135). Pasarte intimo horiek ager daitezten denbora eskaini beharko zaio harremana zaintzeari, kontaktua egiten den momentutik. Lehenik, konfidentzialtasunaren inguruko adostasunak lortu behar ditugu eta, ondoren, giro egokia sortu elkarrizketatua libre eta eroso senti dadin bere bizipenak partekatzen. Gero, informazio hori oinarri hartuta, ikertzaileari dagokio analisia eta lan teorikoa gauzatzea, dituen erraminta teoriko eta metodologikoak martxan jarri eta beste iturriekin kontrastatuz. Beraz, iturri hauek beste informazio iturrien pare erabili behar dira eta, hortaz, jasotako informazio anitzarekin kontrastatu eta testuinguruarekin erlazioan jarri beharko dugu (García-Orellan, 2012, or. 78).

Aipatu dudan bezala, nire tesi proiektuan bizitza-istorioak izan ziren iturri nagusiak, baina are gehiago ere esan daiteke, hauek lanaren zentroa bera izan baitziren. Emozioz betetako narrazio subjektiboak eta bizi-esperientziak oinarri hartuta eraiki nuen ikerlana bera, eta analisirako iturri ezezik lanaren gidari ere bilakatu zen protagonistek emandako informazioa. Arrazoi nagusia da ikerketaren zentroa oraindik ikertu ez ziren eguneroko botere harremanen azterketa zela. Ondorioz, aurrez definitutako ildo historiografikoak jarraitu edo iturri dokumental jakin bat aztertu beharrean, estrategia bizitzako historietan analisirako funtsezko elementuak identifikatzea izan zen. Horretarako, eguneroko esperientziak jaso behar nituen, bertan errepresioaren zein erresistentziaren mekanismoak identifikatu ahal izateko.

Elkarrizketetan zehar *oroimenaren enklabeak*, hau da, intentsitate emozional handiko pasarteak identifikatu eta bertatik abiatuta, errepresioarekin edo genero-erresistentziarekin lotutako karga emozional esanguratsuko une eta guneak identifikatu ahal izan nituen. Informazio hori garaiko beste iturriekin kontrastatu nuen eta hurrengo elkarrizketetara ikerketa gai gero eta argiagoekin joan ahal izan nuen. Eguneroko esperientzia horietatik abiatuta, azterketarako sinboloak, erritualak eta espazioak aukeratu nituen, botere harremanen eta, konkretuago, genero-subjektibotasunen eraketan garrantzitsuak zirelakoan. Ondoren, beste iturriekin landu eta kontrastatuz eta erraminta teorikoak erabilia analisia gauzatu nuen.<sup>11</sup>

### 3. Analisi eta interpretazioaren konplexutasunaz bi hitz<sup>12</sup>

Hausnarketa metodologikoen testuinguruan, Jordi Roca eta Lidia Martínezek premisa bezala hartzen dute honako abiapuntua: kontakizun guztiak fikzioak dira. Halaber, ohartarazten dute ahozko iturrietan interesatzen zaiguna ez dela testigantza egiazkotasuna frogatzea, baizik eta jakitea «nola irudikatzen duen norbaitek, elkarrizketatzaileak gorpuzten duen beste baten aurrean, bere bizitzaren bilakaera» eta baita nola kontatzen duen ere (Roca eta Martínez, 2006, or. 90). David Beorle-

guik azpimarratzen du elkarrizketak prozesu sortzaile, kolaboratibo eta erlazionalak direla, eta horiek historikoki eraikitako subjektu eta botere erlazioen barruan kokatzen direla. Elkarrizketaren nondik norakoak parte hartzaileen artean sortzen den harremanak baldintzatuko ditu (Beorlegui, 2019, 134). Ildo beretik, Pilar Folguera ohartarazten du elkarrizketatuengana hurbiltzeko dugun moduak, adin, sexu, arraza edo ideologian ditugun ezberdintasunek zein elkarrizketa egiten dugun leku eta momentuak elkarrizketaren edukia baldintzatu dezaketela (Folguera, 1994, or. 38). Esandako guztiagatik, elkarrizketatutako pertsonen testigantzak «kultura-objektu konplexu» gisa ulertu behar ditugu (Schwarzstein, 2002, or. 169).

Miren Llonaren aburuz, ahozko iturriak idatzizkoen maila berean kokatu behar ditugu, eta ikertzaileak iturria interpretatu egin behar du, elkarrizketaren ondoriozko narrazioak ikuspegi hermeneutiko batetik jorratuz (Llona, 2012c, or. 45). Gaineratzen du errealitate kulturalaren azterketa konplexua eraikitzeko beharrezkoa dela ahozko iturri hauek beste iturri batzuekin konbinatzea, hala nola, garaiko prentsa edo aldizkariekin, medikuntzako, erlijioiko edo zuzenbideko diskurtso preskriptiboekin, genero-idealei buruzko narratibekin edo unean uneko produkzio kulturalekin. Betiere, iturri hauek denak maila berean jarri behar dira eta interpretatu beharreko informazio bezala hartu (Llona, 2012, or. 45). Ezaugarri horiek kontuan hartuz gero, bizitza-istorioak tresna interesgarriak dira historia kulturalerako edo historiaren eta memoriaren ikuspegi antropologikorako, besteak beste.

Iturri hauek duten zailtasun metodologiko handiena interpretazio lan konplexu hori da, hain zuzen ere. Atal honetara adibide bat ekarriko dut, Angelaren (izen-goitia) bizitzaren kontakizuna, zailtasun horien inguruan hausnartu eta zenbait estrategia edo gako emateko helburuarekin. Asko dira interpretazio lanak ekartzen dituen zailtasunak eta, kasu honetan, hiru dimentsiotan jarri nahi dut arreta. Lehenik, elkarrizketaren esperientzian bertan hautematen diren sentsazio eta intuizioak gordetzearen garrantzia azaltzeko erabiliko dut adibidea. Hasierako kontaktutik, Angelak jarrera aktiboa erakutsi zuen elkarrizketa gidatzerako orduan eta jarrera hori, nahiz haren zergatiak, bizitza-istorioaren azterketan eta interpretazioan kontuan hartu beharra ikusi nuen. Ondoren, analisi prozesuan, informazio hori nola osatu nuen azaldu eta elkarrizketan bertan agertzen ez diren zenbait elementuk bertan esaten dena interpretatzen nola lagun gaitzaketan ikusiko dugu. Azkenik, adibide honen bitartez dokumentu-mota hauek interpretatzerakoan eta artxibatzerakoan sor daitezkeen arazoei buruzko hausnarketa bat egin nahi dut. Elkarrizketaren eta transkripzioaren ondoan elkarrizketaren eguneroko edo txosten bat gorde beharra ere azpimarratu nahi dut, etorkizuneko interpretazioetarako baliagarria izan baitaiteke.

### *3.1. Elkarrizketen kontrola eta pasarte esanguratsuen interpretazioa*

Angelaren elkarrizketa 2011ko maiatzaren bostean izan zen, Tolosan (Gipuzkoa), Tolosako Udaleko Berdintasun Sailaren beka batekin egindako ikerketa baten

esparruan. Beka horretara aurkeztutako proiektua Tolosan lehenengo frankismoan emakumeen identitatea eraikitzeari buruzkoa izan zen, eta nik neuk egin nuen, lan-kide batekin batera. Elkarrizketatuek Tolosa herrikoak izan behar zuten eta laurogei urte edo gehiagoko emakumeak bilatzen genituen. Hasieran, ezagun gutxi genitue-  
nez herrian, Udaleko langileengana jo genuen lehen kontaktuak lortzeko asmoz. Kultur Etxeko langile baten bidez izan genuen Angelaren berri. Bertan ematen zi-  
ren zeramika-ikastaroetara joaten zelako ezagutzen zuen eta elkarrizketatu interes-  
garria izan zitekeela esan zigun. Elkarrizketatuekin kontaktuak irekitzen dizkiguten  
pertsone horiei *atezainak* deitzen zaie, harremanetan jartzeaz gain konfiantza eta  
bermea eman diezaguketen pertsonak dira (García-Orellan 2012, or. 70). Hurren-  
go egunetan, udaleko langileak berak azaldu zion gure proiektua eta elkarrizketak  
egiteko prest egongo litzatekeen galdegin zion. Angelak baiezkua eman eta harekin  
kontaktuan jarri ahal izateko telefono-zenbakia eman zion. Halaber, laurogeita hiru  
urte zituela jakinarazi zigun, bilatzen ari ginen profileen sartzen zen, beraz.

Jaso genuen kontaktua telefono mugikorreko zenbaki bat izan zen, ezohikoa  
1928an jaiotako pertsona batean, eta pertsona aktibo eta kurioso bat izan behar  
zuela susmatzen genuen. Izaera aktibo hori agerian geratu zen telefono bidezko  
lehen kontaktuan, ahots eta izaera irmoarekin erantzun baitzuen. Lehen telefono  
bidezko harremanak hogeitatu minutu inguru iraun zuen eta proiektuaren ezauga-  
rriak azaldu nizkion: Tolosako emakumeen bizimoduari buruz Udalak finantzatuta-  
ko ikerketa batean genbiltzala eta berrogei eta berrogeita hamarreko hamarkadetan  
zentratzen genuela ikerketa garaia. Ondoren, azaldu nion elkarrizketak grabatua  
izan behar zuela gero informazio horrekin lan egin ahal izateko, baina informa-  
zioa konfidentziala izango zela eta haren izena izengoitiarekin agertuko zela lanean,  
identifikatua izateko daturik gabe. Bestalde, elkarrizketak ordu eta erdi eta bi ordu  
eta erdi tarteko iraupena izango zuela azaldu nion.

Aurretik izandako esperientzietan, gai hauek izan ziren telefonozko kontaktuan  
hitz egindakoak, baina, kasu honetan, Angelak interes berezia agertu zuen proiektu-  
aren inguruko informazio gehiago jasotzeko eta behin eta berriz galdetu zuen  
nor zen ikerketaren arduraduna eta zer harreman genuen Udalarekin. Azaldu nion,  
beste behin, emakumeek herriaren historian izandako parte-hartzeari buruzko beka  
bat zela, lehiaketara atera zena eta guk ikerketa egiteko beka lortu genuela. Angela  
mesfidati zegoela zirudien, esaten zidan arraroa iruditzen zitzaioela Udalak horrelako  
zerbait egitea, eta Alkatetzatik zetorren zerbait ote zen ere galdetu zidan. Orduan ez  
nuen ulertzen mesfidantza horren zergatia.

Labur esan zidan, halaber, aurretik elkarrizketa bat egin zuela eta gogorra izan  
zela berarentzat; izan ere, hasiera batean elkarrizketa soil bat izan zena gero herrian  
emititu zen dokumental bihurtu zen, eta emisiorako baimena eskatu bazioten ere,  
elkarrizketa egin zenean ez zekien jendaurrean erabili eta azalduko zenik. Nik eran-  
tzun nion gure kasuan audio grabagailua bakarrik erabiliko genuela, bere irudia ez  
zela grabatuko, eta, gainera, ezizen bat erabiliko genuela, eta, beraz, anonimotasuna



bermatuta egongo zela. Informazio hori eman ostean, hitzordua jartzea geratzen zen; bere etxean edo hainbatetan joaten zen Kultur Etxeko gela batean egitea proposatu nion eta hark nahiago izan zuen Kultur Etxean bertan egin. Elkarrizketarako hitzordua adostu genuen eta hor amaitu zen gure lehen kontaktua.

Hitzartutako ordua baino lehen, Kultur Etxetik igaro eta elkarrizketa egiteko gela prest utzita, sarreran elkartu ginen. Lehen kontaktua erlaxatua izan zen, bertan egiten zituen tailerrei buruz hitz egin genuen pixka bat eta lehen solasaldi horren ostean elkarrizketan sartu ginen. Oroitzapenetan sartzeko, bere haurtzaroko jolasetatik hasi ginen eta elkarrizketa modu arin eta atseginean hasi zen, Angelak erantzun zabalak ematen zituen eta narrazioarako gaitasun handia zuela argi geratu zen hasieratik.

Elkarrizketan zehar aurrekoetan agertu ez ziren gaiak buruz hitz egin zuen, eta hain justu jorratzeko zailak ziren gaietan sakondu zuen gehien bat, hala nola apaizen abusuetan, abortuan edo sexu-harremanetan. Gai hauek gure interesekoak zirenez eta elkarrizketa gehienetan agertu ez zirenez, hizketaldia sentsazio honekin amaitu nuen. Dena den, oso informazio mamitsua lortuta ere, zerbaitek ihes egin zidanaren sentsazioa nuen. Inpresio hori areagotu egin zen elkarrizketaren amaieran, berriro hitz egin baitzidan aurreko elkarrizketak eta ondorengo jendaurreko aurkezpenak ekarri zizkion zailtasunez.

Elkarrizketa amaitzerakoan, datu guztiak biltzearekin batera, uste hauek ere gorde egin nituen landa koadernoan. Ondoren, transkribapena egiterakoan eta analisisan alderdi hori kontuan hartu nuen, bere aurreko esperientziak narrazioan izan zuen eragina identifikatzea ezinbestekoa iruditu baitzitzaidan kontatutakoa modu egokian interpretatzeko. Kasu honetan alderdi hori nola arakatu nuen azalduko dut, jasotzen ditugun narrazioen interpretazioaren konplexutasuna erakuste aldera eta beste kasu batzuetarako lagungarri izan daitekeelakoan.

### 3.2. *Analisiaren dimentsio anitzak, esandakoaz harago*

Narrazioa aztertzerakoan, konturatu nintzen aurreko elkarrizketari buruzko aipamenak modu sotilean agertzen zirela elkarrizketaren hainbat unetan, gehiegi azaldu gabe, baina aditzera emanez kontaktetan zehar gogoan zuela aurreko esperientzia. Adibidez, mezetara joateko derrigortasunaz ari zen unean, jarrera hori bere nortasun errebeldearekin lotzearekin batera, azalpen hauek aurretik izandako elkarrizketaren erreferentziarekin lotu zituen:

«Ni hainbeste... bueno, izandu naiz *bastante*, *bastante* liberala e... beti izandu naiz apaizan kontrakoa... Bai, zeatiken nik ein non lehenon entrebista bat, *caro*, baina bueno... netzako apaizak izandu die...*los mayores terroristas*, netzako».<sup>13</sup>

Elkarrizketaren zati oso esanguratsua da, lehen aldiz agertu baitzen aurretik egin dako elkarrizketaren erreferentzia. Hamar minutura agertu zen iruzkin horretatik hasita (bi orduko elkarrizketa batean), narrazioan apaizen portaerei buruzko komentarioak etengabe agertzen ziren eta sarri kontatzen ari zen bizipen zehatzarekin

lotura zuzenik izan gabe agertzen ziren. Bi elementu hauek informazio baliagarria ematen digute bere testigantza interpretatzeko. Alde batetik, argi geratzen da aurreko elkarrizketa buruan zuela eta kontakizuna baldintzatzen ari zela eta, bestalde, elkarrizketa hori aipatzean apaizen eta Elizaren inguruko kritikek protagonismoa hartzen zuten. Orokorrean, narrazio guztian zehar, agerian geratzen zen Eliza eta, batez ere, apaizekiko kritika nabarmendu nahi zuen zerbait zela eta aurretik hausnartutako jarrera eta kontatzeko nahi bat zuela. Nabari daiteke aurreko esperientziaren ondoren bere testigantzari buruzko gogoeta egin zuela, eta elkarrizketa hasi baina lehen kontatuko zidanari buruzko erabakiak hartu zituela.

Lehen aipatu bezala, erreferentziak elkarrizketa osoan agertzen ziren, baina elkarrizketa amaieran azaltzen ziren gehien. Une horretan kontatu zizkidan aurreko elkarrizketan sortu zitzaizkion arazoak; izan ere, hasiera batean ez zuen jakin elkarrizketa jendaurrean erakutsiko zenik eta inolako filtro gabe hitz egin zuen. Ondoren jendaurrean azaltzea bizipen zaila izan zen berarentzat, honela azaltzen du:

«Nahiko gogorra ein tzitzaidan, zeatik ordun bastante sartu nitzen asuntoan ta herriko gauzakin eta familiariko gauzakin ta hola. Ta geo atea zien *al público*. Baino bueno, nik uste det nahiko ondo hartua izan zala eta nahiko esperientzi... esperientzia. [...] *Claro*, apaizakin bastante sartu nitzen, egia esan, hoi izan da nere istorie ta, bueno, ze esangoizut, eh? Baino bueno, baino nik uste diferentea in nula... *es que ... zaila da, e! Da una historia un poco complicada*, eh? Zeatik askok ez due gañea atea nahi ta... ze ni, *por ejemplo*, hemen atea nintzanen, [...] ba jun tzan telebista ta dana jun tzan, *sacaron argazkis y toda la historia*. [...] Baino, *caro*, nei esan tzian “hau hemen geldittukoa” ta hola, baino geo atea zan, geo permisoa eskatu ziguen, eh!».<sup>14</sup>

Interesgarria da aurreko elkarrizketari buruz egin zuen hausnarketa, esanez (eta, aldi berean, bere buruari esanez) oraingoan desberdin egin zuela, ez zuela izenik eman. Horrek arrasto bat ematen dit sumatzeko narrazio osoan zehar Angelak esaten zuen horri erreparatzen ziola, inor identifikatzeko moduko izenik edo deskribapenik ager ez zedin, zaila dena kontrolatzea norbait oroitzapenean guztiz murgilduta dagoenean. Ardura hori aurreko esperientzia negatiboaren ondorio izan zen, familiako eta herriko pertsonen izenak emanez hitz egin baitzuen, eta hori izan zen, hain zuzen ere, bere lekukotasuna jendaurrean ikusgai jartzean gehien zaildu zitzaion alderdia. Aurreko esperientzia horrek kontziente egin zuen ondoren esandakoaren kontrola galduko zuela, eta, beraz, bere testigantza kontrolatzeko saiakerak elkarrizketaren nondik norakoa zehaztu zuen. Argigarria da, adibidez, une jakin batean pertsona bat bere izenez aurkeztu zuela, Langarica. Garizuma-predikari bat zen hura, Gipuzkoako biztanleek sermoien diskurtsoetan zuen gogortasunagatik gogoratzen dutena, eta Tolosa ere bisitatu ohi zuena. Kasu honetan, azpimarratzen zuen izen hori jar nezakeela, hau bai, eta bere izena errepikatzen zuen argi gera zedin: «baino bueno, hoi bai dakazutela jartzea, Langarica zun izena, eh! Lan-ga-ri-ca!». Angela ez zegoen oroitzapenean bakarrik zentratuta, bere hitzek izan zezaketen oihartzuna ere kontuan hartzen zuen.

Bestalde, elkarrizketaren momentutik, deigarria egin zitzaidan zenbat azpimarratzen zituen apaizen gehiegikeriak, egin zituzten ekintza arbuigarriak. Apaizen kritikak kontakizun osoan zehar agertzen ziren, eta aztertzen ari zen gaia edozein zela ere, gai horretara desbideratzen zuen. Alde batetik, berak bizi izandako esperientzia gogorak daude, instituzio honek diziplinazko zigorrak ezarri baitzizkion protagonistari gaztetan. Angelaren izaera intsumisoak eta esperientzia latz haiek Elizak eta, batez ere, apaizek garai hartan egindako gehiegikeriak salatzeke nahia eta ardura ekarri zizkioten. Beste alde batetik, elkarrizketaren ondorengo hausnarketetan ere jarrera hori hobe ulertzeko gako gehiago jaso ahal izan nituen. Momentu horretan, dokumentalean parte hartu izanari buruzko kritikak jaso zituela kontatu zidan, batez ere, kideetasun handiena duen gizarteko segmentutik. Elkarrizketa egin baina egun batzuk lehenago, ezagutzen ez zuen mutil gazte batekin topo egin zuela kontatu zidan, eta dokumentalean parte hartzeagatik zoriondu zuela. Bere testigantza goraipatze horretan apaizen aurrean zuen jarrera azpimarratu ziola ere esan zidan:

paperen eskakizunarekin eta guardia zibilaren (Espainiako Estatuan) edo karabine-  
roen (Frantziako aldean) etengabeko kontrolarekin batera (Perales, 2004:63-65).

Aurrekoa esanda, Jose Antonio Perales Diazek Pirinioetako muga modernoa lau  
puntutan laburbiltzen du: Lehenik eta behin, Pirinioetako muga prozesu historiko  
baten emaitza da, Nafarroa zatitzetik (1529-1530) Baionako Itunera (1856-1866)  
doana, eta, lehen, hainbat hitzarmen eta itun, hala nola, Pirinioetako Ituna, Eli-  
zondoko Ituna eta Lege Itundua egin ostean. Bigarrenik, muga geometriko bat  
da, zientifikoa, zehaztasunez mugatua eta polizia-kidegoek zaindua. Hirugarrenik,  
muga elementu arrotz, artifizial, kanpoko eta mendiko komunitatearen gaineko  
indarrari ezarritako elementutzat har daiteke, Pirinioetako mugako bi aldeetako  
ingurune ekologiko eta funtzionala desitxuratzen baitu. Ondorio gisa, laugarrenik,  
muga arbitrarioa eta problematikoa antzematen du, Pirinioetako haranekiko bide-

gabetzat hartuz. Horrela, Floristan Imizcozek muga artifizial bat zela aldarrikatu zuen, neurri handi batean larreetan oinarritutako komunitate tradizionalak zein horien lotura sekularrak, komertzialak eta bizi-loturak abiatzen zituena (Perales, 2004:85-89).

Baiona Itunaren ostean finkatutako muga berria funtsezko mugarria da Nazio-estatu berriaren eraikuntzan, baina Wiliam Douglasek esan zuen bezala, gutxitan mugek esanahi bera hartzen dute Estatuaren barruan bizi direnentzat eta mugako biztanleentzat. Horrela, esan daiteke mugaketa modernoak estatu zentralen arteko akordio baten ondorio baino ez dela, eta, beraz, funtsean interes eta irizpide politikoetan oinarritzen dela. Hala ere, tokiko mailan, hainbat oztopo eta zailtasun planteatzen ditu mendialdeko biztanleentzat, kasu honetan Mendebaldeko Pirinioetako komunitateentzat (Perales, 2004:68-69).

Jose Antonio Perales Diazen arabera, mugak mugako komunitateengan izan zituen ondorio negatiboak hiru puntutan laburbil daitezke: lehenik eta behin, muga modernoak mugako komunitateen batasun etnikoa eta linguistikoa haustea eragiten du; bigarrenik, muga nazional administratiboak Pirinioetako beste aldekoekin existitzen den auzotasun-sare tradizionala ez ikusia egiten, zailtzen edo ukatzen du, sare hori arduratzen baita espazio tradizionalak antolatzeaz, eta Pirinioak Pirinioetako haranez osatutako unitate bakarra bihurtzen duelako; eta, hirugarrenik, mugak bi estatuen periferia markatzen du, aurreko urteetan dinamikoa eta indartsua izan zen espazioa, azpigarapen gunea izatera gaitzestuz (Perales, 2004:111).

Mendebaldeko Pirinioetako eremu alpinotan (batez ere Erronkariko eta Zaraitzuko ibarretan), muga nolabait onartu zela esan daiteke, eta, ondorioz, enkultazio-prozesua (espainiaritasun-prozesua) nabarmenagoa izan zen. Aztertuko dugun Pirinioetako gunearen muga modernoaren ezarpenaren ondorioak honako hauek izan ziren: Alde batetik, Iparraldearekin zegoen harreman bizia murriztu zen bitartean, adibidez, Nafarroako haranek Zuberoarekin zuten harreman estua eta aspaldikoa, Hegoaldearekiko loturak indartu ziren, hau da, Nafarroako Erriberarekiko harreman tradizionalak indartu ziren, bai Bardearekin, transhumantziaren bidez, bai Ebro bailararekin, almadien jaitsieraren bitartez. Bestetik, eta emakumeak mugaurreko ezaugarrien iraupenean duen garrantzia erakusten duena, Pirinioetako bi aldeak lotzen zituen hizkuntzaren (euskararen) atzerakada gertatzen da. Azkeneko honek, nazionalismo zentralistaren gorakada ez ezik, gizarte tradizionalaren oinarri den genero-desberdintasuna ere erakusten du, hau da, Pirinioetako komunitate paternalista horietan, non emakumea gizonaren mende zegoen, espainiera maskulinoarekin, prestigioarekin eta aurrerapenarekin lotu zen, eta bitartean euskara etxeko esferan, irudi femeninoan eta desagertzera bideratutako zerbait arkaikoa izatearen ezaugarria eman zitzaion (Perales, 2004:214-215).<sup>4</sup>

Esandakoa ere, muga modernoaren aurretik, Nafarroako ipar-ekialdean adostasun bat zegoen Pirinioak oztopo-efektu gisa erabiltzen zuen irudiari buruz; hala ere, mugako haranetako bizimoduaren zailtasunek eta gogortasunak sendotu egiten



zuten komunitate mugakideen arteko mendekotasuna. Pirinioen bi aldeetako komunitateen artean zegoen anaitasunaren eta elkarri laguntzeko beharraren adibidea aztertuko den Frantziara espartin industrian lan egitera zihoazen Nafarroako eta Aragoiko emakume gazteen aldi baterako migrazioa izan zen.

## 2. Emakumeak landa-eremuan duen rola eta industrializazioak sortzen duen aldaketa

Landa-eremuari eta -komunitateei buruzko ikerketak 50eko hamarkadan hasi ziren, eta 60-70 urteen artean izan zuten momentu gorena. Bertan, antropologia, soziologia eta historia bezalako hainbat arlotan sakon aztertu zen landaren inguruan (Barron, 2022:51). Encarnación Aguilarrek adierazten duen bezala, landa-eremua aztertzeko interesa Pirinioetako ibarretako biztanleriaren galera bizkorrarekin bat etorri zen. 60ko hamarkadan, industria eta kapital-inbertsioak Iruñeko arroan kontzentratu ziren, merkatua eta zerbitzuak bilduz, eta horrek eskulan handia erakarri zuen (Barron, 2022:98-99). Hiri-arloaren aldeko apustu horrek landa-eremuko exodo-prozesua bizkortu zuen, eta landa-eremuko emakumeak protagonismo berezia izan zuen. Fenomeno horren ondorioz, eremu horietan gero eta maskulinizazio eta zahartze handiagoa garatuz joan zen (Barron, 2022:13). Hala ere, ikerketen hasierako hamarkadetan landa-ikasketak gatazkarik gabeko komunitate homogeen baten ideian murgiltzen ziren, non zereginak modu ekitatiboan banatuta geratzen ziren eta generoari buruzko aipamenak urriak ziren, emakumea etxeko ekonomiari lotuta bakarrik aipatua izanda (Barron, 2022:64).

Nekazaritzaren ikasketek, landa-ingurunearekin zerikusia duen guztia hartzen duen termino gisa ulertuta, protagonismoa galdu zuten gizarte-zientzietan 80ko hamarkadatik aurrera, hori, lehen aipatutako nekazaritza eta abeltzaintzaren modernizazio- eta industrializazio-prozesuaren ondorio izan zen, nekazaritza buruaskia izatea galarazi eta orokorrean landaren gainbehera ekarri zuen prozesua (Barron, 2022:53-54). Hala ere, 70eko eta 80ko hamarkadetan, Erresuma Batuko, Europako eta Estatu Batuetako ikertzaileak emakumeek eta gizonek nekazaritzako etxeko unitateetan betetzen dituzten roletan arreta jartzen hasi ziren. Orduan nabarmentzen hasi zen emakumeak familia-esplotazioaren biziraupenean egiten duen ekarpena; izan ere, emakumeak ugalketa-funtzioa betetzen du etxe barruan, eta, horrez gain, funtsezkoa da produkzio-eremuan. Hala ere, 90eko hamarkadara arte, hau da, azterketa-arlo guztietan irakurketa feministak sartu ziren arte, ez zen argi geratu genero-ikuspegia landa-komunitateetako azterketa-eremuetan sartu behar zela, garapena eta aldaketa sozialak zein ekonomikoak modu zuhurrez ulertzeko (Alastuey, 2013:64).

Landa-eremuko azterlanen garapena genero-ikuspegian oinarrituta labur-labur azaldu ondoren, esan beharra dago, Nafarroako eta Aragoiko Pirinioetako emakumeen kasuan, baita beste leku askotan ere, adibidez gero aztertuko den gaur egungo Boliviako aymaren kasuan, emakumeen lana isila eta isildua izan zela hasiera-hasie-

ratik. Hau esan arren, ez dago nekazaritzako komunitate tradizionalak genero-sistemarekiko erresistentziarik izan zutenaren seinalerik.

Esandako ideiak bere denbora-tartearen barruan ulertu behar dira, nekazaritza-eta abeltzaintza-komunitate baten barnean, non lana (ugalketa zein ekoizpen lana) familiako kideek sostengatzen zuten eta familia-unitatearen biziraupenera bideratuta zegoen (Alastuey, 2013:37). Horregatik, hasteko, ugalketaren/pribatuaren eta ekoizpen/publikoaren arteko bereizketak ez du zentzurik landa-ingurunean emakumeak egiten duen lana aztertzerako orduan (Alastuey, 2013:106). Hala ere, bi terminoak erabiltzea komeni da, okerra baita pentsatzea familia-lanen banaketa lausoa eta iragazkorra zela; izan ere, emakumearentzat bi eremu horiek bat egiten zuten familia-horniduraren betebeharrarekin, baina, gizonak aldiz ez zuen inolako ugalketa-lanik egiten. Era berean, industriaurreko garaian, emakumeen eta gizonen zereginak debeku-sistema batean egituratuta geratzen ziren, horren arabera, migrazio ziklikoaren komunitatearen barnean, emakumeak ez ziren ez artzainak, ez almadiazainak, eta ez zuten zuhaitzik mozten, besteak beste (Alastuey, 2013:50). Dena den, Elvira Sanz Tolosanak dioten bezala, nekazaritza- eta abeltzaintza-gizarte tradizionaletako emakumeak ordaindu gabeko lanordu luzeetara kondenatuta zeuden, emakumeak ez baitziren etxeko esparrura mugatzen, horri nekazaritza eta abeltzaintzako zereginetan «laguntza» ekonomikoa ematea gehitzen zitzaion, modu honetan, soilik familian eta familiarentzat lan eginez biziz (Alastuey, 2013:23). Baina, emakumeen lana inoiz amaitzen ez bada ere, inoiz ez dira langile gisa onartzen, azaltzen duena emakumeek eskubiderik eta parte-hartze sozialik ez edukitzea (Alastuey, 2013:44-45). Barbara Adamek dioten bezala, diruarekin balioztatu ezin den lana zuzenean boterearen gabeziarekin eta ikusezintasunarekin lotzen da (Alastuey, 2013:39).

Landa-eremuan lana egunerokotasunaren muina zela ulertuta, esan daiteke emakumea zikloka bizitzeko sozializatuta zegoela, belaunaldiz belaunaldi, ezkontzan, etxearen zaintzan eta amatasunean oinarritutako emakumeentzako lanak indartu eta transmititzera zetozen zikloak (Alastuey, 2013:55). Gaztaroan bakarrik, une batzuetan, emakumeek askatasun-ñabardurak izan zitzaizketen eguneroko bizitzako erantzukizunak eta betebeharrak aisialdi tarteekin sosegatuz. Hau jakinda, ez da ustekabekoa emakume ezkongabeak espartin-fabriketan lan egiteko gizarte-sektore egokitzen hartu izana (Ainarak, 2021).

Hau ulertuz, biziraupen-ekonomia krisian sartu zenean, eremu publikotik bota zuten lehen agentea emakumea izan zen, eta emakumearen lanaren balio-galera hori landa-eremuaren exodoaren, zahartzearen eta maskulinizazioaren txinparta izan zen (Alastuey, 2013:108). Sarreran esan bezala, emakumea bigarren mailako langilea zela ulertuta, industrializazioak «zapalkuntza bikoitzean» murgildu zuen emakumea, bai familian eta baita sistema kapitalistan ere (Barron, 2022:51). Gainera, landa-eremuko emakumeek joera handiagoa dute lan etenak eta zatikatuak betetzeko, zaintza-lanak egiteko lehenetsuna dutelako, hortaz, hiriguneetan bizi

diren emakumeekin alderatuta, okerrago ordaindutako lanak izaten dituzte, eze-gonkorragoak eta gain-kualifikatuak (Barron, 2022:68).<sup>5</sup>

Hala ere, ez da egokia mendekotasun patriarkaletik askatzeko ideia ainaren kasuari aplikatzea. Izan ere, 1850 inguruan hasitako mugaz haraindiko migrazio-prozesua, baliabide naturalen eta Pirinioetako komunitateko kideen arteko orekari eusteko estrategia baten parte izan zen. Hau da, gizonen neguan transhumantzia eta almadiak Erriberara egiten zituzten bezala edota Frantziara egurgile moduan, Violant i Simorrak aipatzen duen neguko «denbora hila» aprobetxatzeko, emakume gazte askok Mauleko espartin-fabriketara emigratzen zuten (Barron, 2022:97). Gainera, gazteek etxetik ateratzeko izan zuten askatasuna ezin da ulertu oinordeko bakarraren figuraren (maiorazkoa) mantentzea kontuan izan gabe, XIX. mendean, Pirinioen Espainiako alderdian, bizi zuten presio demografikoaren ondorioz mantenduta, modu horretan, «bigarren mailako neba-arrebak» lanera kanpora bidaltzen zituzten, neska gazteen kasuan, neskame edo, aztertuko dugun bezala, Pirinioez bestaldeko langile gisa frantziarrek betetzen ez dituzten lanpostuetara.

Era berean, europar kontestu orokorrean, migrazioak europar populazioen ezau-garri garrantzitsua ziren industrializazioa baino aurreko urteetan, batez ere etxalde tronkaleko eremuetan (Pirinioetan esaterako), eta horien barrenean ezkondu aurreko gazteen migrazioek garrantzi handia zuten. Honi Peter Laslettek «gazteen zirkulazioa» (*life cycle servant*) deitu zion, eta horrek suposatzen zuen neska-mutil gazte asko beste etxe batzuetara joan egiten zirela zerbitzari moduan lan egitera, landa eremuan zein hirietara ere bai. Hortaz, pentsatzekoa da, ainarak migratzen hasi zirenean arrunta zela adin gutxiko neskek haien etxea uztea denboraldi edota urte batzuetarako, batez ere hirietan zerbitzari lanetan aritzeko.

### 3. Emakumeen migrazioa

Migrazioaren fenomeno konstante bat izan da historian zehar, horregatik, azterteta-diziplina askok aztertu dute (antropologian, soziologian eta historian besteak beste). Gaur egun, oro har, Europako herrialdeak populazioa hartzen duten herrialdeak badira ere, joan den mendeko 80ko hamarkada baino lehen, Espainia biztanleria kanporatzen zuen herrialdea izan zen aztertuko denez. Migrazio-mugimendua aztertzekeo interesa areagotu egin da joera alderantzikatu egin delako eta Amerikaren Aurkikuntzaren V. Mendeurrenaren oroitzapenak (1992) ere zerikusi handia izan du, bai Espainia mailan, bai Nafarroako migrazio-ikasketetan (ALTER Grupo de investigación, 2009:23). Hala ere, migrazio-mugimenduak gizakiarekin historiaurretik lotuta egon badira ere, oraindik asko dago lekualdatze sozialen inguruan ikertzeko, eta migrazioan oraindik ere emakumea ikusezin geratzen da, askotan figura maskulino bati laguntzeko eginkizunera mugatuz. Horrela, 90eko hamarkadara arte, emakumeen migrazioa «laguntzailearen emigratio» gisa katalogatu zen, eta, hori, lana sexuaren arabera banatzearen ondorio da; horrela, emakumea ugalketa-jarduera pribatuei eta gizonari produkzio-zereginei, beraz espazio publi-

koari, lotuta geratzen da. Hau da, migrazioak gehienetan lan-arrazoiekin bat egiten duenez, orokorrean teoria ekonomizista eta erredukzionistetarako joera egon da, emakumeen emigrazioa gizezkoenaren parekotzat jotzen dutenak.

Pirinioen aro garaikideko migrazio-prozesuen barruan, Espainiatik Frantziarako migrazioan, Gerra Zibilearekin eta, ondorioz, 40ko hamarkadako exodo errepublikanoarekin lotutako migrazio-mugimendu garaikideei buruzko ikerketak dira nagusi, bai eta arrazoi ekonomikoengatik 60ko eta 70eko hamarkadetan garatutakoak ere. Hala ere, esandakoa jakinda, eta ainararen adibideari jarraituz, Frantzia eta Espainia banatzen dituen mugan dauden herri eta haran periferikoen artean migrazioak egon zirela frogatu eta baliozkotu da, denbora luzez ezezagunak izan direnak. Bide beretik, esan beharra dago, Nafarroatik edo Aragoitik Mauléon-Licharre edo Oloront-Saint Mairie bezalako Frantziako hirietara abiatu ziren gazte asko, beranduago, espartinaren industrian egon ondoren, Argentinara edo Kaliforniara abiatu zirela.<sup>6</sup> Emigrazio horrek, Nafarroako eta Aragoiko Pirinioetatik Frantziara eta, ondoren, Amerikako kontinenteraino, mugaz gaindiko, nazioz gaindiko eta kontinentez haraindiko diaspora bat sortzea bultzatu zuen.

70eko hamarkadan garatutako bigarren olatu feminista, 80-90eko hamarkadako migrazioen feminizazioarekin batera, agerian utzi zuen migrazio-azterlanetan genero-ikuspegia txertatzeko beharra. Horrela ulertuta, genero-ikuspegia aplikatzeak iraganari beste modu batean begiratzeko beharrari erantzuten dio (Ortuño, 2007). «Migrazioa feminizatzea» deitu izan den prozesuari, emakumeak migrazio-mugimenduetan pixkanaka sartzean oinarritzen da, ez soilik gizonen laguntzaile gisa, baizik eta askotan familiaren biziraupenera bideratuta dauden proiektu pertsonaletan oinarritzen den migrazioaren protagonistak bezala aintzakotzat hartuz (Magalhães, 2021).

Emakumeen migrazio-prozesu horrek kolokan jarri zuen muga nazionalaren ideia murriztailea, zeinetan Estatu zentralistak muga gaindiezin gisa ikusten zuen itxitako eta kulturalki estatikoak ziren mugako komunitateentzat. Azaldu dugun teoria ainaren errealitatera bideratuz, sistema kapitalistak mugako eremu horretan zuen globalizazio-nahia Frantziako hegoaldeko hirietako espartin-industrian gauzatu zen. Garai hartan produkzio fordista berantiarra izateak eta bertako langilerik ez izateak, Espainiako isurialdeko Pirinioetako haranetan kokatutako eskulan merke ugariz azkar hornitzeko beharra ekarri zuen eta, horrek, muga beste modu batean ulertzea ekarri zuen, ez bereizketaren sinbolo gisa, baizik eta lotura-espazio gisa.

Pirinioak zubi gisa eta ez hesi bezala ikustearen ikuspegi horri jarraituz, emakumeak, kasu askotan, migrazio-prozesuen protagonista izateaz gain, bi tokiak lotzen ditu, jatorrikoa eta helmugakoa. Emakumeak migrazio-prozesuan duen zama bikoitzez jabetuta, produkzio-lan bat betetzeko helburuarekin abiatzen da, baina ugalketa-betebeharrari jaramonik egin gabe; izan ere, irabazitako guztia «etxeko soldatara» bideratuta dago, jatorrizko tokiarekin erabateko haustura gertatzea eragozten duena; beraz, lekualdatutako emakumei buruz hitz egin beharrean, lurralde anitzez

hitz egitea komeniago litzateke, baita mugaz gaindiko eta nazioz gaindiko etxez ere. Hau da, Frantziara zihoazen ainarei dagokienez, herriaren eta jaioterriaren urtaroko abandonu fisikoak ez zuen esan nahi harreman sozial eta kulturaletatik aldentzea.

Esandakoan sakonduz, nazioz gaindiko migrazioaren beste alderdi garrantzitsu eta erabakigarria identitate berri bat sortzea da, baita errealitate kultural berri bat ere. «Mugaz haraindiko etxebizitzaren» eta «nazioz gaindiko etxebizitzaren» kontzeptuari dagokionez, kontraesana dirudien arren, etxe bat izatearen ahulezia adierazten dute (Magalhães, 2021). Horren ordez, jatorrizko komunitatearen kosmobiosia zehatz-mehatz erreproduzitzen ez duen migrazio-komunitate lauso eta anbiguo bateko kide izatearen sentimendua agertzen da, jatorrizko tokiko elementuak helmugako tokiko elementuekin nahastuz zerbait berria sortzea lortzen baitu.

#### 4. Kasu zehatza: AINARAK

Jarraian azalduko dudan ainaren kasua, gutxi ezagutzen den eta ia ahaztuta dagoen migrazio historiko bat da, kuantitatiboki baliotsua ez izan arren (kontuan hartuz emigratzen zuten gazteak ez zirela 2000 baino gehiago izan osotara), bere garrantzia duena, Pirinioez gaindiko migrazio ugariaren barnean dagoelako, lehen industria-iraultzaren kapitalismoaren hedapenari lotuta egon zelako eta, esan denez, berezitasun aipagarriena, emakume nerabeak protagonistak izan zirelako bi eskualdeen bilakaera markatu zutenak.

##### 4.1. *Lehen urteak*

Espartin-industriaren emigrazioa urtaroen eta mugaz gaindiko emigrazioa izan zen, non, 1850etik XX. mendeko hogeita hamarreko hamarkadara arte, urtean ehunka neska eta nerabek ezkutuan zeharkatu zituzten Pirinioak, adin txikitasuna ezkututuz. Ainaren migrazioa aztertzeko, fenomenoaren espazio-denbora jakin baten barruan ulertu behar da, errealitate sozial batekin eta behar zehatz batzuekin; gainera, arau orokorraren barruan, ez da ahaztu behar gizabanako bakoitzak bere errealitatea duela, eta, beraz, bere pertzepzioak, motibazioak eta behar pertsonalak. Hori esanda, faktore asko daude tartean, eta horietako bat ainaretako askok aldi baterako emigrazioa familia-zurruntasunean, eskola-diziplinan eta elizako autoritatearen etengabeko begiradan oinarritutako gizarte makurtutik askatzeko aukerara bezala ikustea da, bai eta herriarekin eta sortzen ziren esamesekin ere. Arrazoi honi, berritasun gisa, soldata bat jasotzearen erakargarritasuna ere gehitu beharko litzaieke, orain arte haien gutziz ezezaguna zena (Ainarak, 2021).

Sarrera labur honen ondoren, ondoko herrialdetik datorren eskulanaren beharra ulertzeko, bi herrialdeen egoera sozioekonomikoa ulertu behar da.

Frederic Fillat Estaquék dioenari dagokionez, bi aldeen arteko alde izugarria eta Pirinioetako landa-komunitateen krisiaren hasiera, Baionako Mugen Itunei (1856, 1862 eta 1866) lepora dakieke, horien bidez formalizatu baitzen gaur egun arte irauten duten estatuen arteko mugen mugaketa (Capdevila i Subirana, 2009:15). Mugarekin, Frantziako Estatuak, hasiera batean, mendiko eskualdeak indartzearen

eta industrializatzearen aldeko apustua egin zuen. Horren adibide da Maule<sup>7</sup> eta bertan garatutako espartinen industria. Espainiako Estatuak aldiz, Pirinioetako periferiaren indartzeari uko egin zion lehen aldiz, Frantziako berrikuntzen hartzaile eta transmisore izan zitekeen eremua zapuzten saiatuz, mugaz ezartzeaz at, hiriguneekin komunikatzeko sareak hobetzeko asmoak baztertzan (Gorría, 1983:43). Horrek guztiak Pirinioetako landa-eremuetako despopulazioa ekarri zuen, eta, gaur egun, berreskuratzearen aldeko borrokan jarraitu beharreko egoera ekarri zuen.

Esandakoa gorabehera, tratatuaren ezarpenaren hasieran, oraindik ere eutsi egin zitzaizen transakzio komertzialei eta nazioz gaindiko lan-harremanei, eta XIX. mendearen bigarren erdian eta XX. mendearen lehen hamarkadetan bitartean areagotu egin ziren. Hau kontrabandoaren urte gorenetan zein urtaro-migrazio ohikoetan islatu zen, Frantziako industria-hazkundearen eta eskulanaren behararen ondorioz<sup>8</sup> (Gorría, 1983:44).

Antonio Jesús Gorria Ipasek dioen bezala, espainiar egoerari dagokionez, korrelazio bat dago sabai demografikoaren irismenaren eta Pirinioez gaindiko harremanen gorakadaren artean. Horrela, muga eta horrek dakarren estatu-kontrol guztia ezarri ahala, mugaz gaindiko harremanak txikituz doaz, eta, horrekin batera, Pirinioetako haranen dentsitate demografikoa ere murrizten doa (Gorría, 1983:40-42). Hau da, XIX. mendearen bigarren erdian, Mendebaldeko Pirinioetako espazioan (Nafarroako eta Aragoiko Pirinioetako herrietan), izan zen aro garaikideko populazio-tasarik handiena (Erdozain eta Mikelarena, 1998:163),<sup>9</sup> nekazaritza-garapenerako egokiak ez diren eremuetan kokatutako aurrerapen teknikorik gabeko gizartea izanik, populazio-baliabideen desoreka saihesteko, Pirinioetako komunitateek emigrazio iraunkorra (Amerikara) edo urtarokoa (Erriberarako transhumantziaren edo Frantziara lan egitearen kasuak) erabili zuten. Gainera, Frantziara emigratu zuten gazteek, irabazi bikoitza ekarri zuen; izan ere, ingurune fisikoaren gehiegizko ustiapena eta biztanleriaren eta baliabideen arteko desoreka saihesteaz gain, akulturazio-kanalak ere izan ziren. Akulturazio-kanal horien bidez, berritzeak egin ziren, bai teknikoak bai kulturalak, Espainia aldeko Pirinioetako komunitateen bizitza arindu eta hobetzen zutenak, jarduera ekonomikoak lehen sektorerara mugatzen baitziren (Gorría, 1983:42).

Laburbilduz, kontzeju-etxeetako iragarki-taulen bidez eta Pirinioetako bi aldean artean lehendik zeuden familia-loturen bidez egindako laguntza-deiari erantzunez, mugaz bestaldeko espartinak iristen hasi ziren.<sup>10</sup> Horri esker, esan daiteke Maule espartinaren munduko hiriburua bihurtu zela (Hualde, 2020:48). Berehala, tokiko-, artisautzako-, banakako- eta familiako-ekoizpenari lotutako ekonomia itxitik, nazioko eta munduko merkataritzara igaro zen, kate-lanean eta teknologia eta makineria modernoz hornitutako lantegietan oinarritutako fordista lan batera (Hualde, 2020:24). Hala ere, nahiz eta kontinentez gaindiko merkataritza-zirkuluetan sartu, denboran zehar ez ziren aldatu ez oinarrizko teknikak ez hasierako lantokiak (Inchauspé, 2001:70).

Emigratzen zuten emakume gazteen adin txikia ulertzeko beste alderdi garrantzitsu bat bizi-itxaropenaren tasa da. Orduan, heriotza-tasa oso handia zen eta, kasu askotan, gazte askok oso goiz ezkontideetako bat galtzen zuten edota umezurtz geratzen ziren oso adin txikietan. Hori dela eta, nolabait, Frantziara joan behar izaten zuten bizirik iraun ahal izateko. Era berean, neguan kide bat espartinera bidaltzen zuten familiak bi aldiz hornitzen ziren; izan ere, emakume gazteak lortuko zuen soldataz gain, ainarak Frantzian egoteak etxean aurreztean esan nahi zuen (Hualde, 2020:31). Hala ere, neska gazteak gurasoen edo elizaren baimena zutenean bidaiatzen zuten (Inchauspé, 2001:19) eta, gehienetan, aurretik gomendio-gutun bat egoten zen ere (Inchauspé, 2001:98). Honek frogatzen du migrazioa gehienetan ez zela neska gazteen erabakia.

Hitz gutxitan, Frantziara joateko arrazoiak hirutan laburbildu daitezke: lehen esan bezala, familia apaletan, aldi baterako emigrazioa beharizan ekonomikoekin lotzen zen.<sup>11</sup> Aldi berean, ikuskera soziokultural beraren barruan, gazte askoren helburu nagusia pixkanaka haien ezkontzarako ostilamendua sortzen joatea zen. Azkenik, horietako batzuk abenturan murgiltzen ziren, lagunek edo ahaideek zekartzaten berrikuntzak ikusi ostean eta nolabaiteko autonomia lortuz diziplina sozialetik zortzi hilabetez urruntzea lortzeko itxaropenarekin (Hualde, 2020:36).

Aurrekoa esanda, kontuan izan behar da migrazio-prozesu dinamikoa dela, hau da, *ainara-sarea* odol-ahaidetasunera mugatzen da hasieran, emigratzen duten neskek senideengana joaten ziren (Inchauspé, 2001:76). Gero, espartinaren eskaria handitu ahala, hasierako gazteak haien herriko edo inguruko herrietako pertsonekin batera joaten joan ziren eta, horren ondorioz, alegiazko ahaidetasun bat sortu zen, gela baten truke «ohe eta zopa» bidezko alokairuan edo etxeko lanen laguntzan (arropa garbitzean edo haurrak zaintzean) oinarritua (Inchauspé, 2001:95-98). Horrela, oro har, emigrazioaren kontzeptzio deterministatik (jatorrizko gizartearen baldintza txarrei estuki lotutako emigrazioetik), emigrazioaren ikuspegi positibora igarotzea (Frantziako emakume gazteek ekartzen zituzten opariak eta kontakizunak ikusita, bertatik bertara bizitzeko gogoia pizten zaien haurren jakin-minera), baieztatu daiteke. Beraz, nahiz eta kasu guztiei aplikatu ezin izan, neskatila asko espartinera joan ziren etxeko ekonomiari ekarpena egiteko baita mundua ezagutzeko jakin-minak bultzatuta ere.

#### 4.2. *Harrera*<sup>12</sup>

Esan bezala, Nafarroako eta Aragoiko gazteak urtero etxeetan hartu zituzten. Hasieran, familiakoak ziren, eta neguak igaro ahala, etxe askotan gordetzen zuten «logela bat Espainiakoentzat». Baldintzak oso onak ez izan arren eta pilaketa ohikoa izanik ere, norberaren jaiotetxean baino egoera hobea zutela adierazi izan zuten ainara askok (Hualde, 2020:51); izan ere, Nafarroan eta Aragoian, bizi-baldintzak eskasak ziren eta lan-aukerak urriak, are gehiago emakumeentzat. Azaldu denez, landako emakumea ezkondu ondoren, etxearen eta familiaren zaintzapean gera-

tzen zen, horregatik, ainararen batek Frantzian ikusi zuen zerbitzari gisa lan egiteari uzteko modua. Gainera, batzuetan dirua alokairua ordaintzeko iristen ez zitzaieenez, fabrikako lana Frantziako familia dirudunen seme-alabak zainketa edo arropa josteko- zein garbiketa-lanarekin bateratzen zuten (Inchauspé, 2001:100). Honi lotuta, denborarekin, ainara batzuen finkapena ugalketa-jarduerekin lotutako beste emigrazio-modu batzuetara eraman zuen<sup>13</sup> (Inchauspé, 2001:23).

Hasierara itzuliz, espartin-industriaren lehen urteetan, bertakoak, batez ere fabriken jabeak, laguntza-deiari erantzun zioten neskei ahal zuten guztian laguntzen saiatu ziren. Horrela, kasu askotan, enpresa-liderrek emakume gazteekiko zuten jarrera nahiko paternalista izan zen, eta ostatua aurkitzea zaila egiten bazitzairen (gehienetan bidaia egin aurretik Frantzian geratu behar ziren ostatua itundua zeukaten), fabriketako nagusiak ziren haien izenean aurpegia ematen zutenak (Inchauspé, 2001:100).

Espartinaren ekoizpenaren industrializazioaren ondorioz, iritsi berriek estatus berria lortu zuten, ordura arte aitortu ez zitzaiena: Emakume gazteek «langileak» izendatuak izan ziren. Horrek esan nahi zuen, lan egiteagatik soldata bat izateaz gain, lan-eskubide jakin batzuk izango zituztela, eta, horren barruan, ordutegi zehaztu bat. Hala ere, esan bezala, lan-baldintzak kaltegarriak izaten jarraitu zuten,<sup>14</sup> baita, lanaldi luzeaz gain, egiten zituzten espartin pareen truke kobratzen zutela<sup>15</sup> kontuan hartuta, neska gazteek etxera eramaten zuten lana, «muturrak eta orpoak» esaten zitzairen lan.

Fabriketan, kanpokoen eta bertakoen artean desberdintasun agerikoa izan arren, elkartasun eta laguntasun nabarmenez hitz egin daiteke, batez ere Pirinioez bestaldetik zetozen neska gazteen artean. Horrela, komunitate tradizionalaren jarrera komunitarioari eusten zioten, txikitatik barneratuta baitzeukaten buruan.<sup>16</sup> Ildo horretatik, Nafarroako eta Aragoiko komunitateetan analfabetismo-maila handia zela kontuan hartuta (Inchauspé, 2001:104), eta eskola oso gazte uzten zutela kontuan izanik, familia-laguntzari lotutako erantzukizunei erantzuteko, elkarki emandako laguntzari esker, ainara batek baino gehiagok Frantzian irakurtzen eta idazten ikasi zuen, honekin esan daiteke amaitu gabeko ikaskuntzak *ainara-etxeetan* jarraipena zuela handitzen zen *ainara-sareari* esker (Inchauspé, 2001:74). Indartzen joan zen nesken arteko elkartasun-zirkulu hura, esaterako, amen zama bikoitza arintzeko Madabe Bidegainek haurtzaindegi bat sortu zuen (Inchauspé, 2001:151).

Era berean, Frantzian komunitate migratzailearen eragin-eremua denborarekin handitu egin zen, batez ere Haute-Ville langile-auzoan nabaritu zen. Haute-Villen etxe bakoitzak Nafarroako eta Aragoiko biziraupen-ekonomia txikia erreproduzitzen bukatu zuten (etxe bakoitzak bere baratza eta etxeko animaliak zituen, oilaskoak edo txerriak esaterako). Etxetatik haratago, iruditeria nafar-aragoiarrak hirigune osoari eragin zion, taberna gehiago sortuz edota asteartero Palace de la Haute-Villen azoka bat izaten zen. Gazteak gastronomia aberastea eragin zuten ere (adibidez, Nafarroako eta Aragoiko janari tipikoak zabaldu zituzten, hala nola «ca-



*racolada*» edo «*trepica*»), jai giroaz ahaztu gabe (ihauteriak adibidez). Halaber, aipatu behar da, asko izan ez ziren arren, gazte batzuk Frantzian bizitzera gelditu zirela<sup>17</sup> beren jatorrizko herrialdea behin betiko utzi egin gabe, haien sustraitzea ezizenari lotuta geratu baitzen (Inchauspé, 2001:34), adibidez, «Maria de Burgui», «Juana del Roncal» eta «Julia Pamplonesa» besteak beste.

Denboraldiak aurrera egin ahala ainaren arteko loturak hedatzen eta indartzen joan ziren arren, frantsesekiko harremana okertzen joan zen, eta emakume gazteen aurkako mespretxua nagusituz joan zen, keinu arrazista eta xenofoboetz eta, aldi berean, Frantziako komunitatearen «bestelakotasun» hitz egin zitekeelarik. «*Español tzarra*» epitetoa izan zen esandakoa frogatzen duen kalifikatzaileetako bat. Era berean, hogeita hamarreko hamarkadako krisialdian, Pirinioetako beste aldetik etortzen ziren emakume gazteek «frantsesen ogia jatera joaten zirelaren» ustea zabaltzen joan zen (Inchauspé, 2001:107-108).

Azpimarratzekoa da ere, gehienetan Espainiako ondorengotza zuten familietan ostatu hartzen zutela ainarek, eta, horren ondorioz, lehen azaldu denez, Nafarroako eta Aragoiko diaspora moduko bat sortzen zela Frantziako hirietako auzo jakin batzuetan. Hortaz, frantziarren eta ainaren artean ez zegoen lehenengo urteetan itxura zitekeen harreman esturik. Hala ere, kasu batean baino gehiagotan ezkontza mistoak sortu ziren, adibidez: «Hualdetarrak», «Perezarrak»... (Inchauspé, 2001:52).

Hizkuntza beste funtsezko elementua da gazteek harrera-komunitatearekin duen integrazio-maila aztertzeko. Kasu honetan, nazioaren gorakadari estuki lotutako bilakaera dialektikoaz hitz egin daiteke.<sup>18</sup> Frantzian ezarri ziren nafar-aragoiarrek, emigranteen komunitatearen batasunari eutsiz, haien eragin-eremuak pixkanaka zabaltzen joan ziren (Inchauspé, 2001:148). Azkenean, hirugarren puntuko amaierako teoria ainaren errealitatera aplikatuz, euskara, frantsesa eta espainola nahastuz hizkuntza berri bat sortu zen, *Charabia*, ainara eta familia anfitrioiaren arteko batasuna irudikatzen zuena (Perales, 2016).

Aztertutako Pirinioetako bi hegaletako populazioen arteko harremanen konplexutasuna, ondorengoei transferitu zitzairen. Beraz, emigranteen seme-alabak, begirada arrazistaren biktima izan ziren, ez bakarrik emigranteenak izateagatik, baita pobreenak zirenearen konnotazioa zutelako haiekin (Inchauspé, 2001:145-146).

Frantzian geratu zirenen egoera azaldu ondoren, esan bezala, ainara gehienak, bere izenari zentzua emanaz, joan eta etorri egiten zuten, hortaz, esan daiteke Pirinioak zeharkatzeak eta mundu berri batean barneratzea haurtzaroko-oskola kentzea zekarrela (Inchauspé, 2001:36). Hau dela medio, neska gazteak ez ziren haurtzarotik irakasten zitzairen patutik aldentzen: ezkontza. Ezkontzeko dotea (ezkontzako -ostilamendua) prestatu behar zuten. Irabazten zuten diruarekin Espainian baino kalitate handiagoko eta prezio txikiagoko linoak eta oihalak erosten zituzten. Hau azaltzera dator ainara gehienak dotea osatu ondoren herrira itzuli zirela behin betiko (Inchauspé, 2001:127).

### 4.3. *Azken urteak*

Behin betiko amaieraren aurretik, migrazio-prozesu horren mugarri garrantzitsu bat Gerra Handia (1914-1918) izan zen. Espainiar askok haien herrietara itzuli behar izan zuten, eta Frantziako estatuak aktibo guztiak billete bihurtzeko eskatu zuten, urrea Estatuko beste erosketa batzuetarako erabili ahal izateko.<sup>19</sup> Horrela, gatazka belikoaren erdian, komunitate frantsesak bere aurrezki guztiak galdu zituen. Ondorioz, ainaren kasuan bezala, ikusirik emigranteak zirela fabrikako ia postu guztiak betetzen zituztenak, frantziar askok (baita aberatsenak ere) landa eremura joan behar izan zuten (Inchauspé, 2001:65-67). Horrek Pirinioez bestaldeko biztanleriaren gaitzespenaren hasiera jarri zuen.

Migrazio-fenomeno honen amaiera ulertzeko, hasierara bueltatzea komeni da. Eskulan faltagatik atzerriko biztanleengana deitzearen beharra ez da ulertzen bakarrik Frantziako populazioa Amerikara migratu zuelako (askotan soldaduska saihesteko), baizik eta espartin-industriaren hasieran bertako nekazariak ez zutelako langileen mundura sartu izan nahi, gizonentzat zein emakumeentzat lan degradatzailetzat jo zutelako. George Viersek adierazten duenez, industrian lan egiteko alternatiba hirigunera emigratzea izan zen. Hala ere, nahiz eta Espainian miseria Frantziakoa baino handiagoa izan, ez zuberotarrek eta bearnesetarrek Parisera edo Amerikara emigratzea, ez nafartarrek edo aragoitarrek Soulera edo Amerikara emigratzea, ez ziren nahitaezko irteerak izan, baizik eta Pirinioetako iparraldean eta hegoaldean bizi diren gizarte mugikortasun-tradizioaren barruan ulertu behar dira (Inchauspé, 2001:49-52).

Frantziako nekazariak Gerra Handiaren ondoren hasi ziren fabriketan lanean, 20ko hamarkadaren inguruan, gizarte-legeak indarrean sartu zirenean. Lege horien bidez, soldadak pixka bat igotzen hasi ziren (Inchauspé, 2001:50-51), gizarte-segurantz indarrean jarri zen (1933) eta oporrak ordainduta geratu ziren (1936) (Inchauspé, 2001:82).<sup>20</sup>

Lan gutxi eta langile asko egon zirenean, emakume gazteek tokiko langileei nagusien ezezkoa ikusten hasi zutenean (jabeek lana nafar-aragoitarrentzat gordeta zutela esaten hasi baitziren frantsesak) (Inchauspé, 2001:78), neguak Frantziara joateari uzten hasi ziren. Horrela amaitu zen prozesu labur hau, funtsezkoa izan zena nafar-aragoiar komunitateen biziraupenerako, eta, aldi berean iraultzailea izan zena protagonista izan ziren ainara guztientzat.

Hala ere, atzerrian bizitako bizipen berri eta ugariak arrasto esanguratsua utzi zuten gazteetan itzuleran. Emigratzen zuten ainarak, artzainen, almadiazainen edo egurgileen alabak, hau da, baliabide gutxiko familia xumeetakoak, ikuspegi berri-tuarekin itzultzen ziren Frantziatik. Artikulu berriekin ez ezik (lorezko soinekoak, ostilamendua eta estudioko argazkiak), Frantziako aurrerapen ekonomiko eta politikoan inspiratutako ideia iraultzaileekin ere itzultzen ziren (lan-eskubideen aldarrikapenak, esaterako). Esan liteke gazteak eraldaketa sozial eta kulturalerako eragile gisa bueltatu zirela, herritik mugitu ez ziren bizilagunentzat. Hau da, bere itzulerak

aukera hobeen bilaketa sinbolizatzeaz gain, Pirinioetako gizartean status quo-a desafiitzen zuten ikuspegi berriak sartzea ere sinbolizatzen zuen.

Azkenekoa esanda ere, nahiz eta migrazioa emakume gazteek norberak bere burua balioztatzeko eta emantzipatzeko eta familiaren, erlijioaren eta gizartearen presioetatik aldentzeko aukera gisa uler daitekeen, Fernando Hualderen hitzetan, errealitatean «momentuko beharraren alabak izan ziren» (*Diario de Noticias*: «Navarra de colores», 2020:10, prentsa), beraz, lortutakoa ez zen haientzat, baizik eta familiaren eta sistema tradizionala iraupena bermatzeko.

### 5. Beste denbora-espazio bat:<sup>21</sup> Boliviako aymarak Andeetako Muga-hirukoitza

Orain azalduko dudan Boliviako aymaren kasuarekin, emakumeen emigrazio-dinamikak beste espazio-garai batzuetan ere gertatzen direla frogatu nahi dut, eta jada azaldutako elementu eta problematika asko errepikatu egiten direla: muga nazionala legez kanpoko emigratzaile bihurtzen dituela, beste herrialdera joaten direla han eskulan falta dagoenean, eta, emigrazioak gainkarga dakarkien arren, askatasun-kutsua nabarmentzen diotela besteak beste.

Gaur egun, Latinoamerikako eremuan, migrazio fisikoaren feminizazioaz hitz egin daiteke, hau da, pixkanaka emakumeak migrazio-fluxuetan sartzen joan dira, horien protagonista izatera iritsi arte, eta, aztertutako migrazio piriniotarraren kasuan bezala, emigratzen duten emakume horiek ez dute «laguntzaile» gisa egiten, batez ere familiaren biziraupenera eta biziraupen pertsonalera bideratutako proiektu propioak baitituzte (González, Lube eta López, 2021).

Aztertutako kasuan bezala, Andeetako Muga-hirukoitza<sup>22</sup> izendatzerakoan, kanpoko elementuaz hitz egin daiteke, Pazifikoko Gerraren amaieran hiru herrialdeek, Txilek, Boliviak eta Peruk, sinatutako estatu-negoziazioen emaitza baita. Hortik okerren atera dena mugako komunitatea izan da, gaur egun pobrezia-indize handiak dituen aymara herria. Haien marjinaltasun-izaerak gazteak gero eta gehiago kanpora joatea eragin du, mugan oinarritzko baliabideak eta zerbitzuak murriztu egin eta zaharkituta geratzen ari direlako. Era berean, nekazaritza eta abeltzaintza oinarritutako tokiko ekonomiaren ahultzeak, landa-exodoa arindu du, honekin batera, ahultzen dijoa desagertzeko arriskuan dagoen herri-hizkuntzak transmititzen duen kultura autoktono eta aurrekoloniala (González, 2015).<sup>23</sup>

Lanerako, hezkuntzarako eta garapen pertsonalerako, herrialde desberdinekin kontaktuan dagoen muga zonaldea ematen dituen aukerak, hasiera batean autodefinizioerako eta emakumearen ahalduntzerako bidea irekitzen duela dirudiena, errealitatean mugako eremu horietan desplazatzen diren emakumeen gainkarga eta bizi-baldintzen okertzea dakar; izan ere, emakumeak lan prekarioagoen eraginpean geratzen dira. Lan horiek informaltasun maila altuak dituzte, lanaldi luzeetan, soldata baxuetan, eskubide soziolaboralean gabezia eta, beraz, babes-sozial eskasean, baita, enplegu-emaitzen gehiegikerien errepikapenean oinarritutako lanak izaten dira (Lube eta Garcés, 2012).

Zentraltasun nazionalaren aurrean, globalizazioaren fenomenoarekin, nazioarteko eskala iraganean marjinalak izan ziren mugaz gaindiko eremuetan agertzen denean, komunitate periferikoak haien garrantziaz eta kokapen estrategiko eta bo-teretsuz jabetzen hasten dira. Horrela, ama-lurra zaindu eta babestea argudiatuz, Muga-hirukoitzaren aurrean, mugako-komunitateek hainbatetan eta modu desberdinetan erreakzionatu dute, esaterako: muga-nazionala egunero gurutzatzen duen trantsizio-soziala, komunitate eta estatu-nazionala arteko gatazkaren irudikapen argia da (González, 2015).

Frantzia eta Espainia XIX. mendean hasieran gertatzen zen bezala, gaur egun, Muga-hirukoitzak desberdintasun ekonomiko nabarmenak ditu, eta, lurralde-subiranotasunaren eta legala ez den merkataritza-fluxuen inguruko eztabaidak eragindako arazo politikoekin lotutako gizarte-gatazketatik haratago, mugako herriek integrazioarekin lotzen dute muga, merkataritza-, lan- eta kultura-fluxuetan gauzaten dena. Beraz, lan eta soldaten arteko aldea dela eta, eremu horretako biztanleria Boliviatik edo Perutik Txilera mugitzen da nagusiki. Gainera, Boliviako eta Peruko migrazio-kopuru horrek, feminizazio-ereduak ditu ezaugarri, eta migrazioa lurralde-eraginetik aztertuta, biztanleria-zentsuek emakumeen partaidetza-tasa handienak dituztenak eskualde periferikoak direla erakutsi dute. Horrela, muga urratuz, zirkulaziorako eta bizimodu binazionalerako espazioak eratzen doaz (Gonzalez, Lube eta López, 2021).

Boliviako mugaldean, patriarkatu kolonial eta arrazista, zein jatorri aurrekolonialeko aymara komunitatearen egitura-patriarkatua kontuan hartuta, emakumea gizonaren mende geratzen da. Hori dela eta, ezkontza-harremanak rol sozialen esleipenean irudikatutako genero-bereizketaren arabera egituratzen dira; hala, teorien gizonari lan produktiboa dagokio, familiari ekarpen ekonomikoa eginez, emakumeari berriz, ugalketa. Hala ere, lehen azaldu den bezala, familia-nukleoko emakumeek ekarpen bikoitza egiten dute, ondasun material eta sinbolikoak produzitzen eta erreproduzitzen baitituzte (Nazal, López eta Magalhães, 2023).

Pirinioetan espartinaren industria tokiko ekonomia dinamizatzeko eta mugako migrazioa gauzatzeko gakoa izan zen bitartean, boliviarren kasuan bi prozesuren ondorio izan ohi da: merkataritza eta, neurri txikiagoan, meatzaritza.<sup>24</sup> Emakume boliviarra lan-merkatuan sartzea prekarizazio-, informalizazio- eta esplotazio-maila altuak onartzearen ondorio da. Horregatik, ainarek bizi izan zuten hazinamendu egoera bezala, lekualdatzen diren emakume boliviarrak, batez ere hasieran, hainbat emakumeren artean partekatutako lursailetan, argirik eta urik ez duten etxe inprobisatuetan bizitzea ohikoena da. Horrek erakusten du, gaur egun, Andeetako Muga-hirukoitza bazterketa-patroiek markatzen dutela eta «lehiakortasunaren printzipioaren» pean dagoela.<sup>25</sup>

Era berean, mugan dagoen populazio-zirkulazio etengabe horren barruan, ainaren neguko migrazioari gehiago gerturatzen gaituena, boliviarrak guztiak ez dira

Txilen modu iraunkorrean finkatzen; askotan, aldi baterako lekualdatzen dira, nekazaritza-partzelek eskatzen duten eskulanaren arabera, edo, aymara emakume boliviarrak askok migrazio-zirkularra egiten dute, migrazioak ez dakarrelako mugaren beste aldean dauden ugalketa erantzukizunak (familia-zaintza lanak) bertan behera uzteko aukera (Gonzalez, Lube eta López, 2021). Hau dela medio, denboraldi batean dirua ateratzen egon ostean, herrira bueltatu behar dira familia laguntzera, ainarak udan egiten zuten antzera. Esandakoak erakusten du boliviarrak ez direla emigratzeko erabakien jabe absolutuak; izan ere, sorterrian egiten dituzten ugaltze-lanen gainkargak Txileko lurraldean ordaindutako lanean gainkargatzen diren egoeretara gaitzesten ditu. Horrek mugak klasean, nazionalitatean, etnían, kulturán eta generoan oinarritutako desberdintasun sozialak erreproduzitu, kondentsatu eta gainjartzen dituela erakusten du (Magalhães, 2021).

Aymara komunitatean bidaia egitea erabakitzerakoan, emakumeek senarren aurkakotasuna izaten dute askotan, horregatik, migrazioaren bitartez lortutako produktio-lana nolabaiteko independentzia lortzeko modutzat hartzen dute, ainarek bere garaian emigrazioa gizarte kontrolatzaile eta itxiatik askatzeko aukerara bezala ikusi zuten bezala. Nahiz eta etxeko-zaintza, genero femeninoaren rol eksklusiboa den heinean, autonomiaren kostua aipatutako gainkarga izan, emakumeek migrazioa rol-patriarkalak inposatzearen aurkako gaitzespenaren eta erresistentziaren sinbolotzat ikusten dute. «Emakumeen gainkarga» horri aurre egiteko, ordaindutako lana alde batera utzi gabe eta emakumeen arteko zaintzaren elkarrekikotasun-printzipioan oinarrituta, emigratzera ausartutakoek emakumeen-sareetan laguntzen dira (Nazal, López eta Magalhães, 2023).<sup>26</sup>

Bere garaian *ainara-sarea* garatu zen bezala, aipatutako emakume boliviarraren sareak funtsezkoak dira emakumeak migrazioan txertatzeko.<sup>27</sup> Bolivia eta Txileren kasuan jakina da XXI. mendeko lehen urteetan emigratutako biztanleria herri beretik zetorrela, hortaz sareek, familiakoak batez ere, migrazio-prozesuak bideratzen zituzten; izan ere, baliabideen hornidura errazteaz gain, informazioa eta esperientzia pertsonalak transferitzen bukatzen baitira. Honek migrazio-prozesu berriak sustatzeaz gain, migratzaile batzuen ezarpen iraunkorraren eta migratzaileen eta bertakoen arteko ezkontza mistoen bidez, mugaz gaindiko guraso-loturak sortzea dakar.<sup>28</sup> Hau azalduta, gehienetan, emigratzeko eta mugaz gaindiko lehen loturak ezartzeko ekimena hartu dutenak emakumeak izan dira (Lube, Nazal, Valdebenito eta López, 2017).

Kanpotarrekiko mespretxuaren inguruan, ikerketa ekonomikoek, migratzaileen laneratzeak txiletarren soldatetan eragin negatiboa duela dioten uste mediatizatua gezurtatu duten arren, Txileko nazionalismoaren ideia oso errotua egoten jarraitzen du. Beraz, migratzaileak txiletarrek mespretxatutako lan-jardueretan, ordainsari baxuko lanetan eta baldintza prekarioetan integratzen badira ere, diskriminazioaren hartzaile izaten jarraitzen dute. Are gehiago, txilenizazio-plana Txileko iparraldeko lurretan Muga-Hirukoitza ezarri aurretik zegoen aymara komunitateari ere eragin

zian, Txileko indigenak «bigarren mailako txilenitate» moduko kategoria jaso zuten, ez ziena inguruko migratzaileengandik askoz ezberdinago egiten. Hala ere, gaur egungo testuinguruan, etnizitatea produktu globala, exotikoa eta balioztatua den heinean, berriz «beretnifikatzeko prozesu globala» garatzen hasia da.<sup>29</sup>

Esandakoa esanda, aspektu guztietan kaltetuena emakumea da. Globalizazioaren testuinguruan, eta kasu honetan meatzaritza- eta merkataritza-ekonomiari lotuta, Txilek Txileko lurraldea gairatzen duen eskulan asko eskatzen du. Baina, lan-aukera horren atzean, errentaren kontzentrazioarako joera dago, horrekin gizarte-klase erradikalenen arteko arrakalak daude. Hau genero-desberdintasunen gorakadaren eskutik dator, gizonak baitira errenta handiagoko lana aurkitzeko aukera gehien dituztenak. Hau esanda, emakumeek migrazioan duten presentziak sistema-kapitalistaren desberdintasunak irudikatzen dituzten hiru elementuak erreproduzitu, bildu eta pertsonifikatzen ditu: unibertsalismoa (nazionalismoak), arrazakeria (etnia) eta sexismoa (generoa) (Lube, Nazal, Valdebenito eta López, 2017).

### Ondorioak

*Mugak zeharkatzen dituzten gizabanakoak dira edo gizabanakoek zeharkatzen dituzten mugak dira?* Ikusi ahal izan denez, mugako mugak, gehienetan, lurraldeen nahitaezko zatiketa eragin duten hainbat akordio politikoren emaitza izan dira, geografiaren eta etniaren ikuspegitik batasun gisa irudikatzen zirenak. Horren aurrean, aztertutako bi adibideek erakusten dutenez, mugak trantsizio-espazioak dira, eta horietan jarduten duten gizabanakoek herrialde bateko edo besteko kide direla pentsa dezakete, bai eta bi herrialdeetako kide direla ere. Horrela, muga eremu hibrido bihurtzen da, non hizkuntza eta elementu kultural desberdinak, daudenena eta iristen direnena, elkarrekin nahasten eta aberasten diren. Horrela, tentsio etengabea sortzen da partikularraren eta unibertsalaren artean, jaio aurreko tokiko jardueraren (nazioz gairako jarduera) eta estatuaren ekintzaren arteko erlazio historikoan irudikatzen dena. Harreman asimetriko horren ondorioz, mugako komunitateen bizitza eta bizilekua Estatu nazionalaren kontrol zentralaren mende geratzen dira, eta, ondorioz, berregituratuta edota desagertzera kondenatuta geratzen dira.

Erredukzionismo burokratiko-estatalaren aurkako erresistentzian emakumeak dira nagusi neurri handi batean; horregatik, mugek generoarekin lotutako gatazka eta indarkeria partikularrak gaitzesten dituzte. Horrela, emakumeak muga izan duen (ainaren kasuan) eta oraindik ere betetzen duen zeregina (aymaren kasua) ez aztertzea estrategia politiko gisa interpreta daiteke, non Estatuak emakumea mehatxu bikoitz gisa ikusten duen: emakumeak muga nazionalari aurre egin behar diolako eta beste generokoa den gizabanakoa delako.

Ikertu denez, Ainararen eta aymaren migrazio-esperientzien azterketak antzekotasunak eta desberdintasunak erakusten ditu, bakoitzaren migrazio-prozesuak garatu ziren testuinguru sozioekonomiko eta kulturalak markatuta.

Bi emakume-taldeek migrazioari aurre egin zioten ekoizpen- eta ugalketa-lanaren karga bikoitzari aurre egiteko modu gisa, nahiz eta haien motibazioak eta agentzia-mailak oso desberdinak izan.

Véronique Inchauspék dioen bezala, «ainarak asko hamabi eta hamasei urte bitarteko gazteak zirela kontuan hartuta, Frantziako hirietara egindako bidaiak gaur egungo emigrazio klandestinoaren antza du, eta enplegu-aniztasunaren modalitateari lotuta dago» (Inchauspé, 2001: 15-16). Espartinean eta Boliviako aymaretan lan egiten zuten emakume gazteen artean aldatu den gauza bakarra, gaur egun emakumeek oraindik jasaten duten gainkargari izena eman zaiola da: «pluriempleo» Paralelismo horrek mundu osoan karga bikoitz hori ezabatzeko landa-eremuko emakumeen rola ikusaraztearen garrantzia nabarmentzen du.

Emigratzeko motibazioei dagokienez, aymarek kontzientzago eta autonomoago egiten dute, globalizazio-testuinguru batean lan-aukera hobeak bilatzeko. Aldiz, ainarak maiorazkoari lotutako ohituraren zati gisa migratzen ziren, Pirinioetako komunitatean ohikoa zen praktika bat, familia-dinamiken parte zena eta autonomia-aukerak mugatzen zituen. Era berean, ainarak direlakoentzat, hain adin goiztiarrean migratzea ez zen ahalduntze modu bat, baizik eta urrats natural bat haien bizi-zikloan.

Ainaren migrazioa Pirinioetako Nafarroako komunitatearen eta Iparraldeko eskualdearen, Frantziako hegoaldea, arteko lotura historikoen barruan kokatzen zen. Arlo horiek artzaintzak, tokiko merkatuek eta lan-sareek lotu izan dituzte beti, ainarak berak eusten zituenak bezala. Horrela, migrazioa ez zen ezezagunerako bidai bat bezala ikusten, baizik eta familia- eta ekonomia-lotura horien hedapen bat bezala. Harrerari dagokionez, ainarak Frantzian etxebizitzarako sarbidea izaten zuten, pilaketa eta baldintza prekarioak komunak ziren, ez baitzegoen haien lan-eskubiak babesten zituen araurik.

Bestalde, aymarek mugaz gaindiko testuinguru zabalago batean migratzen dute, globalizazioak eta nekazaritza eta meatzaritza bezalako sektoreetako lan-prekarizazioak markatuta. Askotan, haien bizi-baldintzak muturrekoagoak izaten dira, inprobisatutako etxebizitzekin eta oinarritzko zerbitzurik gabe. Hala ere, migrazioak osagai autonomoagoa du, esplotazio-egoerei aurre egin arren, haien bizitzak eta familienak hobetu nahi baitituzte.

Garrantzitsua da azpimarratzea bai ainarak bai aymarak emakume-sareetan oinarritu zirela migrazioarekin lotutako zailtasunei aurre egiteko. Ainarak direlakoan kasuan, sare horiek lokalak ziren eta ingurune ezagun baten barruko familia- eta komunitate-harremanetan oinarritzen ziren. Bestalde, aymarek mugaz gaindiko sareak garatu dituzte, eta, horri esker, lurralde berrietan sartu dira, baina ustiapen-baldintzei ere aurre egin behar izan diete.

Azenik, Pirinioetako migrazio prozesu honen ezjakintasunaren inguruan, 99 urteko nire Otsagabiko amaxiri Frantziara lanera joaten ziren neska gazteak lanean ari nintzela azaldu nionean, bere ama espartinera lan egitera joan zela erantzun

zidan. Ez dakit egia izango den ala ez, baina protagonistek izan zuten oroimen galera edo gaztaroko esperientzia ezkutatzeko gogoia ikusita, azkenean Véronique Inchauspek bere garaian egin zuen galdera bera egin diot neure buruari: *Denboraren joanarekin lotutako ahanztura da, ala bizitzen jarraitzeko beharrezkoa den ahanztura?* (Inchauspé, 2001:134).

Nafarroara edo Aragoira itzuli ziren neska gazteentzat, «bizitza frantsesa» gaztarroan gelditu zen. Haietako askok ez zieten beren familiei bizitzaren kapitulu hori transmititu, eta, beraz, Ainaren Memoria desagertuz, lausotuz eta ezabatuz joan zen. Azken ainarak, hala nola Francisca Bueno, Izabakoa, edo Victorina Olaverri Jauregui, Uztarrozekoa, (Inchauspé, 2001:111), hil baino egun batzuk lehenago haurtzaroarekin eta adin horretan praktikaturako hizkuntzarekin lotu ziren (euskarra, edota frantsesa, norbaitek ahoskerari barre egiteko lotsagatik hitz egitera ausartu ez ziren hizkuntza), bihotzean ezkutaturako gaztaroko bizipenak argitara ateraz. Horrek frogatzen du nafartarren, aragoitarren eta mauletarren arteko lotura ehunak hautsezinak direla, nahiz eta denborak aurrera egin eta muga politikoa egon tartean; eta, belaunaldiak bata bestearen atzetik etorri diren bitartean ahozko memoria transmititu ez bada ere, Ainaren Memori berreskuratzeak emakume batzuek ez zutelara muga ezagutu eta batuta jarraitu zutela erakutsi du, jatorri eta historia komuna zutela demostratuz.

Fernando Hualderen amonak, Frantziatik Izabara egindako azken bidaiatik (1898-1899) itzultzean, bi metro baino gehiagoko zutikako erloju bat garraiatu zuen berarekin, ostilamenduaren zati gisa. Gaur egun Hualdek, metafora gisa, honako hau adierazteko erabiltzen duen erlojua:

*«isiltasunetik irten eta bere garaian inork baloratu ez zituen emakume langile, ausart, abenturazale, solidario eta apal horiek omentzeko ordua iritsi da. Era berean, migrazio-mugimendu horrek izan zuen garrantzia aitortzeko garaia ere bada, «gure ainarek» Pirinioen bi aldeetan izan zuten garrantziagatik eta eraginagatik, ekonomia eta Pirinioetako bizimoduak eta obiturak bizirik mantentzea lortu baitzuten».*

(FERNANDO HUALDE, 2023)

## OHARRAK

1. Artikulua nire Gradu Amaierako Lanaren moldaketa da, hemen aurkeztuko dudana azken puntutik etorkizuneari sakontzea espero dut, ainaren prozesuaren garrantzia frogatzeko asmoarekin, zeina beste denbora-espazioei aplikatu daitekeen. Era berean, espazio mugaketa dela eta, ainaren inguruko zehaztasun eta azalpen ugari, ohar atal honetan jarri ditut, baina argi utzi nahi dut ainaren errealitatea modu fidagarriean ezagutzeko, garrantzitsuak direla.
2. Gotzon Perez Artutx (enararen birbiloba) eta Antonio Jesus Gorría (enararen biloba) ere aipatu behar ditut, baita Xabier Diaz Esarte eta Jone Villanueva ere, eurek ikusarazi didatelako zaraitzuar ainarak ere izan zirela, ikerketan jarraitzeko bidea irekiz.
3. Jarraian azalduko dudana Pirinioetako mugaren testuingurua egiteko, José Antonio Perales Díazek egindako liburuan oinarritu nazi: *«Fronteras y contrabando en el Pirineo Occidental»* (2004).



4. Erronkari eta Zaraitzu ibarretan euskararen erabileraren eta ondorengo atzerapen prozesuaren inguruan adituak diren ikerketen barnean Bonaparteren mapa (1860), Erize (Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa, 1997) Jimeno Jurío eta Apat-Echebarneren (1974, Una geografía diacrónica del euskera en Navarra) ezagunratsuenetarikoa dira.
5. Hau esanda, gaur egunera gerturatzuz, XIX. mendean erdialdera, 60ko hamarkadan zehazki, Pirinioetako haranek eskaintzen zituzten aukerak, familiaren alde eta familiarentzat sortu eta hiltzekoak (Alastuey, 2013:18), ez ziren itxaropentsuak izan emakume gazteentzat, eta, beraz, asko izan ziren hirietara emigratzeko urratsa ematera ausartu zirenak, mendekotasun patriarkaletik urrunduz eta independentziarako aukera bilatuz (Barron, 2022:92).
6. Nafarroako Pirinioetatik Ameriketarako migrazioak, non emakumeek ere garrantzia izan zuten, Amaia Iraizozek landu ditu: IRAIZOZ, A. (2017). *Homeward bound the influence of emigration and return on Aezkoa Valley and its surrounding rural communities in northern Navarre at the turn of the 19th century* [Doktorego tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea. Berriki ere Erro ibarreko migrazioei buruzko liburu bat argitaratu da: (2023). *Los americanos del Valle de Erro / Erroibarko Amerikanuak*. Asociación Elutseder.
7. Maule zuberotar hiria da eta Frantziako Pirinioen mugan dago. Bi hiribildu (Maule eta Licharre) elkartu ziren unean, 1841ean, espartingintza garrantzia izaten hasi zen, eta, beraz, 1854 inguruan 500 pertsona inguru izan ziren. Espartinen industria bat-batean eta modu lehergarrian agertu zen (Inchauspé, 2001:70).
8. HUALDE, F. (2020). *Erronkari ibaxako ainariak – Alpargateras roncalesas*. Xibarit. Hiru dira Frantziako eskulanik eza azaltzen duten arrazoi nagusiak: lehenik eta behin, XIX. mendean, Frantzia eta Prusiaren arteko gerraren ondorioz (1870-1871), eta primogenitura-sistemari lotuta, mutil gazte souletar eta bearnesetar askok erreklutamendutik ihes egin zuten Amerikarako emigrazio masiboa sustatuz; gainera, populazioaren mobilizazio horrek Frantziako eskulan falta betetzearen beharra handitu zuen, espartinak ez baitziren existitzen kontinente berrian eta emigratutako frantsesak oinetako tradizionala erabiltzen jarraitu baitzuten. Beraz, XIX. mendean erdialdean 4/5 espartin pare Amerikara bidaltzen zirela kalkulatzeko da. Bigarrenik, espartinen eskaria handitu egin zen, zapata horriek, hezetasunari oso ondo eusten ziotenak, modan jarri zirelako Frantziako iparraldeko meatzaritzan. Azkenik, oinetakoen eskariak gora egin zuen une horretan kolera-epidemia bat gertatu zen, eta, horrek bereziki eragin zion Frantziako hegoaldeari.
9. Aintzat hartu beharreko datua, generalizazioak ekiditeko, industriaurreko Nafarroan Pirinio aldeko haranek tasa txikiagoak zituztela Erriberan baino. Nafarroako eta bere eskualdeetako bilakaera demografikoari buruz gehiago jakiteko, migrazio-saldoarekin lotuta, gomendagarria da M. Pilar Erdozáin Azpilicuetak eta Fernando Mikelarena Peñak egindako ikerketa: ERDOZAIN, M.P. y MIKELARENA, F. (1998). «Disparidades espaciales y migraciones en el crecimiento de la población en Navarra entre 1786 y 1930». *Mito y realidad en la historia de Navarra, Ponencias del IV Congreso de Historia de Navarra*, SEHN, Iruñea.
10. Fenomeno migratzaile honen protagonistei dagokienez, neska adingabeak ziren arren, askotan ahizpa, lehengusina edo lagun nagusiekin joaten ziren, eta, jendarmeekin istilurik ez izateko, sorterriko idazkariak adin handiagoa zutela jartzen ziren zelula pertsonalean. Gainera, Independentzia Gerran (1808-1814) Pirinioetako herri asko Napoleonen tropen eskuetan erre ziren, horrek Frantziako Pirinioetako artisaunen etorrera ekarri zuen, eta, ondorioz, alderdi guztietan (ekonomikoak, kulturak zein sozialak) Pirinioetako bi aldeetako herrien arteko batasuna garatu zen, hau da, kasu askotan elkarrekin nahastutako familiak ziren, horregatik hasiera batean gazteek ez zuten beste herrialde batera emigratzeko nozioirik.
11. Behar ekonomikoengatik emigrazio-kasuak haran hegoaldean, Burgin (Erronkari) edo Uskartzan (Zaraitzu) gertatu ziren gehienbat, non erosteko ahalmenik gabeko familien ehunekoa handiagoa zen. Informazio hau Fernando Hualderi egindako elkarrizketatik atera dut (Rodríguez Rolán, 2023: 58-69).
12. Ainararen kalifikatzaileak, berez, Frantziako neska gazte horiek nola ikusten ziren erakusten du. Beltzez jantzen ziren gazteak ziren, neguan iritsi eta udaberrian herrira itzultzen zirenak. Hala ere, izendapen hori oso berria da, bere garaian *formigak* (inurriak) esaten baitzieten; izan ere, Maulera mendiko bideetatik oinez ilara batean joaten ziren, bata bestearen atzetik, beti beltzez jantzita. Modu berean, neguan iristen zirenez, «*neguko usoa*» deitzen zieten ere. Informazio hau Antonio Jesús Gorriari egindako elkarrizketatik atera dut (Rodríguez Rolán, 2023: 58-69).
13. Fabriketan lan egin arren, ez zituzten ugalketa-lanak alde batera uzten, hala nola larunbatetan eta igandeetan garbitegira joatea edo espartina lana eta Frantziako etxe dirudunak zaintzeko lana uztertzea.

- Hori dela eta, asko izan ziren gerora Frantziara joan ziren ahizpak edo lehengusinak, ez lantegian lan egitera, baizik eta fabrikari lan egiten zuten ahaidearen seme-alabak zaintzera.
14. Adibidez, espartinen zolak kautxuz egiten hasi zirenean, asko izan ziren material berriaren ekoizpenak sortzen zuen ke toxikoaren ondorioz gaixotu edo hil ziren neskek.
  15. Frantziako langileek jasotzen zuten eguneko soldata finkoa ez bezala, ainararen soldata ekoizpen-gaitasunean oinarritzen zen, eta astero kobratzen zutenaz, astero egitea lortzen zuten espartin-bikoiten kopuruan oinarritzen zen irabazitakoa.
  16. Komunitatearen jarreraren barruan, kontuan izan behar da horietako asko auzokideak, lagunak eta senideak zirela, eta leku beretik zetozela. Biztanleria etorkina lotzen zuten elkartasun-espíritu hori, unetik zailen elkartuta egoteko ohitura betikotu egin zen Frantziako hirietan. Kasu honetan, neska gazteek une oro ziurtatzen zuten inork atzean ez geratzea eta irabaziak astearen amaieran antzekoak izatea; halaber, kate-lana zenez, elkarri laguntzen zioten espartinaren ekoizpenaren etapa guztietan.
  17. Gizarte-truke hori hain handia izan zen, ezen Gorge Viersen arabera 1911n Maulen bizi ziren espainiar jatorriko herritarrak % 39 baitziren, eta chuneko hori espartinaren sektorean lan egiten duten langileen % 71raino igotzen da. Informazio hau Antonio Jesús Gorriari egindako elkarrizketatik ateratu da (Rodríguez Rolán, 2023: 58-69).
  18. Zuberoan, Erronkarin eta Zaraitzun euskarak lotura faktore gisa izan zuten. Nafarroako abeltzainak eta artzainak euskaldunak ziren, baina mugak Pirinioetara mugitu ondoren, Frantziako isurialdearekin zuten lotura-transhumantea Nafarroako Erriberak eta Aragoiko lurrek ordezkatu zuten. Lurralde hauetan indarrez hitz egin zein ikasi izan behar izan zuten herrialdeko hizkuntza (gaztelania). Hori esanda, Espainiako lurretako transhumantziaren garapena, euskara galtzearen arrazoietakoa bat izan zitekeen. Hau dela eta, euskara eremu pribatuan gorde zen eta emakumeak arduratu ziren euskara ez desagertzeaz. Horrek erakusten du gaztelania eta euskara betiko dikotomiaren parte direla: gizonen eta emakume, eremu publikoa eta pribatua, moderno eta tradizionala.
  19. Krisi egoera hau larriagotu egin zen familia dirudun askok Errusiar Onak (bonu tsaristak) izeneko kredituak erosten hasi zituztenean. Hau ulertu behar da Frantzia Errusia baino aberatsagoa zen momentuan, eta hortaz, denborarekin etekin handia lortuko zelaren pentsaera zabaldu zenean, eta Frantzia Europako bankari bezala jokatu zuenean.
  - Inork ez zuen 1917ko urriko iraultzarik espero. Horren ondorioz, familia aberats ugari guztia galdu zutelarik, landa eremura bueltatu ziren.
  20. Aipatzekoa da gizarte-lege horien aurretik, 1917tik 1923ra gora egin zuten greba-aldian Frantziako bizitzera gelditu ziren biztanleri etorkina (ainarak) izan zela lehen leerroan mantendu zena. Hortaz, herrira bueltatu ziren ainarak, grebekin Frantziara joateari utzi zioten bitartean, Frantziako bizitzaren amaitu zuten ainarak, grebetan paper esanguratsua bereganatu zuten. Egunkarietako bat: (1929, abuztuak 11). *Journal de Saint-Palais* 45(32).
  21. Europako adibide baten (ainarak) eta Amerikako adibide baten (Boliviako aymarak) arteko konparazioarekin, deskolonizazioaren ezagutzaren inguruan sakondu genezake. Nire ikerketaren subjektu nagusia ez direnez aymarak izan, etorkizuneko ikerketetarako ate bat baizik, zain ditut ikuspegi feminista deskolonialak, bereziki María Lugonesen lana, eta Lorena Cabnal bezalako feminista komunitarioena, memoriaren, gorputzaren eta lurraldearen garrantziari buruzko diskurtsoak landu baitituzte. Bibliografia zabaldu ere egin beharko litzateke, honako honetatik hasita: CASTRO GÓMEZ, S.; GROSGOUEL, R. (2007). *El giro decolonial. Reflexiones para una diversidad epistémica más allá del capitalismo global*. Bogotá: Siglo del Hombre.
  - RESTREPO, E.; ROJAS, A. (2010). *Inflexión decolonial: fuentes, conceptos y cuestionamientos*. Quito: Editorial Universidad del Cauca.
  - WALLERSTEIN, I. 2004. *Capitalismo histórico y movimientos antisistémicos. Un análisis de sistemas-mundo*, Madrid: Akal.
  - LANDER, E. (ed.), *La colonialidad del saber: eurocentrismo y ciencias sociales. Perspectivas latinoamericanas*. Buenos Aires: Clacso, 2000.
  22. Andeatako Muga-hirukoitzari dagokionez, aymara komunitateak mugaz gaindiko biztanleria barneratzen dituela esan daiteke, aymara biztanleria 4 herrialderen artean banatzen baita, (modu finkoan edota aldi baterako mugimendu-sozial ohikoenekin): Txileko iparraldeko eskualdeetan, Boliviako erdialde-mendebaldean, Peruko hego-ekialdean eta Argentinako ipar-ekialdean. Hala ere, aymara komunitateko kideek, muga nazionalen aurreko «Aymara eskualde batu bat»i buruz hitz egiten jarraitzen dute, zeina, nahiz eta bere barne arazoak eduki, Estatu nazionalak mugak jarri zituzten arte benetako banaketa ez zeukana, nazionalismo indartsuen aurrean aymara herriaren ahultzea eragin izan duen zatiketa.
  23. Espainiako eta Frantziako kasuan ikusi den bezala, Estatu nazionalaren joera lurralde-batasuna eta batasun soziokulturala sustatzea da. Kasu honetan,

- muga leku arriskutsutzat hartzen da, inflexio-puntua izan daitekeelako baita sentimendu nazional eta zentralistaren haustura ere. Hori dela eta, Estatu zentralistek uste dute mugako eremuak margen heterogeneoak direla eta, bertan, komunitate nazionalarekiko leialtasuna zalantzan jartzten dela; hortaz, zibilizatzeko eta modernizatzeko betebeharrak argudiatuz, etnia eta hizkuntza bereko komunitateak zatitzen bukatzen dituzte. Horri dagokionez, «sekuritizedazioa» bermatzearekin erlazioa duten neurri bezala, kontrol-eremua handitzearekin batera, mugetako zaintza teknologia berriak indartzera jo dute, «fluxu negatibo» (kontrabandoa, narkotrafikoa, migrazio ilegalak...) fisikoak saihesteko asmoa aldarrikatuz. Baina, berez, politika publiko horiek ez dira komunitate periferikoen mesedetan sortzen, Estatuaren eta enpresa pribatuaren mesedetan baizik.
24. Meatzaritza lanean gizonak aritzen dira gehienbat, baina badira lanen bat egiten duten emakumeak ere. Meatzaritza urte loriatsuetan txiletar askok utzi zituzten lur-emankorrek meatzaritzan lan egiteko, honen ondorioz, lur horien laborantzak emakume boliviarrak emigratzearen pizgarria izan zen, hortaz, modu ez zuzenean, meatzaritza ekonomiaaren parte garrantzitsuak bilakatzen dira.
25. Boliviako migrazioaren kasuan, indigena barbaroaren eta txiletar zibilizatu zein modernoaren arteko aurkakotasuntzat hartzen da eta, bi herrialdeen arteko hurbiltasunak emakumeari laneratzeko erraztasuna ematen badio ere, emakume boliviarrak prekarizazioaren eraginpean geratzen da, etnia zein nazio gutxiagotasuna dela medio. Beraz, Boliviako emakumeak nekazaritza-lanez arduratzen dira hirira alde egin duten txiletarrek alde egin dutenean.
26. Emakumeen sare horiek familiakoak dira, amek, ahizpek edo alaba zaharrenek osatuak, bai eta familia-nukleotik kanpokoak ere (bizilagunak). Bestetik, etxeko eremuan hutsik dagoen emakumerik izan ez duten emakumeek, lanera eraman dituzte seme-alabak edota aurdun joaten dira, ugalketa-lanaren eta produkzio-lanaren arteko muga desitxuratu utziz.
27. Emigratzeko erabakia ez da soilik jatorrizko herrialdeko eta helmugako herrialdeko alderdi sozioekonomikoetan oinarritzen, neurri handi batean sare-sozialen sorrerak eta garapen progresiboak erreproduzitzen ditu mugaz gaindiko joan-etorriak.
28. Azken batean, sortzen eta erreproduzitzen diren sare sozialak, gero eta lan, baliabide eta informazio gehiago izatean sustraitzeaz gain, diaspora moduko bat sortzen da, jaietan edo sinesmen erlijiosoetan irudikatutako identifikazio-mekanismoei lotutako espazio birsortu bat sortzeko bidea emanez.
29. «Beretnifikatzeko prozesua» eragina izan du Txileko Estatuak hartutako azken politikan, txilenizazio-praktikak eta etsipen etnikoa uztartu behar izan baititu. Ondorioz, Txile iparraldeko aymarek nortasun bikoitza lortu dute, txiletarra eta indigena izateko aldarrikapenean oinarrituta. Berritasun honi Peruko eta Boliviako migrazioaren areagotzea lotuz, Txilen eman den komunitate migratzaileen asimilazioak etniaren irudizko hierarkia bat gauzatu duela baieztatu daiteke. Orain txiletarren eta migratzaileen arteko ezberdintasuna ez ezik, txiletar aymaren (txiletarrak) eta ondoko nazioetako aymaren (boliviarrak, perutarrek edo argentinarrak) arteko desberdintasuna ere gailendu baita.

## BIBLIOGRAFIA

- ADAM, Bárbara (1999): «Cuando el tiempo es dinero. Racionalidades de tiempo conflictivas y desafíos a la teoría y la práctica del trabajo». *Sociología del Trabajo*, 37. Facultad de Ciencias Políticas y Sociología Campus de Somosaguas (5-40. or.).
- ALÁEZ CORRAL, Benito (2005): «Nacionalidad y ciudadanía: una aproximación histórico-fundacional». *Historia Constitucional*, 6, (29-76. or.).
- ALASTUEY GARCIA, Jone (2013): *1920. hamarkadan Erronkari Ibarrean jaio eta bizitako emakumeen bizimodua: denboraren kudeaketa eta honetan genero-sistemak duen eragina*. [Master tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ALTER GRUPO DE INVESTIGACIÓN (2009): *Estudio sobre la evolución y situación actual en el mundo de la población emigrante de Navarra*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

- AGUILAR, Encarnación (2014): «Los nuevos escenarios rurales: de la agricultura a la multifuncionalidad», *Endoxa: series filosoficas*, 33 (73-98. or.).
- AYERRA, Iñaki, HUALDE, Fernando, SANZ, Félix eta ULZURRUN, Germán (2019): «Operación Golondrina». *La Kukula*, 55. <http://lakukula.com/index.php/boletines/>.
- BARRON IRIARTE, Ainar (2022): *Comunidad, ruralidad y género. Una etnografía en el Valle del Roncal*. [Doktorego tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- BIELZA DE ORY Vicente y DALLA-ROSA, Gilbert (1989): *Las relaciones socioeconómicas transpirenaicas: Ciclo «Los pirineos». ¿Puente o barrera?*, Jaca, 3-4 de Agosto de 1988. Huesca: Instituto de Estudios Altoaragoneses.
- BURGUETE ALDAZ, Adur (2016): *Migración desde los valles del Pirineo navarro a la villa de Lumbier*. [Master tesia]. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- CAPDEVILA I SUBIRANA, Joan (2009): *Historia del deslinde de la frontera hispano-francesa. Del tratado de los Pirineos (1659) a los tratados de Bayona (1856-1868)*. Madrid: Centro Nacional de Información Geográfica.
- DÍAZ ESARTE, Xabier (2021): *Zaraitzuko ipuin zahar eta berriak / Cuentos y leyendas del valle de Salazar*. Ezkarozeko Bilgua.
- DOUGLASS, William A. (2003): *La Vasconia global. Ensayos sobre las diásporas vascas*. Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritzza.
- DURÁN, María de los Ángeles (1972): *El trabajo de la mujer en España: un estudio sociológico*. Madrid: Editorial Tecnos.
- GARRALDA, Eduardo, PULIDO, Alejandro eta AUZMENDI, Iñigo (2019): *El renacimiento cultural vasco en el valle de Salazar. Federico Garralda Argonz y su entorno (1881-1929) – Euskal pizkundea Zaraitzuko ibarrean. Federico Garralda Argontz eta haren ingurua (1881-1929)*. Lamiñarra.
- GONZÁLEZ MIRANDA, Sergio (2015): «La voz desde lejos. La Triple-Frontera Andina: entre la heterología y la globalización». *Andamios*, 12 (28). [https://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S1870-00632015000200019](https://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1870-00632015000200019).
- GONZÁLEZ TORRALBO, Herminia, LUBE GUIZARDI, Menara eta LOPEZ CONTRERAS, Eleonora (2021): «Movilidades, violencia y cuidados: La experiencia de mujeres bolivianas en los territorios chilenos de la Triple-frontera Andina». *Revista de geografía Norte Grande*, 79, (9-32 or.) [https://www.scielo.cl/scielo.php?pid=S0718-34022021000200009&script=sci\\_arttext&tlng=en](https://www.scielo.cl/scielo.php?pid=S0718-34022021000200009&script=sci_arttext&tlng=en).
- GORRÍA IPÁS, Antonio Jesús (1983): «Desplazamientos demográficos temporales desde el Valle de Ansó al Pirineo francés». *Temas de antropología aragonesa*, 2, (40-50. or.).
- GREGORIO GIL, Carmen (1997): «El estudio de las migraciones internacionales desde una perspectiva del género». *Migraciones*, 1 (145-176 or.).
- HUALDE, Fernando (2020): *Erronkari ibaxako ainariak – Alpagateras roncalesas*. Xibarit.
- INCHAUSPÉ, Véronique (2001): *Memoire d'hirondelles: une histoire de jeunes filles: l'émigration féminine navarro-aragonaise à Mauléon (1880-1930)*. Uhaizta et Ikherzaleak.
- LA OFICINA ECONÓMICA Y COMERCIAL DE ESPAÑA EN PARÍS. (2022): *Informe económico y comercial. Francia 2022*. <https://www.icex.es/es/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/estudios-de-mercados-y-otros-documentos-de-comercio-exterior/detalle-documentos.inf-economico-comercial-francia-2022.doc093202210>.
- LUBE GUIZARDI, Manela eta GARCÉS HERNÁNDEZ, Alejandro (2012): «Mujeres peruanas en las regiones del norte de Chile: Apuntes preliminares para la investigación». *Estudios atacameños*, 44 (5-34 or.) [https://www.scielo.cl/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S0718-10432012000200002&lang=pt](https://www.scielo.cl/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0718-10432012000200002&lang=pt).

- LUBE GUIZARDI, Manela, NAZAL, Esteban, VALDEBENITO TAMBORINO, Felipe, ETA LÓPEZ CONTRERAS, Eleonora (2017): «Configuraciones de la migración femenina peruana en Iquique Chile, en el siglo XXI». *Papeles De Poblacion*, 23 (94) (125-165 or.) [https://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S1405-74252017000400125&lang=pt](https://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1405-74252017000400125&lang=pt).
- MAGALHÃES, Lina (2021): «Habitar entre fronteras. Un estudio teórico sobre mujeres migrantes y hogares transnacionales y transfronterizos». *Estudios fronterizos*, 22. [https://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S0187-69612021000100101](https://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0187-69612021000100101).
- MALUTA FILMS, ALDUDARRAK BIDEO ETA 601 PRODUCCIONES. (2021): *Ainarak* [Webgunea]. Berreskuratua 2023ko martxoaren 28an, hemendik: <https://ainarak.eus/>
- SÁNCHEZ LANASPA, Sergio (2020): «Mujeres, migración a la modernidad». *El siglo XX en el Pirineo aragonés*. Pirineum.
- NAFARROAKO GOBERNUA (2020): Roncalesas en busca de la tierra prometida. *Diario de Noticias: Navarra de colores* (10 or.).
- NAZAL, Esteban, LÓPEZ, Eleonora ETA MAGALHÃES, Lina (2023): «Género, sexualidad y relaciones afectivas de Mujeres Aymara Bolivianas en Arica (Chile)». *Papeles de trabajo - Centro de Estudios Interdisciplinarios en Etnolingüística y Antropología Socio-Cultural*, 44. [http://www.scielo.org.ar/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S1852-45082022000200101&lang=pt](http://www.scielo.org.ar/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1852-45082022000200101&lang=pt)
- ORTEGA LÓPEZ, Teresa María (2023, apirilak 26): *Nuevos sujetos de la historia. Mujeres campesinas en el franquismo* [Bideoa]. Upnat. <https://upnatv.navarra.es/ondarea/nuevos-sujetoscampesinas-franquismo>.
- ORTUÑO MARTÍNEZ, Bárbara (2007): «Redes migratorias femeninas en la emigración española (1946-1960)». *Millars: espai i història*, 30 (63-76 or.).
- PERALES DÍAZ, José Antonio (2004): *Fronteras y contrabando en el Pirineo Occidental*. Gobierno de Navarra.
- PERALES DÍAZ, José Antonio (2016): «Mujeres migrantes en Zuberoa (Francia) 1880-1930». *Cuadernos del Marqués de San Adrián revista de humanidades*, Extra 1 (ejemplar dedicado a: Ayudas a la Investigación 15/16).
- RODRIGUEZ ROLÁN, Ainar (2023): *Ainarak. Landa-eremuko eta mugaz gaindiko emakumeen emigrazioa* [Gradu Amaierako Lana]. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- SANZ TOLOSANA, Elvira (2007): *Identidad, montaña y desarrollo: los valles de Roncla, Salazar y Aezkoa* [Doktorego tesia]. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- XAMAR (1992): *Orhipean. Gure Herria ezagutzen*. Pamiela.

## RESUMEN

La emigración de la industria espartina fue una emigración femenina temporal y transfronteriza en la que, desde 1850 hasta los años 30 del siglo XX, cientos de adolescentes recorrieron cada invierno los Pirineos, desde los valles de Navarra y Aragón a las ciudades suletinas del sur de Francia. Esa red creada por las jóvenes que, desvinulándose del auge nacionalista, creían compartir una historia común con el otro lado del Pirineo, y, los lazos afectivos transnacionales que se fueron forjando entre aquellas que se fueron y se establecieron en Francia y las que regresaron al pueblo y no regresaron a Francia, demuestran que La Memoria de las Ainarak metafóricamente simboliza la conservación del espejo que son ambas vertientes del Pirineo.

Dicho esto, el estudio de las Ainarak no sólo es relevante en un marco preindustrial y a nivel local, sino que en un marco posindustrial y a nivel global cabe destacar las semejanzas que tiene con la actual emigración femenina latinoamericana. A grandes rasgos, en ambos casos hay una frontera nacional, una emigración clandestina, un sistema económico y un sistema de género que suscita el multiempleo y unas protagonistas que engloban todo ello: las mujeres rurales.

PALABRAS CLAVES: Ainarak; alpargatas; emigración; frontera; mujeres rurales.

## LABURPENA

Espartin industriaren emigrazioa aldi baterako eta mugaz haraindiko emakume emigrazioa izan zen, non, 1850etik XX. mendeko 30eko hamarkadara arte, ehunka nerabek Pirinioak zeharkatu zituzten negu bakoitzean, Nafarroa eta Aragoiko haranetatik Frantzia hegoaldeko Zuberoako hirietara. Nazionalismoaren gorakadatik aldenduta, Pirinioen beste aldearekin historia komuna partekatzen zutela uste zuten emakume gazteek sortutako sare horrek, eta Frantziara joan eta ezarri zirenen eta sorterrira itzuli eta Frantziara itzuli ez zirenen artean sortzen joan ziren lotura afektibo transnazionalak, Ainararen Memoriak metaforikoki Pirinioaren bi isurialdeak diren ispiluaren gordelekua sinbolizatzen duela frogatzen du.

Hori esanda, Ainarak aztertzea garrantzitsua da industriaurreko eta tokiko esparru batean, eta, horrez gain, esparru postindustrial eta global batean gaur egungo Latinoamerikako emakumeen emigrazioarekin dituen antzekotasunak nabarmendu behar dira. Gaingiroki, bi kasuetan muga nazionala, emigrazio klandestino, multitarea ahalbidetzen duten sistema ekonomikoa zein genero sistema, eta hori guztia barne hartzen duten protagonistak daude: landa eremuko emakumeak.

HITZ GAKOAK: Ainarak, espartinak, emigrazioa, muga, landa-eremuko emakumeak.

## ABSTRACT

The emigration of the Spartan industry was a temporary, cross-border female emigration in which, from 1850 to the 1930s, hundreds of teenage girls crossed the Pyrenees every winter, from the valleys of Navarre and Aragon to the cities of the south of France. This network created by the young women who, disassociated from the nationalist boom, believed they shared a common history with the other side of the Pyrenees, and the transnational bonds of affection that were forged between those who left and settled in France and those who returned to the village and did not return to France, show that

The Memory of the Ainarak metaphorically symbolizes the conservation of the mirror that are both slopes of the Pyrenees.

That said, the study of the Ainarak is not only relevant in a pre-industrial framework and at a local level, but in a post-industrial framework and at a global level it is worth highlighting the similarities it has with the current Latin American female emigration. Broadly speaking, in both cases there is a national border, a clandestine emigration, an economic system and a gender system that gives rise to multiemployment and protagonists that encompass all of this: rural women.

KEYWORDS: AINARAK; espadrilles; emigration; border; rural women.

# Mezu estetiko eta politikoa intsumisioaren karteletan\*



IRATI GARCÍA ETXEONDO

*Universidad Pública de Navarra / Nafarroako Unibertsitate Publikoa*  
[garcia.13181@e.unavarra.es • <https://orcid.org/0009-0002-2711-4131>]

## Sarrera

Honako artikuluan kontzientzia eragozpena eta intsumisioaren gaiak landuko dira, Euskal Herrian zentratuz 1980-1990 urte bitartean. Helburua, taldeek helarazten zituzten mezu politikoak mezu estetikoekin harremanetan jartzea kartelen analisi formalaren bitartez. Talde ezberdinen eta uneko testuinguruarekin modu grafikoan nola islatu diren ikusiz.

Aintzat hartuta talde ugari osatu zuten mugimendua izan zela, Euskal Herrian ordezkatzeko zituzten hiru joera nagusiak kontuan hartu dira. Alde batetik, Kontzientzia Eragozpen Mugimendua, bai eragozpen eta intsumisio kanpainetan garrantzi gehien izan zuen taldea izanda, bai estatu mailan eta maila lokalean. Euskal Herri mailan Kakitzat aurkituko genuke eta azkenik Ezker Abertzalea, ez da mugimenduan zentratu aurkitzen dugun joera bat, baina marko espaziala Euskal Herrian zentratzean honakoa aztertzea garrantzizkoa aurkitzen dugu izandako presentzia eta ibilbidearengatik. Hain joera zabala denez, analisirako JARRAI gazte erakundearen zentratzen da. Aintzat hartuta landuko den gaia, kontu orokorretatik taldeen azalpen eta analisi artistikora joko da, azkenik hauen ondorioak azalduz.

Kontuan izan behar dugu, ia 30 urte iraun zuen mugimendua daukagula, beraz, ibilbide luze honetan testuinguru ezberdinek zeharkatu zuten. Aurrekariak frankismo amaieratik 2000. urtera bitarte Derrigorrezko Zerbitzu Militarra deuseztatu zen arte. Beraz, 30 urte hauetan kronologiaren aspektua garrantzizkoa somatzen da testuinguruak, taldeak eta gizarteak ezberdinak direlako. Honek erakusten dugu gertakizunak estatikoak ez direla eta testuinguruarekin aldatzen joan direla honakoa taldeen erabakietan islatuz.

Modu berean, irakurleak gogoan izan dezala taldeek egiten duten planteamendu teorikoa eta praktikoa arteko ezberdintasunaz. Izan ere, taldeek osatzen zuten pertsonen planteamendu teorikoarekiko adostasunak eta desadostasunak eman ziren. Baina ikerketa honetan alde teorikoan zentratzen da.

\* [Enviado 2024-09-30 • Aceptado 2024-11-03] • DOI: <https://doi.org/10.58504/rgu.38.11>



Azkenik, kartelen analisi formalerako erabilitako metodologia kontuan izan behar dugu, mota honetako ikerketen eza aurkitzen dugu. Horregatik, bai analisi semiotiko eta ikonografikoari dagokionean etorkizunerako horretan sakontzea garrantzizkoa da. Lan honetan burutu dena, hastapeneko hurbilketa izanda.

## 1. Kontzientzia eragozpena eta intsumisioaz

### 1.1. *Auziaren egoera*

Gaiaren inguruan, Nafarroan eragozpen eta intsumisioaz mintzatzen duten ikerketak aurkitzen ditugu. Bereziki, mugimenduaren hastapenen inguruan Pedro Oliver eginiko ikerketa gehienetan Nafarroaren kasua abiapuntu hartzen du. Hainbatetan Nafarroako Memoria Institutuak bildutako testigantzetatik abiatuz (Oliver, 2021, 2019). Baita ere, marko espaziala Espainia izanda (Oliver, 2021, b). Modu berean, estatu mailako ikuspuntua mantenduz 70. eta 80. harmarkadetan hasiz eta intsumisioa betean jorratuz Ordás (2016 eta 2019) aurkitzen dugu. Bestetik, mugimendua ikuspuntu legegiletik aztertu izan da (Sampedro, 2002). Baita ere, ikuspuntu soziologiko batetik Euskal Herriko bestelako mugimendu sozialekin erlazionaturik lantzen dituzten ikerketak (Casquete, 2001) eta (Beorlegui, 2009) aurkitzen ditugu. Kazetaritzaren mundutik Edurne Elizondok testigantzetatik abiatuz intsumisioa jorratu izan du Euskal Herriko egoeraren inguruan (Elizondo, 2011). Azkenik, didaktikaren alorretik ikerketak egin dira bereziki Nafarroako kasua hartuz (Hermoso de Mendoza, 2021).

### 1.2. *Iturriak*

Iturri bibliografikoetatik haratago lehen mailako iturri ezberdinen erabilera garrantzizkoa izan da, bereziki kartelen kasuan. Honetarako, bi bilduma kontsultatu izan dira, alde batetik, Euskal Herriko Kartelak, askatasunaren irudiak 2. (1980-1986) eta 3. (1986-1990) tomoak (Usurbil, 1997). Bestetik, *Pegatas de Euskal Herria 1980-1989* (De Nicolas et al., 2018), bietan mugimendu eta gertakizun sozialen inguruko kartel zein pegatina aurki ditzakegu. Aurkitzen diren bi formatu hauen arteko ezberdintasuna tamainan aurkituz, pegatinak kartelak baino sinplifikatuagoak izanda. Azkenik, Sancho el Sabio artxibategi digitala kontsultatu da, honakoa ez dago soilik kartelen bilketara bideratua.

Ezker Abertzalearen kasua aztertzekeo nahitaezkoa izan da lehen mailako iturrietara jotzea. Azken batean, soldaduskarekiko izandako posizionamendua gutxi aztertu da. Ikertu den gehiengo ETA rekiko loturan zentratuz, bai ikuspuntu sozial edo legegiletik. Horretarako, *Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkaria kontsultatu da. Ezker Abertzaleko ideologiari lotuta aurkitzen dugu, baina haren azkeneko zenbakia 1990ean izanda intsumisioari ez dio gaiari arreta jartzen, ez aurretik garaturiko eragozpenari. Modu berean, *Egin-en* ateratzen den berria oinarri garrantzitsua izan da zinetan JARRAIk haren estrategia aldaketaren berri ematen duen.

Kontrako kasuan KEM-MOC aurkitzen dugu, kontsultaturiko iturri gehienetan presentzia nabarmena izanda, argi utziz mugimenduaren berretzailetakoa bat

izan zela. Honakoak eragiten du KAKITZAT bezalako taldeak bezala soilik aipuak baino ez agertzea sakontasunean aztertu gabe.

Lanean zehar bestelako iturriak erabili dira, Kontzientzia Eragozpena eta Intsumisioaren artxibategia Nafarroan bertan aurkitzen diren testigantzak erabiliz. Artxibategi hau estatu mailan mugimenduari eskainia aurkitzen dugun bakarra izanda. Kasu honetan, honako atalen testigantzak kontsultaturik: Kakitzat, Nafarroa Intsumitua, Emakume intsumituak, *AFOINA* eta Dispersioa estrategia anti errepresiboa atalak. Kasu honetan, Ezker Abertzaleari eskaintzen zaion atalean soilik Kakitzat edota KEM-MOCeko partaideen bertsioa aurkitzen dugu eta ez Ezker Abertzaleko kideek kontaktuta. Baita ere, argitzea lanean zehar artxibategiari erreferentzia egiteko KEIN artx.dig., urtea eta atala azalduko da.

## 2. 30 urteetako ibilbidea

Mugimendu honen garapena Mugimendu Sozial Berrien<sup>1</sup> barnean aurkitzen dugu. Mendebaldeko Europan 70.hamarkadan gizarte post-industrialaren garapenaren ondorioz. Belaunaldi honetako mugimendu berriek ez dira alderdi politiko baten menpe egongo (Beorlegui, 2009, or. 164-169). Era berean, antolamenduan berezitasuna aurkitzen dugu, honakoa kolektibotasunarekiko kezka izanda edota gai berrien lantzea, esaterako; ingurunea, genero auzia edota gatazka internazionalak (Ibiaga et al., 1996, or. 95-166), hauek postmodernitatearen barnean txertatuz. Euskal Herriaren kasuan Casqueten arabera mugimenduen nabarmentzea aurkitzen dugu, ematen den errealitate politikoarengatik nazionalismo ez konstituzional batengatik baldintzatuta, horrek jendea mobilizatzeraz eraman zuen (Casquete, 2001, or. 73).

Kontzientzia Eragozpenaren hastapenak frankismoaren amaieran aurkitzen ditugu 70.hamarkadan. Hastapen hauetan eragozle gehienak izaera erlijiosoa zeukaten, izan Jehova Testiguak, Pax Christi, Justicia y Paz... baina profil aldaketa bereziki Frantziatik etorri zen, Arca-ko aldean ereduaren eraginagatik (Beorlegui, 2009, or. 166). Ala ere, 1967an askatasun erlijiosoko legea onartu zen hasierako eragozle hauei egokitzuz (Oliver, 2021, or. 357). Baina Pepe Beunzaren<sup>2</sup> kasuan nahiz eta oinarrizko kristau izan, eragozpena burutzearen arrazoia politikoa izan zen (Beorlegui, 2009, or. 166). Modu honetan 1977an Kontzientzia Eragozpen Mugimendua taldea eratuz. Garrantzitsuenetarikoa da, ez biolentziaren ideia modu zurrunean jarraitzean (Oliver, 2021, or. 364).

Espainiar antimilitarismoaren kasuan garrantzizkoa da testuingurua aintzat hartzea. Azken batean, erregimen militarren jarduteak gizartean balore eta iruditegi negatiboa garatzeak eragin zuen, mugimenduaren garapenean lagungarri izanda (Ibiaga et al., 1996, or. 99). Gainera, 1981eko estatu kolpe saiakerarekin ejerzitua- ren iruditegia kaltetua atera zen.

Honi gehitu behar zaio Euskal Herriaren egoera, zeinetan gatazka armatua aurkitzen genuen. Estatu Espainiarra estatu zapaltzaile bezala hartzen zen, frankismo

garaitik trantsizioan jarraituz. Honakoak, erresistentzia kultural garrantzitsua garatzea eragin zuen (Ibiaga et al., 1996, or. 99). Nazio Espainiarrak ordezkatzeko militarismoaren aurka kokatzea, kanpoko indar zapaltzaile gisa hautematen zelako. Hauxe arrazoa izan zitekeen gizarte-mugimenduen garapen eta nabarmentzean (Beorlegui, 2009, or. 173).

1980ko hamarkadan UCDeK eragozpen legea aurrera ateratzeko saiakera egin zuen arrakastarik gabe (Oliver, 2021, or. 355), PSOE kontra azalduz (Oliver, 2019, or. 112). 1982an PSOEren legegintzaldia hasita aurretiko gobernua Espainiak NATO-ren parte izateko akordioa itxita zegoen. Honek, eragin nabarmena izan zuen bai mugimendu feminista, ekologista, auzo-elkarteetan eta ezkerreko alderdi politikoetan, izan iraultzaileak edota nazionalistak (Ordás, 2016, or. 282). Eragozpen mugimendua testuinguru honetan eragozpen fiskala burutzeko ekintza aurrera eramane zuten besteak beste (Oliver, 2019, or. 113). Garrantzizkoa izango zen 1984an PSOE aurrera eramane zuten Kontzientzia Eragozpen Legea, zeinetan Kontzientzia Eragozpena eta Zerbitzu Zibila erregulatzen zituen. Lege honen arira aldarrikapenak erradikalagoak izan ziren (Ordás, 2016, or. 285).

NATO-ren aurkako mugimendua garatzearen arira, talde ugarien emankortzea eragin zuen Euskal Herrian barne. 1986an eskutitz kolektiboaren estrategia onartuz, honetan eragozleak, KEL legea betetzeari uko egiten zioten Kontzientzia Eragozpeneko Kontseilu Nazionalan. 1988rako PSOE-ren gobernuak aurretik aitortuak ziren eragozleei amnistia aplikatu zitzaizkien mugimenduari indarra kentzeko intentzioarekin (Oliver, 2019, or. 113). Hurrengo urtean, 1989an intsumisio kolektiboaren estrategia martxan jartzen da otsailaren 20an (Ordás, 2016, or. 285). Nahiz eta estatu mailako erabakia izan Nafarroaren kasuan Txantreako Auzotegian onartu zen, KEM, MILI KK eta Kakitzaten artean. Erabaki hori, Euskal Herrian baldintzatzailea izanda (KEIN, art. dig., 2019, Kakitzat atalean).

Maila internazionalan, 1985ean bai garapen militarra eta ikerketen hazkundea eman zen. Estatu mailan PSOE-k aurrera eramandako politiken ondorioz. Espainiaren kasuan helburua NATO-n integratzea zen. Inbertsioa 70-80 mila milio dolarrekoa izanda Espainiak mundu mailan esportazioan 8. postua okupatuz (Caselles eta Pedraja, 1990, or. 68-69).

90.hamarkadarako intsumisioaren estrategia habian zegoen Pertsiar Golkoko gerrarekin kointzidituz, honakoa mugimenduan eragina izanda (Oliver, 2021, or. 355). Intsumisioa bereziki Euskal Herrian berebiziko influentzia izan zuen. Estatuan aurkitzen ziren 5500 intsumisioetatik 3500 Euskal Herrikoak ziren (Ibiaga et al., 1996, or. 96). Kontuan izan behar dugu, ez zela lurralde guztietan berdinean eman, Nafarroak errepresio gogorra jasan zuen (KEIN, art. dig., 2019, Dispersioa estrategia anti errepresioa atalean). Gainera, 1992tik aurrera kartzela zigorra 2 urte, 4 hilabete eta 1 izatera pasa zen. Hurrengo urteko udan ikusita kartzela barnean suertatzen ziren protestak, intsumisioak sartzean 3º ematen zieten. Hauek, *plantearen* estrategiarekin erantzunez, 1993ko abenduan lehenengoa izanik. Argi

izan behar dugu estatuaren nahia mugimenduak protagonismoa galtzean zetzan. Aldi berean, testuinguru honetan AFOINA taldea sortu zen, intsumisioen gurasoez osatuta (Oliver, 2019, or. 116).

Azkenik 1996an Alderdi Popularrak zin egin zuen Ordezko Zerbitzu Soziala eta Zerbitzu Militarren denborak parekatuko zituela. Gainera 1997an desertzio eta intsumisioa kuarteletan estrategiak martxan jarri ziren. Bitartean, estatutik proposatzen zen alternatiba indar armatuen profesionalizazioa burutzea zetzan (Sampedro, 2002, or. 8-9). Azkeneko etapa honetan, ez zen soilik elkartasuna bestelako mugimenduetatik adierazi, Euskal Herriaren kasuan administrazio lokalek udalereak kasu, DZM eta OZS arekin kolaboratzeari uko egin zioten (Ibiaga et al., 1996, or. 103). Azkenean, 2001eko martxoaren 9an DSM deuseztatzeko dekretua aurrera eraman zen, derrigorrezko soldaduska urte horretako abenduan amaituz (Real Decreto 247/2001).

### 3. KEM-MOC

MOC, *Kontzientzia Eragozpen Mugimendua*, 1977ko otsailean jaio zen estatu mailan koordinadora bezala funtzionatzeko, helburua ejertzitoen abolizioa lortzea zen. Talde honek osatzen zuten pertsonen artean ideologia eta joera aniztetaokak aurkitzen genituen. Baina profil aniztasunaren barnean taldea bera ezkerreko ideologia baten barnean kokatzen da, mugimendu antimilitarista honek hartzen duen antolakuntza moduagatik (Casquete, 2001, or. 43). Nahiz eta antimilitarismoaren barnean kokatu baita ere, bestelako mugimenduekin bat egingo du (Ordás, 2019, or. 280). Modu berean, estatu mailako antolaketa izan arren hego Euskal Herriko lau hiriburuetan ordezkaritza zuen KEM izenarekin (Beorlegui, 2009, or. 170).

Talde hau, hasieratik funtzionamendu eta parte hartze horizontala, demokratikoa, asanblearioa eta kontsentsuaren bitartez bultzatu zuten, bozka saihestuz (Beorlegui, 2009, or. 170). Azkeneko hau kontrajartzen da MOC berak *En legítima desobediencia*, liburuan azaltzen duen bezala «y sin embargo, el tener que discutir, votar, etc. acaba poniendo a la gente bastate histórica» [MOC (ed.), 2002, or. 105]. Nahiz eta MOC-eko liburu batean azaldu, orokorrean kontsentsu sozial handia dauka lehen aipaturikoa. Gainera, kartzela barnean izan zuten jarrerarekin alderatuz eta testigantzak kontuan harturik, orokorrean bozka saihesteko joera ematen zen, edozein modutako jerarkiarekin hautsiz (Beorlegui, 2009, or. 170).

Hasieratik defendatu izan zituzten bi helburu nagusienak, alde batetik, kontzientzia eragozpena eskatzeko eskubidea eta bestetik, desobediencia zibilaren alde egitea, ez biolentziaren ideia jarraituz. Garrantzikoa da aintzat hartzea mugimendu honek antimilitarismoa defendatzen duela, azken batean soldaduskaren auzia soilik militarismoak zekartzan arazo bat zen. Honakoa kontuan izanda, baita kanpaina ugari bultzatu zituzten jostailu belikoen kontra, bereziki eguberrietako denboraldian genero ikuspuntua txertatuz. Momentu honetan ere bai, eragozpen fiskala<sup>3</sup> burutzearen estrategia aurrera eraman zen (Olivier, 2021, or. 362 eta 365). Beraz,

talde politiko, erradikala eta alternatibo bezala definitu ditzakegu, bestelako mugimendu sozialekin bat egiten zuena. Haiek proposatzen zuten ejerzituekiko alternatiba, defentsa herrikoi ez biolentoa eratzea zen, desmilitarizazioa oinarri izanda, borroka iraultzailea bultzatuz, eta ez biolentzian oinarrituta (Casquete, 2001, or. 42). Honi gehitu beharko litzaioke, autodeterminazio eskubidea, errepresioaren geldiduna eta ETArekin biolentzia etetea aldarrikatzen zutela (Beorlegui, 2009, or. 170). Azkenengo hau garrantzizkoa da, mugimenduaren hasieran Mabel Kañada erran zuen moduan, ETArekin konfrontazioak izan bait zituzten (KEIN, art. dig., 2019, Emakume intsumituak atalean).

Taldearen funtsezko oinarri bat, hasieratik bultzatu zuena, genero berdintasunaren aldeko joera izan zen. Bereziki hasierako diskurtsoen artean, gizontasunaren eredia jorratzen zuten, baina urteak aurrera joan ahala eta intsumisiotik geroz eta gertuago egonda mugimenduaren maskulinizazio nabaria eman zen, baita ere, diskurtso aldetik. Azkeneko hau testigantzetan ikusi izan zen, taldeko zenbait emakumeek esfortzu hirukoitza egin behar zutela haien iritzia gehiago kontuan hartzeko. Batik bat, ezberdintasuna nabaria zen, haien arteko bileretan «benetako» berdintasuna ematen zela esan genezake, aldiz, komunikatuak modu publikoan esaterako orduan emakumeak esatea batzuetan ez zen oso ongi hartzen gizon batzuen ikuspuntutik (KEIN, art. dig., 2019, Emakume intsumituak atalean).

70.hamarkadan oso ohikoa zen helburuak modu simple batean zehaztea, aldarrikapen taulen<sup>4</sup> bitartez, honakoa ez zen zerbait bereizgarria izan, mugimendu eta talde sozial gehienek erabiltzen baitzuten. Haren garrantzia honakoak ahalbideratzen zuten haien nahiak iritzi publikoan partekatzea. Modu honetan, hamarkada erdialdera modu trinkoago batean zehazten hasiko ziren zeintzuk ziren haien nahiak. Oinarrizkoak izanda 1978 eta 1979 urte artean ezarri zituzten oinarrizko 12 puntuak (MOC (ed.), 2002, or. 102). Haien eginkizuna kontzientzia eragozpena burutu ahal izatea, argudiaketa edo arrazoi politikoengatik, ez soilik erlijio kontuengatik (Oliver, 2021, or. 364). Gainera, gerora MOC-en parte izango ziren batzuk, diktadura amaieran, lau ekimen legal aurrera ateratzeko saiakera egin zuten. Nahiz eta korte frankistetatik ez onartu, eztabaidatuak izan ziren. Kontuan izan behar dugu, proposamenak egin arren inoiz ez, ez zuten helburu bezala eragozpen legala burutzeko intentzioa izan (Sampedro, 2002, or. 6 eta 11). Bestetik, 1979an Araban ospaturiko lehenengo kongresuan, ezarritako oinarrien inguruko desadostasunak eman ziren. Beregainki, belaunaldi eta adin ezberdintasunagatik, honakoa ideologiak baldintzaturata. Azken batean, lanaren hasieran aipatzen den moduan, eragozle «zaharrenek» eta berrien artean testuinguru ezberdinak bizi izana haren pertzepzioa eta egoerari aurre egiteko irtenbide ezberdinak adierazten zituzten. Beraz, MOC-eko partaide «berriagoek» antimilitarismo erradikalago bat bultzatzen zuten geroz eta intsumisiotik hurbilago aurkitzen zena. Era berean, momentu honetan eragozpen fiskala burutzeko ekintza martxan egonda. Bestelako eztabaida, MOC taldearen izaerari eragiten zion, sindikatu edo mugimendu bezala funtzionatzearen artekoa.

12 puntuetan ezarri zuten moduan, ordezeko zerbitzu bat betetzearen alde azaleratzen dira, oraindik intsumisioaren ekintza ez zuen oihartzun handirik. Nahiz eta lehenengo momentu honetan ordezeko zerbitzu baten alde azaleratu. 80ko hamarkadan zehar KEL legea ateratzean Ordezko Zerbitzu Sozialaren kontra kokatuko ziren. Azaleratuz, nola ez zeuden soilik zerbitzu militarren kontra, hura soilik militarismoaren zati bat izanik. Euskal Herriko kasuan, garrantzizkoa da nola KEM-ek edozein motatako ejerzituen kontra azaleratzen den erabateko balore militaristen kontra joanez, hau kontrajartzen da Ezker Abertzalearen korrontearen baitan ematen zen iritziarekin. Baita ere, indar armatuen egunarekiko boikota azaleratuz. Honakoa, 90.hamarkadan Ezker Abertzalearen barnean eman zen aldaketaren ondorioz batzen dira.

1980ko hamarkadari begira, lehenengo urteetan zehazki 1979 eta 1982 urte artean geldiene moduko bat eman zen, 1983an UCD-ren legearen zirriborroa atera zen arte. Batez ere, geldiene honen adierazle Iruñeko KEM taldeak izan zuen egoera adierazgarria suertatzen da, banaturik egon zelako deskonexioa emanez, inkluo lehenagotik Iruñetik desagertuz (Oliver, 2021, or. 41). MOC-ek haren liburuan argudiatzen zuen emandako ahultasuna, taldeak funtzionatzeko moduengatik eman zela. Honek eragin zuen taldearen barnean tentsioak areagotzea, esaterako denbora gehien zeramatzaten pertsonak nekea azaleratzea eta pentsatzeko modu ezberdinen arteko talka. Hamarkada honen hasieran MOC-ek landuko zituen lau gai nagusiak honakoak izanda: eragozpen legea, eragozpena milia ondoren eta kuartila militarren itzulera, emakumea eta indar armatuen erlazioa eta eragozpen fiskala besteak beste (MOC (ed.), 2002, or. 123-125).

Testuinguruan aipatzen den moduan UCD-ek garaturiko proiektuari uko egin zitzaion. Ondoren, KEM-ek KEL legea (1984) ez betetzearekin mehatxu egin zuen, honek parte hartzaileen artean errepresioa eta marjinaltasunarekiko ziurgabetasuna ematea eragin zuen. Aurreko talde banaketa kontuan izanda, bi estrategia aurrera eramane zituzten, alde batetik, Herriaren Defendatzailea konbentzitu zuten errekurtsio bat aurkezteko, honakoak legea bertan behera uztea helburu zuena. Eta bestetik desobedientzia zibilaren erabilera modu kolektibo batean 1985eko otsailan martxan jarri zutena. Gainera, arrakasta lortu zuten eskutitz kolektiboaren strategiaren erabilerarekin, honakoa ez zen soilik KEM-ek bultzaturiko kontu bat, baizik eta bestelako taldeek bultzatu zutena (Oliver, 2021, or. 367). Argi zeukaten tribunalek ez zutela eskutitza onartu behar (MOC (ed.), 2002, 115.or) era berean, legearen kontra joatea OZS-arekiko ezkortasuna emanez, nahiz eta aurreko hamarkadan zerbitzu zibila proposatu. Kontuan hartzekoa da, estatuak proposatzen zuen oinordeko zerbitzua eragozlearen kontra joaten zen. Alde batetik, egitura militarra jarraitzen zuela, gainera zerbitzu militarra baino iraupen luzeagoa izanda eta eragozleek hura bete ahal izateko bakearekin erlazioz egotea eskatzen zuten (MOC (ed.), 2002, or. 113).

Beraz, nahiz eta hasiera batean OZS moduko bat proposatu eta hamarkada honetan horren kontra joan, aldaketaren zergatia ulertzea garrantzitsua da, liburuan azaltzen moduan:

*«hay quienes no comprenden que el mismo movimiento e incluso las mismas personas (como el caso de Pepe Beunza) que proponían hace años el SC, rechacen ahora la PSS y aboguen por la insumisión. Aunque a algunos les pueda parecer de entrada chocante, lo cierto es que no existe ninguna contradicción en ello. No son los objetores los que han cambiado, sino las circunstancias y la sociedad»* (MOC (ed.), 2002, or. 126).

Hamarkadaren erdialdetik gertu, geroz eta mugimenduaren erradikalizatzea nabarmenagoa zen eta lehen aipaturiko ekintzak aurrera eramateaz aparte, baita kartilen bueltatzea eta emakumea ejerzitian paper bat izatearen kontrako diskurtsoa garatu zen.<sup>5</sup> Geroz eta gehiago intsumisioaren ideia entzuten joango zen 1983-1986 bitarte. Halaber, bestelako mugimendu sozialekin elkar harramantzen joan ziren bere II. kongresuan zehazten duten bezala. Garrantzizkoa da, 1988an ospaturiko asanbladan Zaragozan bai KEM eta MILI KK intsumisioaren estrategia aurrera eramatearen alde egin zuten, estatu mailako erabakia izanik (Oliver, 2021, or. 370-371-373).

1989ko urtarrilean intsumisioa OZS-ari egitearen estrategia aurrera eraman zen. Lehenengo urte hau, aurre intsumisio bezala har genezake, honetan, manifestua argitaratu zuten zerbitzu militarra deuseztatzeko nahiarekin Euskal Herriko egunkarien bitartez iragarri, zeinetan, soldaduskarekiko erabateko oposaketa erakutsi zuten. Bestalde, KEL legearen ezeztapena eta elkartasuna adierazi zuten bestelako eragozle presoekin (Casquete, 2001, or. 64). Hasiera batean ezarri ziren kondenak urte batekoak izan ziren, inolako deliturik izatekotan libre geratzen ziren, aldiz 2,4,1 zigorrarekin, 3<sup>o</sup> gradua oso erraz ematen zuten eta honi aurre egiteko plantearen estrategia aurrera eraman zuten. Azken batean estatuak bilatzen zuen mugimendua isiltzea eta horretarako kartzelak uztea izan zen estrategia. Aurretik esandakoaren arira, plantearen estrategia burutzea bilatuko zuten, lehenengo plante 1993ko abenduaren 13an izanda, honakoa estatu mailan emanda (Oliver, 2021, or. 183). Kontuan izan behar dugu, nahiz eta kartzela barnean talde ezberdinetako kideak egon, elkarrekin aritzen ziren ekintzak eta bestelakoak burutuz.

Azkenik, 1997tik estrategia aldaketa eman zen, honakoa intsumisioa kuarteletan aurrera eramanez, beraz 2001era arte azkeneko etapa bezala kontsideratu genezake (KEIN, art dig., 2019, Kakitzat atalean).

### 3.1. *Kartelen analisisia*

#### 3.1.1. *Kartel mutua*

##### **Arloa eta funtzioa**

KEM-MOC-en lehenengo kartel honetan, haren egilea eta datak azaldu ez arren, ateratako iturritik Euskal Herriko kartelen bildumatik da, 80.eko hamarkadakoa izan zitekeela pentsa genezake liburuak ematen duen informazioagatik, testuinguru

labur bat egiten baitu, zeinetan Euskal Herrian armaden kontra egotea paradoxa izan zitekeen, baina honakoa emango zen etorkizuna iragarritz (Ubierna, 1997, or. 229).

### Deskribapena

Irudian ikusten den moduan, militar baten lehen planoan ageri zaigu, nahiko sinplifikatua eta ahoa irekiarekin. Haren barnean agertzen den pertsona barrote batzuen atzetik ageri da, kartzela barnean egongo zen itxura emanez eta nahiko sinplifikatuta. Pertsonaren espresioa nolabait negatiboa edo «tristura» modukoa azaltzen du. Era berean, militarren sudurra izango litzatekeena kartzelaren barroteak izango zirenaren sentsazioa edukiz. Hortaz, eragozleen kartzelaratzeari islatzen du, bigarren hamarkada honetan intsumisioa eta kartzelaratzeari masiboak ez eman arren, batzuk bai eman ziren, bestelako arrazoiengatik.<sup>6</sup>

### Kolorea

Bi kolore nabarmen ageri dira, horia eta txuria, kontuan izanda KEM-MOC-eko kartelen estetika, orokorrean besteak baino xumeagoak eta kolore gama murriztekoak direla. Honakoa izan daiteke taldeak berak zeukan aurrekontuagatik, baina suposizio hutsa da, kontuan izanda inprimatzerako orduan, geroz eta kolore gehiago izan, orduan eta garestiagoa.

Horrez gain, txuriaren erabilera (orrikoa), bakea irudikatzeko oso ohikoa da, taldeak defendatzen zuen ez biolentziarekin erlazionatuz. Bestetik, horia KEM-MOC mugimenduan oso erabilia izan da. Kolore honen erabileraren arrazoia, momentuko egoera politikoa aztertuz ez zen oso ohikoa talde politiko ezta sozialek erabiltzea. Beraz, kolore honen erabileraren zergatia, ordura arte erabiltzen ez zelako. Gainera, kolorea bera, oso kolore bizia eta deigarria da, alde sinbolikotik begiratu, bizitasuna, positibotasuna... adierazten du, mugimendu honen helburuetako bat izanik.

Esan dezakegu KEM-MOC lehenetarikoa izan zela kolore hau erabiltzen mugimendu sozial batean. Horretan oinarrituz eta gaur egunera etorritik, horia erabiltzen da, bai talde politiko eta gizarte mugimenduetan. Azkenaldi honetan esaterako, oposizio eta estatuaren kontra joateko taldeek eta mugimenduek erabili dute, esaterako «Proçes», frantziako «Gilets Jaunes» edota Carlos III Ingalaterrako erregearen koroatzearen, haren kontrako ekimenetan horiz jantzi baitziren. Beraz, gaur egun baita salaketa adierazteko kolore bezala erabiltzen da.



Irudia. 1 Kartel mutua. (Ubierna 2, 1997).



### 3.1.2. *Maiatzaren 15 Kontzientzia Eragozpenaren nazioarteko eguna.* *Insumisioa. Abolición del erjercito*

#### Arloa eta funtzioa

KEM-ek 1990.urtean, maiatzaren 15ean nazioarteko intsumisio egunaren ospakizunerako eginiko kartela, egun hau iragartzeko intentzioarekin egina. Adieraziz, edozein motatako ejerzituren kontra daudela, nazioarteko ospakizun baten bitartez.

#### Deskribapena

Lehenengo planoan munduko bola karikaturizatuta agertzen zaigu arreta gune nagusia izanda. Garrantzitsua da, «munduak» daukan jarrera, azken batean besoekin saiatzten ari baita militarren kaskotik ateratzen, haren espresioaren bitartez, kezka, desadostasuna... adieraziz. Kaskoaren erabilera, ez du soilik KEM-ek erabiltzen baizik eta bestelako taldeek haien karteletan erabili ohi dute, bestelako elementuekin batera. Kakitzaten kasuan geroago aipatuko denez Gernikako koadroko pertsonaia erabiliz, MOC-en kasuan munduaz aparte, margaritarekin konbinatzen dute.

Marraskia bera komikiaren estiloaren sentsazioa ematen du, erabilitako onomatopeiak eta lerroek mugimendua eta dinamismoa emanez. Esaterako, mundua kaskoaren barnetik ateratzeko ekintza adieraztean, honi jarraitzen dizkioten onomatopeiak eta lerro kurbatuak boteak ematen joango balitz bezala hautematen da. Dinamismo horri adierazkortasun gehiago emateko «izerdi» tantak erabiltzen ditu, kaskoan buxatuta egongo balitz.

Azken batean munduaren objektuaren erabilera KEM-ek erabiltzeak, haren pentsamoldearen adierazle baita. Azkenean, talde antimilitarista da, haren barnean soldaduska arazoaren parte bat izanik. Kasu honetan intsumisioa, ejerzituenganakoa da, ez soilik miliaren kontrakoa. Beraz, nazioarte mailan egon ahal diren gatazka belikoen eragina egon zitezkeen esaterako Golfoko gerra.

Azkenik, kaskoaren barnean garrantzizkoa da agertzen den mezua «nasió pa matá», hiltzeko jaioa, geroago landuko dena. Azkenik, beheko aldean bi logotipo agertzen dira, alde batetik MOC-ena (margarita eta kaskoa) eta bestetik arma bat erditik puskatuta, honakoa ez du soilik MOC erabiltzen baizik eta antimilitarismoaren ikur da, zehazki *War Resister's International*, Gerrenganako Erresistentzia Internazionala taldearena, MOC horren parte dena, berriz ere, haren izaera internazionala agerian utziz.



Irudia. 2 Kontzientzia eragozpenaren nazioarteko eguna, 1990 (Ubierna 3, 1997).

## Kolorea

Koloreari dagokionez, lau kolore ageri dira, alde batetik beltza fondoan irudikatzeke eta horren gainean aurkitzen den marrazkia goraiatzeko, arreta gune bilakatzeko. Lehendabizi, berdea kolorearekin elementu zehatz batzuetan erabiltzen da. Kasu honetan, militarrekiko erlazioa adierazten du, azken batean militarren uniformeak kolore horretakoak dira. Baita, ez da kasualitatea «*abolición del ejercito*» jartzean, ejerzituaren inguruko hitz hauek baita ere berdez agertzea, erreferentzia zuzena eginez. Beraz, kasu honetan eta MOC-eko beste karteletan berdea, militarrek irudikatzeke erabiltzen dute, baita, Kakitzaten kasuan ematen da, baina ez du beti zentzu berdina hartzen.

Bestetik, kolore horia nabarmentze handia dauka, goitik hasita ez da kasualitatea «kontzientzia eragozpenaren...» hitzek horiz agertzea azken batean horia KEM-ekin erlazio zuzena dauka. Munduaren barnean islatzen diren herrialdeak, baita kolore berdinarekin egotea interpreta ditzakegu herrialde guztiak ejerzituaren kontrakoak direla, zeinetan normalean berdez edo marroiez irudikatzen diren eta ura egongo zen tokian txuriz uztea izan dezakeen esanahia bakezalearengatik. Ere, ez da kasualitatea intsumisioa hitza agertzen den zati horretan kolore berdinez azpimarratzea ezta, taldearen izena eta logotipoak kolore berdinarekin adieraztea.

## Tipografia

Tipografiari dagokionean, bi letra mota ezberdintzen dira, alde batetik, zurruntasuna eta serifarik gabeko hizkia, zeinetan eragozpenaren nazioarteko eguna iragartzen den. Bestetik, aurrera eramaten ari diren ekintza, intsumisioa idazteko makinaren itxura eduki zezakeen, honako letrak maila eta inklinazio ezberdinetan kokatuz, bestelako letra adierazten duen «zurruntasun» edo estatikotasunarekin apurtuz, dinamismoa emanez. Honakoak, Iñaki Elso disenaturik izan ziren.

## Mezua

Kartel honen mezuari erreparatuz ikusten da nola Kontzientzia Eragozpenaren inguruko egun internazionala iragartzeko mezua ageri den. Nahiz eta talde gehiago honen parte hartzaile izan, KEM-en kasuan adierazten du haren joera, «**nazioarteko**» eta «*international*», hitzen bitartez bi hizkuntzetan adieraziz. Alde batetik, euskeraren kontua KEM-en barnean garrantzizko zerbait zen eta erabat onartuta zen (Oliver, 2021, or. 58). Bestetik, ingelesaren erabilerarekin, adierazten du nola ez zen soilik Euskal Herrian aurkitzen zen mugimendua, honakoak estatu mailako egiturak gaindituz.

Garrantzizkoa da, kaskoan agertzen den mezua «*nasió pa matá*», azken batean miliaren kontra egiteko argumentu bat da. Kontuan izan behar dugu, lelo hau, garaian *El jueves* aldizkarian argitaratzen zuen atal bati zegokiola, miliaren ingurukoak.<sup>7</sup>

### 3.1.3. *Intsumisioa. Salgamos de la prehistoria ¡Plántate! Solución ejércitos abolición*

#### Arloa eta funtzioa

«Salgamos de la prehistoria ¡Plántate! Solución, ejércitos abolición» kartela, Sancho el Sabio fundaziotik ateratakoa da, honen egilea Iñaki Elso izanik. Urtea ateratzen ez bada ere, jorratzen duen gaiagatik Jurassic Park filmean oinarritu da. Beraz datu hau kontuan izanda, bi urte tartetan eginda egon daiteke, alde batetik, 1993an, lehenengo data hau zentzua edukiko zuen lehenengo filmaren estreinaldiarekin kointziditzen duelako, beraz 1993-1994 urte artean koka genezake. Horretaz gain, kartelean adierazten den moduan «¡Plántate!» hitza erabiltzea, 3º plantearen estrategiaren hasierarekin bat dator. Beste data bat 1997-1998 urte artean izango litzateke bigarren filmaren estreinaldiarekin kointzidituz, baina data honetan kokatzea ez diot hainbeste zentzu ikusten azken batean urte hauetarako mugimenduaren estrategia kuarteletan intsumisioa aurrera eramatearen ekintzan zentratutik zeuden.

#### Deskribapena

Kartel hau ikusita argi geratzen da Jurassic Park filmari aipamen egiten diola. Justu 90. hamarkadako estreinaldiarekin kointzidituz. Beraz, erabiltzen duen ikonografia eta koloreak nire ustez filmaren estetika jarraitzean zentratutik egon daitezke. Nahiz eta filmaren estetika jarraitu, ikusten da nola erdiko dinosauroa filmaren ikur dena, gerrara joateko tresneria ipini diotela, bai kaskoa eta fusila eramanez, elementu hauek borobil baten barnean integraturik. Bestetik, kartelaren mezua, «plántate» hitza arreta gehiena eta erakar gune bezala har daiteke. Baita ere, beheko aldean KEM-MOC-en logoa ageri zaigu, elementu grafiko guzti hauek marko txuri baten barnean.

#### Kolorea

Koloreari dagokionez hiru kolore ageri dira, alde batetik txuria, kasu honetan haren zentzua fondo beltzarekin kontrastea egitea da. Beltzaren erabilera txuriaren erabilera berdintsua izango zen, kontratastea eta estetika kontuak jarraitzea. Aldiz, gorriaren erabilera filmaren estetika jarraitzen du eta bestetik, odolarekin erlazio-



Irudia 3 *Salgamos de la prehistoria*, 1993 (Sancho el Sabio fundazioa).

natu daiteke. Baita, xehetasuna izan daiteke KEM-MOC-en logotipoan petaloak txuriz mantentzea eta ez gorriz.

### Mezua eta tipografia

Kartel honen benetako zentzua eta garrantzia ematen diona, mezua da. Goi-tik hasita, intsumisioa hitza ageri da, erabiltzen duen tipografia betiko estiloan eta aurreko kartelean azaldutakoak dira, kartel gehienetan errepikatuz. Bestetik, «sal-gamos de la prehistoria» esaldia ageri da, azken batean ejerzituak Antzin Arotik existitu diren organoa daukagu, hortaz ejerzituak atzerakoiak eta duela denbora askoko kontua dira, horregatik proposatzen dute gizarte bat zeinak ejerziturik ga-bekoa. Azkeneko hau, erlazio asko dauka azkenengo esaldiarekin ejerzituaren defi-nizio moduan erraten du, «*El ejército: una tortura que comenzó hace 16 millones de años*». Ematen dion konnotazio negatiboa, torturaren bitartez.

Azkenik, kartelaren erdialdean eta tamaina handiagoan, *¡Plántate! Solución, ejércitos abolición*, ageri da. Honetan ikusten da nola apelatzen dion ikusleari, *plantate* horretan integratuz eta ondoren zein den hori konpontzeko zeregina azalduz, «*Solución, ejército abolición*». Hala ere, kontuan hartzekoa da, ez direla gauza bera in-tsumisioa, ejerzitudekiko edo miliarekiko. Milia egitearen kontra egon zaitezkeelako baina ejerzituaren aldekoa izan. Argi geratuz KEM antimilitarista dela eta ez soilik antimilia. Kasu honetan tipografia ez da oso adierazkorra, kenduta zirkunferentzia barnean dauden hizkiak filmaren estetika jarraitzen dutela.

### Ondorioa

Kartel honen hautaketaren zergatia bada adierazteko nola gizarte mugimenduek eta bestelakoek ez daudela isolaturik eguneroko kontuetan, erakutsiz kultura geroz eta globalizatu baten eragina.

### 4. Kakitzat

Euskal Herri mailan Kakitzat koordinadoraren presentzia aurkitzen dugu, baina hura ulertu ahal izateko, haren aurrekari gisa MILI KK-ren zenbait kontu aintzat izan behar ditugu, Kakitzaten funtzionamendua eta joera politikoak ulertu ahal izateko. MILI KK 1983an estatu mailako taldea sortu zen. Talde honek ezker iraul-tzailearekiko lotura eduki zuen, baino honek ez zuen esan nahi taldearen barnean soilik ideologia eta talde politiko zehatz batzuetako pertsonak osatzen zutenik, esa-terako oinarri kristaueko pertsonak ere aurkitzen ziren (KEIN, art dig., 2019, Kaki-tzat atalean) edota, MOC-eko militante batzuk taldez aldatzean (Beorlegui, 2009, or. 172). Argi izan behar dugu, zein zen ezker erradikala eta ezker klasikoaren ar-teko ezberdintasuna, José Manuel Chico, Asturiaseko lehen intsumiso izandakoari eginiko elkarrizketan azaldu zuen moduan, nola ezker klasikoak ez zuela ez eragoz-penean edota intsumisioan pentsatzen, haien eginkizuna bazen soldaduskara joatea eta behin han egonda sindikatua eratzea soldaduska egiten zeudenen eskubideak bermatzeko (Chico, 2016).

70.eko hamarkadan MILI KK eratu baino lehen ezker iraultzailearekin bat egiten zutenek, zerbitzu militarren barnean komiteak eratzea helburu zuten, dena den, hasieratik soldaduskari uko egitearen aldekoak aurkitzen genituen (KEIN, art dig., 2019, Kakitzat atalean). Hala ere, 80.ko hamarkadaren erdialdera arte itxoin behar-ko zen MILI KK kolektiboak Santa Kolomako ekitaldian sortzen den arte. Urte horietako testuingurua aintzat hartuta, NATO-ren aurkako kanpainan sortzea, positiboa izan zen taldea garatzeko eta zabaltzerako orduan. Hortaz, estatu mailan MILI KK talde ugarien nabarmentzea eman zen (Oliver, 2021, or. 366-371).

Honen ondorioz, 1986an Kakitzateko lehenengo taldeak Gipuzkoan sortzen dira,<sup>8</sup> OTAN-en kontrako kanpainaren eraginez, MILI KK-ren eremuan oinarrituz. Batez ere, Kakitzaten presentzia Bizkaian eta Gipuzkoan nabarmenduko zen Nafarroarekin alderatuz (Oliver, 2021, or. 120), bereziki, Gipuzkoan indar gehiena jasoz (Beorlegi, 2009, or. 172). Bereizgarria da, taldearen izaera euskalduna, Euskal Herriko koordinadora bezala funtzionatuz. Hasiera batean talde txikietan antolatzen ziren, haren zabalkunderako bai hasieran eta 90.eko hamarkadan sarturik institutuetan hitzaldiak egiten zituzten gazteengan kontzientzia sortzeko. Izaera askoz ere erradikala eta kontra kulturala bultzatuz. Hortaz, eragin zuen taldearen barnean 18-20 urteko neska mutilak egotea, baita ere, 30 urte inguruko pertsonak, azkeneko hauek behin taldearen sorkundetik egonkortasuna lortu zenean belaunaldi berriei taldearen kontrola utzi zieten (KEIN, art dig., 2019, Kakitzat atalean). Hori bai, dena positibitatez eta irudimena erabiliz (Oliver, 2021, or. 109). Helburua, Euskal Herriaren barnean, kaleak eta ekintzak modu ezberdin batean burutzea, poztasuna adieraziz, uneko testuinguru latza alde batera utziz (KEIN, art dig., 2019, Kakitzat atalean).

Genero kontuari dagokionean hasieratik genero berdintasunaren aldekotzat jo zuten, baina testigantzetan azaltzen den moduan, bai Kakitzat edota MOC-ekoak izan, patroik berdintsu bat jarraitzen zuten. Alde batetik, aurkitzen ditugu emakumeak bere kontuz militaritzen zutela, baina beste batzuk, parte-hartzaile baten neska-laguna, laguna edo arreba zirelako, hala ere, hautariko askok gerora militaritzen jarraitu zuten (Oliver, 2021, or. 124).

Koordinadora honen garrantzizko aspektua, antimilia bezala zehazten da eta ez horrenbeste antimilitarista KEM bezala. Honakoa adierazkorra da soldaduskaren indargabetzearen ondorioz, bai Kakitzat eta Nafarroa Intsumitua ez zuten etorkizun handirik izan, antimilitarismoaren barnean milia soilik atal bat zen (KEIN, art dig., 2019, Kakitzat atalean). Orokorrean, KEM-MOC askoz ere teorikoagoa eta intelektualki konplexuagoa zen. Aldiz, Kakitzat ekintza zuzenak burutzean arreta jartzen zuen, bilatzen baitzuten mugimendu jendetsua eratzea (Oliver, 2021, or. 121). Baita ere, alde teorikoaren lanketa urria egiten zen, agiririk edo dokumentazioa egin gabe, garrantzia bestelako kontuetan jarriz (KEIN, art dig., 2019, Kakitzat atalean). Aintzakotzat hartuz, KEM-en oinarritzko ideia garrantzitsuenetariko

bat ez biolentzia zela, Kakitzaten kasuan ez biolentzia onartzen zuten baina ez hain modu zorrotzean. Eta ez hori bakarrik, KEM-MOC soilik eragozpenaren estrategia onartzen zuen aldiz, MILI KK edo Kakitzat, baita jarraitzen zuten, baina bestelako aukerak onartuz, pertsona oro lekua izanez (KEIN, art dig., 2019, Kakitzat atalean). Kakitzateko lehenengo taldeak Nafarrora iristean KEM-eko Teo Llorensen eta partaide batzuen hitzetan, uste zuten EMK eta LKI-k bilatzen zutela KEM berenganatzea eta haiek proposaturiko egitura ezartzea (Oliver, 2021, or. 119).

Halaber, garrantzizkoa da Kakitzat eta Ezker Abertzalearen arteko erlazioan, haien artean parekotasunak iruditu arren, ikuspuntu kritiko batetik aztertzen zuten (KEIN, art dig., 2019, Kakitzat atalean).<sup>9</sup> Hasieratik, Euskal Herriko aldekotzat izanda ere, ez zeukan inolako lotura ez ETArekin, ezta Ezker Abertzalearekin, baina Kakitzaten barnean JARRAI eta Ezker Abertzaleko kideak egon ziren (KEIN, art dig., 2019, Kakitzat atalean). Hala ere, bi talde hauen arteko talkak eman ziren, pentsa genezake Kakitzaten izaera euskalduna izan zitekeen arrazoi JARRAIko kideak taldearen parte izateko, intsumisio «nazionalista» baten ideia bultzatuta. Euskal Herriko giroa kontuan izanda, Ezker Abertzalea presentzia handikoa izan zen alor askotan hegemonia edukiz, beraz, gai honetan baita bilatuko zuen. Kasu honetan, haren funtzionamendua ezin ezarriz, Kakitzat eta eragozle-intsumisioen ideietara egokitu behar izan ziren. Hala ere, Kakitzat Ezker Abertzalea iritziz aldatzeko eragina izan zitekeen pentsa genezake.

Talde sortu zenetik, intsumisioaren estrategia 1988an adosten da, lehenengo atxiloketekin kointzidituz, ondorioz bilerak teorizatzen joaten dira. Teorikotasun hau bereziki Gipuzkoan eta Bizkaian nabarmenduz. Garrantzizkoa da, Kakitzat talde alegala izan zela, beraz modu batean edo bestean KEM-en estaldura beharrezkoa zuen, manifestaldiak eta abar antolatzeaz gain (KEIN, art dig., 2019, Kakitzat atalean), ekintzak maila lokalago (Euskal Herrikoa) batean burutu zituzten KEM-ekin alderatuz (Beorlegui, 2009, or. 173).

KEM-en kasuan bezala, 1990eko hamarkadan Txantrean osaturiko Auzotegian 3º graduari planteatu burutzearen erantzukizuna hartzen dute, honakoan KEM, Kakitzat eta MILI KK-k parte hartuz. Euskal Herri mailan Nafarroan baiezkoa ateratzea, lurraldeko bestelako tokietako erabakia baldintzatuz (KEIN, art dig., 2019, Dispersioa estrategia anti errepresiboa atalean). Aintzat hartu behar dugu, erabaki hau aldi berean estatu mailan hartu zela. Modu orokor batean aztertuta, ikusten da nola urteak aurrera joan ahala geroz eta jende gehiago taldera batzen zela, testigantzetan aipatzen duten moduan, manifestaldietan 25-30 pertsona izatetik, 15 000 pertsona izatera pasa ziren, ordea, «15 000» pertsonetako manifestaldi hauek maila orokorrean antolaturikoak ziren, alegia, ez zen soilik Kakitzat antolaturikoak. Batez ere, parte hartzearen gorakada asteartean Iruñeko lokal batean ospatzen zituzten bileretan geroz eta jende gehiago hurbiltzen zitzairen (KEIN, art dig., 2019, Kakitzat atalean).

Behin plantearen estrategia martxan jarrita, eta mugimenduak harturiko funtzionamendua kontuan hartuz, Kakitzaten helburuak beteak bezala har genitzake. Azken batean, kaleak modu ezberdin batean betetzea eta manifestaldietan inolako liskarrik ez ematea lortu zuten. Erakutsiz, bestelako gizarte eredu baterako bidea. Gerora, 1994-1996ra bitarte, plantearen estrategiak garrantzia hartuz, ugaritze garaia eman zen, talde berriak sortzean, esaterako, Nafarroa Intsumituaren kasuarekin (KEIN, art dig., 2019, Nafarroa intsumitua atalean). 1996rako Kakitzateko kide gehienak kartzelatik kanpo aurkitzen ziren, honek haien ekintzak behera egitea eragin zuen. Bertan konturatuz jarraitzen zuten mugimendu nagusia jada ez zela antimilia baizik eta antimilitarista.

Azkenik, 1997tik aurrera hirugarren eta azkeneko etapa emanez, Kakitzat taldearentzat momentu zailenetarikoak izanik. Hala ere, Intsumisio Egunaren ospakizunarekin Euskal Herri mailan KEM alde egon zen, baina estatu mailako MOC ez horrenbeste. Gainera, egun honen ospakizunean arrakasta itzela lortuz. Dagoeneko, 2001ean azkeneko topaketak eman ziren Euskal Herri mailan (KEIN, art dig., 2019, Kakitzat atalean).

#### 4.1. *Kartel Analisia*

##### 4.1.1. *¡Cortales su ley! Soldaduzkarik ez! Ejerzitua pikutara!*

##### Arloa eta funtzioa

«¡Cortales su ley!» kartelean, 1984ean eginda egon zitekeela pentsa genezake, adierazten duen mezuagatik, PSOE-ren gobernuak, KEL legearen onarpenarekin kointzidituz. Honakoa, kontzientzia eragozpena arautzea eta Ordezko Zerbitzu Soziala proposatzen zuen. Era berean, kartel hau Kakitzaten lehenetariko kartelen artean kokatu ditzakegu, kontuan edukiz, 1984ean Gipuzkoan lehenengo taldeak sortu zirela. Jorratzen duen gaia kontzientzia eragozpenaren inguruko legearekiko kontrako jarrera adieraziz.

##### Deskribapena

Honako kartelean lehen ikuspuntuan guraize itxi batzuk ageri dira, haien barnean intsumisioa hitza ageriz. Bigarren maila batean beheko zonaldeko zabalera okupatuz, bi zinta zati moztuak, hauek Espainiar bandera islatuz. Banderaren barnean soldaduen silueta ageriz, errepi-



Irudia 4 ¡Cortales su ley! Soldaduzkarik ez!, 1984 (Ubierna 3, 1997).

katurik. Guraizeak itxita agertzean zinta moztu duenaren itxura ematen du, modu sinboliko batean bai Espainiar estatuarekin eta soldaduskarekin apurtuz, taldearen bi oinarritzko ideiak agerian utziz.

Bestelako elementuei erreparatuz, logoan zentratuz, ume baten atzealdea ageri da, haren ipurdia kaskoaren barnean daukana, bisualki humorea erabiliz. Berriz ere, kaskoaren elementua ageri zaigu, baina kasu honetan modu ezberdin batean erabilia. Kakitzateko kartel bat izan arren, berez logo hau MILI KK-rena da, atal honen hasieran aipatu den moduan, MILI KK Kakitzaten aurrekari bezala hartzen delako, baieztatuz kartela taldearen lehenengo urteetan burutua izan zela.

Orokorrean, elementuak «errealismorako» joera ageri da, esaterako, guraizeak irudikatzeko orduan errealitatean diren bezala irudikatzea bilatu da, sinplifikazioak saihestuz.

### **Kolorea**

Kolorean zentratuz, beltzaren erabilera argia da, kasu honetan fondoaren gainean aurkitzen diren elementuak gehiago nabarmentzeko. Gainerako koloreei erreparatuz, elementuek osatzen dituztenak errealitateari fideltasunez jarraitzen diote.

Bestetik, soldaduak kokatu diren kolorean, Espainiar banderaren gainean, horia eta soldaduen arteko lotura egin dute, gero hau «soldaduzkarik ez» hitzak horiz ageri dira, soldaduei erreferentzia zuzena eginez.

Letrei dagokionean, *¡Cortales su ley!* txuriz, jarri dute, kontrastea eta arreta deitzeko asmoarekin.

### **Mezua**

Mezuari dagokionean, oso mezu apelatiboa erabiltzen du, *¡Cortales su ley!* *¡Soldaduzkarik ez!* hartzaileren arreta deituz. Oso argia da KEL legearen inguruko testuinguruan ari dela. Aldiz, bigarren mezua, «Ejerzitoa pikutara!», lehenengoaren erantzuna izango litzateke, zein izan beharko zen egin beharrekoa ejerzituetik. Azkenik, intsumisioa besteetan bezala letrak tipografia eta tamaina ezberdinekin jolasten dute.

#### **4.1.2. *Todo por la patria* – Kakitzat**

### **Arloa eta funtzioa**

«TODO POR LA PATRIA. Insumisioa» kartela 1992.urtean egin zen. Testuingurua aintzat hartuta intsumisioaren estrategian erabat murgilduta aurkitzen ziren. Honakoan, metaforaren bitartez, soldaduskaren lehenengo eguneko erreklutamentua islatzen du, obedientzia sutsuari apelatuz.

### **Deskribapena**

Kartelean arreta gune bezala artalde bat aurkitzen dugu, guztiak kuartelerako bidea jarraituz. Kuartela irudikatzen duten eraikinean, espainiar bandera ageri da zeinetan, «*todo por la patria*» esaldia ikus daiteken, oso ohikoa zen honako kuartel militarren atean aurkitzea. Bestetik, elementuak errealitatearekiko pro-



portzioa mantendu arren, ikuspuntu apur bat kontrapikatua erabiltzearen ondorioz, eraikinak nagusitasuna eta pisua hartzen du ardien tamainarekin alderatuz. Era berean, zeruan eguzkia egon behar zen tokian hodeiek estaltzen dute, iluntasuna eta konnotazio negatiboa emanez. Azkenik, beheko aldean, «insumisioa» eta Kakitzat hitzak ageri dira.

### Kolorea


Kartelean erabiltzen diren tonuak ikusita errealitatearekin bat egiten dute, ordea, nabari da dena filtro ilun baten azpian dagoela, seriotasuna eta hoztasuna transmitituz. Bereziki kolore hotzen erabilerarekin eszena horrek adierazten du taldearen iritzia irudikatzen denarekiko. Hau kontrajartzen da Kakitzat behin baino gehiagotan esanda, haien helburua kaleak kolorez eta alaitasunez betetzea zen, honakoan kontrakoa adieraziz.

Bestetik ardien koloreari erreparatuz ikusten da nola irudiaren elementurik argienetarikoa bat dela, honakoa tonu beroetara urbilduz. Bestean bezala horia eta gorria koloreen erabilera Espainiar bandera osatzeko erabili dira, justu artaldea doan norabiderantz. Azkenik, beheko aldean *insumisioa* txuriz agertzen zaigu bereziki fondo ilunarekin kontrastatzeko.

### Mezua

Ageri den mezua adierazgarria ez izan arren, «*todo por la patria*», erakusten du soldaduskara joateak, hantxe transmititzen eta irakasten ziren baloreak aberria defendatzearen aldekoak ziren. Zerbitzu hura eskaintzera joaten zinen egunetik aurrera, momentura arte burutzen ari zenituen kontu guztiak alde batera utzi eta eguneroko eginkizuna zure herrialdearentzat zerbitzu hura betetzea zen. Bereziki, *todo* hitzak obediencia sutsua eskatuz, hortaz, horri aurre egiteko alternatiba edo estrategia, insumisioa izango zen, «*todo por la patria*»-rekin alderatuz espazio eta nagusitasun gehien hartzen du.

Azkenik, Kakitzat idatzita aurkitzen den hizkiekin ikusten da nola ez duen tipografia zurrun bat jarraitzen baizik eta kurbatua eta askoz ere informalagoa.



Irudia 5. *Todo por la patria*, 1992 (Ubierna 3, 1997).

### 4.1.3. *Gure martxa ez da militarra – Kakitzat*

#### Arloa eta funtzioa

Azkeneko kartel hau ikusita, besteak baino bereziagoa da, alde batetik, formatua erabat karratua delako, ilustrazio baten antz gehiago hartuz. Honakoa 1994.urtean egin zen, intsumisioaren mugimendua dagoeneko puntu gorenetako batean aurkitzen zelarik. Honetan martxa militarrei erreferentzia egitean adierazten du nola nahiz eta bereziki antimilitarismoa uztartu zutela.

#### Deskribapena

Kartela ikusita, erdialdeari erreparatuz eguzki moduko bat haute-man ditzakegu, aurpegiera positiboa eta eskua estuturik gorantz apuntatuz. Honen inguruan, soldaduen kaskoa aurkitzen dugu tamaina ezberdinetan errepikaturik zirkulu bat osatuz. Barnealdean, mugimenduaren adierazlea den elementua erabiliz, margarita eta haren eboluzioaren irudikapena. Margarita izatetik mugimenduaren logotipoaren adierazle den Gernikako koadroko pertsonaia bilakatzuz, azkenean kaskotik askatzea lortuz, askatzerakoan intsumisioa idatzia duen banderatxoa eramanez.

Aintzat hartuta Kakitzaten izaera euskalduna eta Euskal Herrian funtzionatzen duen taldea izanik, erlazio hau taldearen logotipoan islatzea Gernikako koadroaren pertsonaietako baten erabileraren bitartez, euskal gizartearentzako daukan zentzuarrengatik, pasarte traumatiko bati erreferentzia eginez. Ez da kasualitatea, hautatutako pertsonaia artelanean daukan papera ikusita, honakoa suan erretzen dagoela ageri da, oraingoan aldiz, kaskotik atera nahian. Bestalde, koadroan bonbardaketa lantzean armekiko lotura estua adieraziz, lantzen ari den gaiarekin lotuz. Pertsonaia, kaskotik ateratzean erabat biluzik azaltzen da, ejerzituarekiko garbitasuna adieraziz. Erabili duten metafora hau KEM-eko kartel batekin lotu genitzake, desmilitarizazioaren bilakaera adierazten duenak, azkenean bietan askapena biluziaren bitartez islatzen dute.

Bestetik, bigarren plano batean, koloreen bitartez forma emanda, lore baten antza duen elementua dago, «meacamas» (*taraxacum officinale*) edo eguzki-lorearen antza duten hostoen forma irudikatuz. Bigarren aukera zentzu gehiago edukiko zuen, azken batean eguzki-lorea euskal kulturarekin lotura zuzena duelako. Azke-



Irudia 6 Gure martxa ez da militarra, 1994 (Ubierna 3, 1997).

nik, beste elementu bat mezua helarazten duten hitzek, kasu honetan marrazkiarekin erabat integraturik ageri dira.

### **Kolorea**

Tonu aldetik, hautaturiko beste karteekin alderatuz, biziena topatzen dugu, taldearen izaera ondo transmitituz.

Koloreen esanahiari erreparatuz, horiaren erabilera zentroan erabiltzea aurreko atalean azaldu den moduan garai horretara arte gizarte mugimenduek eta politikan erabiltzea ez zen oso ohikoa izan, mugimendu honen ikur bilakatuz. Bestetik, kasuaren kolorea errealitateari erreferentzia egiten dio, tonalitate hotzekoa izanda.

Bestetik, berdea bai eguzkiarena eta lorearen hostoena naturarekiko lotura adieraz ditzake. Azkenik, kolore laranja gorrixka hitzetan ageri dena, militarrei erreferentzia egiteko kolorea izan daiteke, kontuan hartzen badugu lehenengo kartelean soldaduzkari aipu egiteko kolore berdintsu batekin islatu dute.

### **Mezua**

Mezuari dagokionez, «Gure martxa ez da militarra», Kakitzaten nahietako bat azaltzen denez kaleak betetzea modu ezberdin batean. Azkenenean, Kakitzaten martxa<sup>10</sup> edota manifestaldiak antolatzen zituzten, karteelako esaldian agertzen den martxa militarrekin antzekotasuna bilatuz, nahiz eta zentzu erabat ezberdina izan. Azkenik, tipografia erabat askea «dibertigarria» eta aniztasunarekin jolasten du.

## **5. Ezker Abertzalearen jarrera eragozpena eta intsumisioarekiko**

Azkeneko atal honetan, Ezker Abertzaleak antimilitarismoarekiko harremana azalduko da.<sup>11</sup> Ezker Abertzalearen hautatzea Euskal Herriko testuinguruan daukan garrantziarengatik eta bestelako taldeekin alderatuz kontrako joera batetik abiatu zelako, azkenean pentsamendu aldaketa emanez. Aintzat hartu behar dugu Ezker Abertzalea joera bat dela eta ez talde bat, honen barnean talde ugari emanez, hortaz, hautetsitako kartelak JARRAI gazte taldearenak dira, islatzen den joera aldaketarengatik. Gainera bai gazte talde honek eta Ezker Abertzaleak gaitasun handia izan zuten gazteak mobilizatzerako orduan.

Ezker Abertzaleak soldaduskarekiko jarrera ulertu ahal izateko, haren aurrekariak kontuan hartzea garrantzitsua da. XX. mendeko azkeneko hamarkadan gerra galduaren frustrazioa jarraitzen zuen, oraindik disidentzia adierazteko zailtasunak emanez, gainera mendebaldean eraturiko demokraziekiko desconfiantza emanez. Frankismoko azken urteetan, Euskal Herria, belaunaldi berri batez osatuta zegoen, honakoak, antifrankismo indartsua garatzea ahalbidetu zuen, diktadorearekiko erresistentzia eratuz. Garai honetan, biolentziaren erabilera askatasuna lortzeko elementu bezala hartzen zuena (Arriaga, 1997, or. 27). Batez ere, 60ko hamarkadatik aurrera garatu zen, uneko faktore bat aintzat hartuz, ezkerria eta nazionalisten arteko baikortasuna bata bestearekiko hobetzea, hasiera batean elkarren arteko ezberdinak izanda (Díaz, 2012, or. 291).

Giro honen inguruan sortzen ari ziren talde eta mugimendu ezberdin guztiak, ENAM izendatu zuten Euskal Nazionalismorako Askapen Mugimendua bezala ezagutua (Elzo eta Arrieta, 2005, or. 174), honen aurrekari gisa EAE, Eusko Abertzale Ekintza, errepublika garaian sortutako alderdia. 1968tik ETAk buruturiko lehenengo hilketa eta gero, taldearen V. Asanbladaren ospakizunetik Kuban eta Hego Amerikako mugimendu gerrileroen ereduak Euskal Herrira inportatzea saiatu ziren, Che Guevararen pentsamoldea abiapuntu hartuz (Castaños, 2010, or. 31). Ezker Abertzaleak biolentziaren estrategiarekiko xedatutakoa 1921ean III. Internazionaletik hartu zuen (Arriaga, 1991, or. 29).

Biolentziaren estrategiarekin jarraikiz, ETAk buruturikoa zehazki, gizartearen sektore batzuetan legitimazio eta babes puntu bat eduki zuen, bai nazionalista edota antifrankistatik, positibotasun kutsua edukiz. Aintzat hartu behar da, gizarteak bizi duen egoera traumatikoari egoera ekonomikoa gehitu behar zaiola (Arriaga, 1991, or. 28), orokorrean landa munduan oinarritzen zen ekonomia batetik gizarte industrializatu baterako aldaketa, bereziki 60 eta 70eko hamarkadetan Nafarroaren kasuan bezala (Satrustegui, 2022, or. 30). 70eko hamarkadan zehar ETAk burutu zituen ekintzekiko enpatia jarraitu zuen, bereziki nazionalista eta langile mugimenduen artean. Hamarkada honen hasieran babesa edukitzearen arrazoietako bat, estatuan bizi izandako ezegonkortasun uneagatik izan zen, petrolioaren krisiarekin kointzidituz (Arriaga, 1991, or. 28-35).

1975ean Frankoren heriotzaren ondorioz, 1976an, Suarezren gobernuak partiduen legalizaziorako politikak aurrera atera zituen. Erregimen frankistarekiko garai ezberdin batean aurkitu arren, giro errepresiboa, okupazio polizialak eta salbuespen egoera berrezarri zuten, beraz esan genezake lehenengo egoerarekin alderatuz hobekuntza aldaketa gutxi eman zirela, honi demokrazia deituz. Honakoa izan zitekeen Nafarroan Ezker Abertzalearen gorakadaren arrazoietako bat (Díaz, 2012, or. 297).

KAS Koordinadora Abertzale Sozialista, 1975ean sortu zen, Garmendia eta Otaegiren epaiketen ondorioz, alde batetik, funtzio anti errepresiboa edukiz (Egaña, 1996, or. 460), helburua ETA-ren inguruko talde ezberdinak koordinatzea, hastapenetan; ETA-pm, ETA m, EHAS (gero HASI izan zena), LAIA, LAB eta LAK-ek,<sup>12</sup> osatu zuten. KAS-en barnean talde hauen parte hartzea ez berdintsua izanik (Zubizarreta, 2023).

1979ko maiatzaren 6an KAS-ek ospaturiko asanbladan JARRAI sortu zen. Taldearen hastapenetan, haien borrokek; ikasle, kultura edota politika arloan zentratzen ziren, hori bai, garaiko gertakariei egokituz, esaterako; sexualitatea, euskal eskola publikoa, genero kontua edota zerbitzu militarra beste askoren artean, gizartearen euskalduntzea helburu izanda (Elzo eta Arrieta, 2005, or. 179).

JARRAI-ren sorkundetik soldaduskarekiko eztabaida aurkitzen zen. Lehenengo momentuan zerbitzu militarren alde jotzen zuten, aldi berean OZS eta Kontzentziazio Eragozpena burutzeko eskubidea emanaz. Haiek bultzatzen zuten soldaduska-

ren helburua, Euskal Herriko ejerzitu herrikoia, euskal biztanleriarekin eta langileez osaturikoa eratzea zen. Espainiar ejerzitu eta soldaduskarekin erabat banatuz. Horretarako, «*Esta mili no enrrolla*» panfletoan, adierazi zuten moduan, Euskadik eta Nafarroak soldaduzkaren konpetentzia hartzea beharrezkoa zen (Elzo eta Arrieta, 2005, or. 182), 1990ean taldearen IV asanblada ospatu zen arte.

Hasiera batean ETAk gizartearen zati batean sortarazten zuen enpatia, 80ko hamarkadan kontraesanak garatzen joan ziren. Bereziki atentatuak eta biolentziaren kontura, aurkakotasun orokortu bat garatuz. Kontuan harturik une horretara arte ez zegoela gaizki ikusia. Esaterako, Carrero Blancoren hilketa edota Burgoseko epaiketen ondorioz, taldeak irabazitako legitimitatea galtzen joango zen, garaiko testuinguru sozio-politikoaren aldaketaren ondorioz. Jasaten ari zen krisiari dagokionez, hamarkada bukaeran HASI (Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailea) taldea disolbatzeko nahia azaleratu zen, azkenean 1992an desagertuz, bertan aurkitzen ziren militanteak Herri Batasunera aldatuz (Egaña, 1996, or. 391). Bestalde, ETAk burutzen zuen indarra ez zen soilik taldea edo ideologiatik at aurkitzen zirenen kontra, baizik eta talde edo joera berdineko pertsonengan erabili zuen. Nahiz eta Ezker Abertzalea eta ETAk helburu amankomun batzuk izan, ez ditugu zaku berean sartu behar. Azkeneko hau, ikusten da nola Ezker Abertzalearen barnean aurkitzen ziren pertsonak ETArekiko kritika sakona egiten zuten, ordea honen alde azaltzen zirenak aurkituz (Castaños, 2010, or. 35).

Ezker Abertzalearen gainbehera joera ikusita HB-ko kideek teorizatzen hasi ziren, borroka armatuaren estrategiaren inguruan, honakoa agortze bidean aurkitzen zela argudiatuz, batzuen ustez. Argudiaketa hau uneko testuinguruak eraginda eman zen, bereziki mugimendu sozial berriek hartzen ari zuten pisuagatik, honakoak; mugimendu Feminista, Ekologista, Bakezaletasun Erradikala edota Kontzientzia Eragozpenaren eraginez. Hemendik aurrera Ezker Abertzalearen joera aldatzen joango zen, bereziki biolentzia armatua ez bultzatzean (Castaños, 2010, or. 36). Aldaketa hautematen joan zen JARRAI, MOC-KEM, KAKITZAT... edota intsumisioarekin zerikusia zeukaten taldeekin harremanetan hasi zenean, aintzat hartuta ez zirela erlazio sendoak izatera helduko, lehenengo hauek, JARRAIRi leporatzen zioten «ateak irekita izatea», estrategia aldaketagatik (Oliver, 2021, or. 149). Geroz eta nabarmenagoa zen mugimendu antimilitaristaren baloreak, kultura orokor batean integraturik zeudela, bereziki ez biolentziaren ideien eraginaren ondorioz (Beorlegui, 2009, or. 172).

1987ko hauteskundeetan Herri Batasunak lorturiko arrakastaren ondorioz, pentsamolde aldaketa geroz eta nabariagoa zen, ezin ahaztuz lehenagotik «*la mili, para los milis*» kanpaina bultzatu zutela. Euskal Herrian, hamarkada honen hasieran aurkitzen genuen joera, R. Ajangizek 1991ean argitaraturiko liburuan *Objetores, insumisos: la Juventud vasca ante la mili y el ejército*, elkarrizketatu gehienak edozein motatako ejerzituren kontra azaltzen ziren, izan euskalduna edo espainiarra. Baita, % 90,58ak adierazi zuten espainiar indar amatuekiko deskonfiantza iradokitzen

ziela, hauei polizia nazionala jarraikiz. Egindako ikerketan adieraziz, nola indar armatuek euskal gizartearen iritzian gainbehera gehien jasan zuen erakundea izanik. Bestetik, Euskal Herriak ejerzitu propioa eratzearen kontura % 60,7ak kontra azaldu zen aldiz, % 15ak alde, ehuneko honen barnean bereziki 15-18 urteko gazteak kokatzen dira, adina handitzen joaten den neurrian, aldekoen kopurua jaisten da. Modu honetan, joera nazionalistetara jotzen zutenek errazagoa zen euskal ejerzitu baten aldekoak adieraztea (Ajangiz *et al.*, 1991, or. 235-244).

Euskal nazionalismoaren barnean, Ezker Abertzalean bezala baita aldaketa eman zen intsumisioa eta soldaduskarekiko, esaterako Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Eusko Elkartasunak, hasiera batean ejerzitu profesionala eratzearen aldekoak izan ziren, kontzientzia eragozpen eskubidea errespetatuz, eta heriotza zigorra indargabetuz. Hala ere, bai EA eta EGI-k 90eko hamarkadan intsumisioaren aldekotzat jo zuten (Ajangiz *et al.*, 1991, or. 164). Intsumisioaren alde egin arren, euskal ejerzitua eratzeko orduan agerian utzi zuten, espainiar ejerzituarekiko desberdintzea bilatzen zutela, azkeneko hauek irudikatzen zituzten baloreak kontuan izanda, autoritarismoa eta zentralitatea kasu (Beorlegui, 2009, or. 173).

1989an intsumisioaren estrategia behin onartuta mugimenduaren gorakada baino ez zen eman, 1990-1991 urte bitartean Ezker Independentistek estrategiara baturuz, mugimenduak behin indarra zuela (Oliver, 2021, or. 380). IV asanbladan gai honek eraginiko barne tentsio honi erantzuna eman zitzaion, intsumisioaren estrategia hautatzean, hego Euskadin ejerzitua eratzearen beharra defendatzen zutenen kontra (Jarrai propugna la «objeción política» al servicio militar, 1990).

Aldaketa ematen denerako, intsumisioa mugimendu sozial nabarmena geroz eta finkatuta zen. Gerora, *Ejerziturik ez* liburuan, ikusiz nola Kontzientzia Eragozpena eta intsumisioa Euskal Herrian bakezaletasun kultura bat sortzen lagungarri suertatu zen, ETA-ren disoluziorako lagungarri izanda (Oliver, 1991, or. 150).

Ezker Abertzalearen barnean emandako aldaketaren ondorioz, erabiltzen zituzten esloganetan aldaketa sakonak eman ziren. Esaterako, 1989an «*el servicio militar en ETA militar*», «eragozpena ez da bidea» edota «mili honi ez ¿intsumisioa espainiar ejerzitoarekiko?» bezalako leloak bultzatzen zituzten. Pentsamolde aldaketarekin, «*la mili no mola, ni vasca, ni española*», «*ejercito no, ni vasco y español*», beraz aldaketa nabarmena eman zen, azkeneko esloganetan intsumisio presoei zuzenduta zegoen (Oliver, 2021, or. 138). Esloganetan aldaketa emateaz aparte baita ere, HB-ren kasuan Euskal Herriko udaletxeetan intsumisioa bultzatzeko kanpaina aurrera atera zuen (Ajangiz *et al.*, 1991, or. 165).

Orain arte azaldutakoa JARRAI eta Ezker Abertzalearen alde teorikoari egokitzeko zaio, ordea, bestelakoa mugimendua osatzen zuten pertsonak izan ziren. Konfrontazio handiak eman ziren, batetik taldeak modu teoriko batean defendatzen zuena eta osatzen zuten pertsonen pentsatzen zutenarekin alderatuz. Berezi, honakoa ez zen ideologia arazo bat baizik eta bultzatzen zituzten borroka motengatik, pentsamolde aldaketa eman arren ejerzituen ideiarekin ez baitzuten erabat apurtu.

90eko hamarkadan, oraindik aurkitzen genituen JARRAI-ko kideak uste zutenak ETA erantzuna zela Euskal nazioaren askapena lortu ahal izateko. Hamarkada aurrera joan ahala geroz eta jarrera baikorragoa adierazten zuten intsumisioarekiko eta Kakitzatekiko (KEIN, art dig., 2019, Kakitzat atalean).

Beraz, onarpena geroz eta nabarmenagoa izan, Nafarroa Intsumitua taldea (1994), Ezker Abertzalera gehien hurbiltzen zen taldearekin konexioa egin ditzakegu, batik bat, independentziaren gaiari garrantzi gehiago eman ziotelako eta taldea osatu zuten askok JARRAItik edo Ezker Abertzaletik zetozen. Gainera, talde bakarrenetarikoa izan zen iparraldearekin erlazioak eduki zituenak gai honen inguruan (KEIN, art dig., 2019, Nafarroa intsumitua atalean), bildutako testigantzen arabera.

Azkenik, Ezker Abertzalearekin lotzen zen aldizkaria, **Punto y Hora de Euskal Herria**, ikusten da nola intsumisioaren inguruan edota kontzientzia eragozpenaren inguruko kontu gutxi landu zituzten, aktibo egondako epearengatik. Espezialiki, gaiari erreferentzia egiten zaio hauteskudeen testuinguruan, Los futuros elegidos, artikuluan «*Votar HB es revitalizar su capacidad para seguir en la brecha, para que los insumisos sigan gozando de un arrove político*» edota «orokorrean gizarteko agintariak gizarte bakartu batera jo nahi dutela beraz, haiek honi aurre egiteko intsumisioa derrigorrezko soldaduskari egitea eta horrek dakartzan balore, demokratiko, eta gazteengana dauzkaten onurak lortzeko» aipatzean (*Punto y Hora de Euskal Herria*, 1990, or. 22-33).

## 5.1. Kartelen analisisia

### 5.1.1. Soldaduska. Gure herrian, gure herriarentzat - JARRAI

#### Arloa eta funtzioa

Lehenengo kartel hau, 1982.urtean, «Soldaduska. Gure herrian, gure herriarentzat», JARRAIk taldeak eginiko pegatina daukagu. Azaltzen den moduan ez doa soldaduskaren aurka joaten baizik eta aldekoa, baina aintzat hartu behar dugu, nongo soldaduska, Euskal Herrikoa. Soldaduskaren aldekotzat azaleratzea, baita esan nahia du armen erabileraren aldekotzat kokatzen direla.

#### Deskribapena

Irudian agertzen den bezala, lehen planoan soldadu bat ageri da, honakoa Charles Chaplin «*Shoulder Arms*», filmetik aterata, bitxia suertatzen da, aktore honen irudia erabiltzea, bere filmetan adierazten duen ikuspuntu antibelizistagatik. Ageri den moduan, «gerrarako» prest, eta fusila sorbalda gainean, KEM-MOC-en ikonografiarekin apurtuz, arma apurtu gabe ateratzen bait da. Adieraziz, Espainiar ejerzituaren kontrako jarrera, baina bai bestelako tokietan eratzearen aldekoa, kasu honetan Euskal Herrian. 80.ko hamarkadaren hasieratik gertu, oraindik taldearen pentsamolde aldaketa urrun aurkitzen zen.

Beraz, pegatinaren elementu guztiak marko gorri baten barrenean aurkitzen dira. Baita ere, azaltzen den zirkulu gorria JARRAI-ren logotipoa agertzen da nahiz

eta oso ondo ez ezberdindu. Goiko aldean, eta letra larriz SOLDADUSKA ageri da eta beheko aldean JARRAI-ren hitza, ondoan «gure herrian, gure herriarentzat», agertuz.

### Kolorea

Tonuei dagokionean, pertsona txuri beltzean ageri da, honen erabilera hoztasuna edota seriotasuna adieraz ditzake. Azken batean, kontuan izanda irudiaren esanahia eta koloreak, lotura erraza egin daiteke biolentzia, gerra eta gatazka armatuekin. Bestelako kolorea, gorria, bai, marko laukizuzena, logotipoa, esaldia eta «JARRAI» hitzetan aurkitzen ditugu. Kasu honetan bizitasuna eta indarra lortzeko intentzioarekin.

### Mezua

«Soldaduska» hitza kartelaren erdian eta goiko aldean ageri da, erabili den tipografia serifarik gabekoa honek irakurketa errazten du. Bestetik, «gure herrian, gure herriarentzat», esaldian argi eta garbi erakusten du, Euskal Herrian soldaduska egitearen aldekoak direla, baina modu ez zuzen batean Espainiar zerbitzuaren kontra adieraziz. JARRAI hitzaren berezitasuna ez da horrenbeste helarazten duen mezuagatik baizik eta erabiltzen den tipografia mota, euskal abertzaletasun eta Euskal Herriko ikur identitario bezala hartuz. Honako tipografia, normalean arte herrikoiekin lotu da, bereziki Gerra Zibilaren amaieratik tipografia hau euskal nazionalismoak erabili du, hizkuntza identitate nazionalarekin lotzeko intentzioarekin (De Pablo et al., 2012, or. 610).

#### 5.1.2. Soldaduska honen aurka

##### Arloa eta funtzioa

1988.urtean eginiko kartel hau, Espainiar soldaduskaren aurka azaleratzen da. Kointzidituz, estatu mailan eta Euskal Herrian, intsumisioa betetzearen estrategiaren onartzearekin. Oraindik, KAS eta Ezker Abertzaleak «trantsizio» moduko batean aurkitzen ziren, intsumisioa eta eragozpenaren kontuan.

##### Deskribapena

Kartela ikusita, lehen plano batean mutiko baten atzealdea ageri da, eskua gorantz estuturik. Pertsona honi jarraikiz aurretik jende gehiago duela agertzen da, hau lortzeko ageri diren pertsonak geroz eta txikiagoak eta zehaztasun gutxiagorekin egitean lortzen da. Hauek aurrean daukaten taldearen aurka doazela irudikatuz. Bigarren talde hau, tonu gorri ezberdinetan islatuz, honakoak; elizgizonak, Guardia Zibilak, Franko bera... frankismo uneko autoritateak azalduz. Aintzat hartu-



Irudia. 7 Soldaduska. Gure herrian, gure herriarentzat 1982 (De Nicolas et al., 2, 2018).



rik, soldaduskaren aurka joateko arrazoietakako bat, frankismoak ordezkatzen zituen balore, tradizional eta patriarkalak izanda, haiengatik aldentzea zuten helburu. Honen gainean, KAS alternatiba hitzak azalduz kartelaren zati handia okupatuz, bestalde, letra txikiagoan *Soldaduzka honen aurka* letrak jarri.

Frankismo garaiko pertsonaiak irudikatzea, oraindik frankismo garaian jarraitzearen sentsazioa ematen du, honakoak argazkiaren bitartez islatzea, errealitatea modu fidelean adieraztea da, zehaztuz zeren kontra joaten diren, estatikotasuna eta zehaztasuna helaraziz. Aldiz, bestelako taldean, pertsonak marrazkien bidez azaltzea, modu dinamikoan, zehaztugabeagoa eta errealismo maila askoz ere baxuagoan, herriaren aniztasuna eta bizitasuna irudikatzen du.

### Kolorea

Kasu honetan hiru kolore bereizgarri identifikatu ditzakegu, alde batetik gorria, bi zentzu eduki ahal ditu, lehen planoan ageri den neska/mutilaren jertsea; bizitasuna, iraultza, indarra, arriskua, haserre... irudikatzen duela antzestu dezakegu, honekin batera KAS hitzak, esanahi berbera hartuz. Kontrako zentzua, autoritateak islatzean, honakoan gorria kontrako esanahia erakusten ditu, nire ustez, odola edota heriotza (haiek eragin dituztenak) bezala interpretatuz. Bi elementu hauetan kolore berdinak erabili arren esanahia erabat ezberdina izanda. Hori bai, ikuslea ez uniformedunen aldean lekukotuz, mugimendu sozialaren parte kokatuz.

Bestelako bi kolore, morea eta berdea dira, kontuan izanda defendatzen zuten abertzaletasuna agertzen den, jertse gorria, txano eta beste jertse berdea eta zapi txuria, ikurrinaren koloreei erreferentzia egin zitekeen. Bestetik, morea uneko mugimendu feministarekin lotu daiteke kontuan izanda bestelako mugimenduekin elkarren arteko erlazioak ematen zirela eta honakoa gorakadan aurkitzen zela.

### Mezua

«Soldaduska honen aurka. KAS alternatiba», JARRAI-k eta Ezker Abertzaleak 80-90.eko hamarkadan Espainiar ejertzitoan soldaduska egitearen kontra azaldu ziren, kontuan izanda Kakitzak edota KEM-MOC presentzia nabarmena izan zuen taldea dela. Bereziki, biolentzia eta bestelako soldaduska bultatzen zituzten. Gorripatzekoa da, «Alternatiba» hitzak, 1976ko abuztuan, KAS alternatiba aurkeztu zen, hego Euskadin aurrera eraman beharreko pausuak zehaztuz zeinetan, frankismo-



Irudia 8 Soldaduzka honen aurka, 1988 (Ubierna 3, 1997).

tik, osotasunezko demokrazia lortzeko gutxieneko behar batzuk eskatzen zituzten, honakoa, KAS (EHAS, ETA-pm), LAB eta LAK-ek sinatu zuten. Armen gaiari erreparatuz, zehazten zen Espainiar inperialismoa, indar politikoek edota euskal burgesia, ez bazuten modu inposatzaile batean jokatzeko, erakundearen beharrak betetzen jarraituko zituzten, baina ekintza armatua etenez (López & Jiménez de Aberasturi, 1989, or. 332-335). Bestetik, armadak edukiko zuen paperaren inguruan defentsa indarren auzia Euskal Gobernuaren eskuetan egon beharko zen, kuartelak Euskadin aurkituz (Egaña, 1997), hau baita lehen aipaturiko berrian JARRAI-ren aldaketa azaltzen zenean agertzen da.

### Lanaren estiloa

Bereziki, tentsioa, seriotasuna, momentuko testuinguruaren polarizazioaren isla da. Bi postura ikus ditzakegu, lurralde zehatz batean eta zerbaiten kontra, adierazkortasuna, probokazioa eta jendearen pentsamoldean eragiteko asmoarekin.

#### 5.1.3. *¡¡Desmontales la guerra!! Intsumisioa!*

### Arloa eta funtzioa

«¡¡Desmóntales la guerra!! Intsumisioa» 1990. urtean eginikoa da, Golfoko gerraren testuinguruan, ez da kasualitatea gerra honen kontra azaltzea, aintzat hartuta gerra honetan Nazio Batuen erakundeak buruzagitza zuela. Gainera, data horretarako Ezker Abertzalearen joera aldaketarekin kointziditzen du. Kasu honetan, Intsumisioa bultzatzen dute baina gerrakiko, pentsamendu aldaketa erakutsiz, bestelako karteekin alderatuz erabat ezberdina izanik. Nahiz eta gertakizun honen testuinguruan sakonki ez sartu, kontuan izan behar dugu, urte horietan Kuwait eta Iraken burutzen ari zen eskala belikoaren handitzeak, sozialki honekiko giro ezkorra garatu zuen.

### Deskribapena

Azkenengo kartel hau, besteak baina askoz ere konplexutasun handiagoa erakusten du, elementuei dagokionean. Ikuspuntu bezala kartel gehiena okupatzen duen espazioa, soldadu bat da, honakoa ebakitzekoa izango balitz. Ebakitzeko honen ondoan, bi guraize ageri zaizkigu irudikatuz «nondik» moztu behar den. Gainera, mozteko lerroak, soldaduaren lepotik eta aurpegitik pasatzen dira, honakoa «akatzeko» edo «hiltzeko», ongi adieraziz zeren kontra doazen. Are gehiago, soldadu hau ez da edozein herritakoa Espainiarra dela irudikatu dute eta



Irudia 9 ¡¡Desmóntales la guerra!! Intsumisioa, 1990 (Ubierna 3, 1997).

kaskoan daraman bandera espainola marratuz, nahiz eta nazioarteko gerra batekin kointzidituz, bereziki adierazten dute zein herrialdearen kontra dauden.

Azkeneko hau, KEM bezalako taldeak ez zuen horrela irudikatuko kontuan izanda haren pentsamoldea. Gainera, soldaduaren ezkerreko aldean pospolo bat agertzeak, jakinda haren funtzioa sua egitea dela, beste aldean jarraitu beharrekoak txertatuz.

Bestetik, goiko aldean mezua adierazten denean letra handiz fondo beltz baten gainean ageri dira, honakoa bigarren ikuspuntu bat izanez eta behean intsumisioa jarritz. Baita ere, ez da asko ikusten baina *gerraren aurka*, mezua «kamufflatuta» edo gutxi bereizteko nahiarekin azaltzen zaigu. Azkenik, kartel guztietan bezala JARRAI hitza ageri da beheko aldean.

### Kolorea

Kartelean lantzen diren koloreak, soldaduaren elementuan, uniformeek koloreak erabili dituzte. Esanguratsua da, horiaren erabilera, lanean zehar aipatu den bezala horia intsumisioa orokorrean eta bereziki KEM-MOC-ek erabili izan du bai marrazki eta hitzetan, kasu honetan *¡¡Desmóntales la guerra!!* mezua kolore honekin agertzea, haren pentsamolde aldaketa adieraz ditzake. Kolore berdinean, fondo txuriaren gainetik presentzia areagotzeko jarraibideak irudikatu dituzte. Aldiz, beheko mezua, gorritz ageri da, militarren gama kromatikoarekin apurtuz, indarra eta intentsitatea adieraziz.

### Mezua

*¡¡Desmóntales la guerra!!* gerren aurkako mezu orokorra da, soldadua irudikatzea desmuntatu beharreko elementua bezala. Azken batean, soldadurik gabe, ezin gerra egin. Tipografia aldetik, ikusten da nola letra zuzena eta bertikaltasunerako joera bat adierazten duen.

Aldiz, «INTSUMISIOA», hitzaren lehengo hizkia «I» goiko hitzaren itxura mantentzen du, baina hurrengo letretan ingerada geroz eta difuminatuagoa azaltzen da. Gainera, letren tamaina eta kokapena aldatuz, goiko mezuaren estetikarekin apurtuz. Honako mezua, erantzun bezala hartu genezake, arazoari erantzun bezala.

Azkenik, *gerraren aurka* esaldia agertzen da, beltzean arreta deitu ez nahian ageri da, honakoa propos egitearen intentzioarekin egina izan zitezkeen.

## 6. Kartelen garrantziaz

Ikusi denez kartelen erabilera analisirako iturri bezala tokiko ikonografiaren garatzea hautematea ahalbidetzen du. Honakoa Maite Garbayok garaturiko kontzeptuan zeinetan lurralde eta testuinguru jakin batean garatzen den estilo, estetika edo ikonografiari erreferentzia egiten dio (Garbayo, 2021, or. 14). Garaturiko ikonografia honi esker, Vischerrek adierazi zuen bezala, erabilitako sinboloak daukaten esanahia baino askoz ere haratago doa (Losoggio, 2020, or. 116). Karteletan islatutako elementu horiek balio-transmisore gisa funtzionatzen baitute (Geertz, 1988, or. 91). Gainera, talde kultural zein politikoez ez dute beren joera elemen-

tu bisualen bidez bakarrik islatzen, baizik eta ikonografiaren bitartez konfrontazio politikorako espazioak eraikiz (Hunt, 1984, or. 53). Horregatik, sinbolo eta elementu artistikoen garapena garrantzizkoa izan da talde-identitateen eratzea aurrera egiteko. Balio horiek beren subjektuetan islatuz, gizarte-talde bateko parte izanik (Durheim, 1993).

### **Ondorioak**

Aztertutako kartelak ikusita argi geratzen da, haien arteko elementu amankomunak eta ezberdinak aurkitzen direla. Orokorrean, hautaturiko karteletan pertsonifikazio eta errealismoa nahiko nabaria da, hau da erabilitako elementuak zer diren identifikatzeko erraz suertatzen da.

Modu orokor batean, aztertutako kartelgintzan oso argia da nola Kakitzaten kasuan kartelak askoz ere metaforikoagoak direla eta originaltasun maila askoz ere handiagoa daukatela. Aldiz, KEM-MOC-ekoak sinpleagoak dira, bai kolore kantitatearen aldetik eta originaltasunari dagokionean. Eta Ezker Abertzalekoak baita Kakitzaten antzekoak direla esan genezake, baina hauek ez dituzte hainbeste metafora erabiltzen, baizik eta askoz ere zuzenagoak dira. Honakoa izan zitekeen talde bakoitzak zeukan aurrekontuagatik, azken batean geroz eta kolore gehiago eduki geroz eta garestiago.

Koloreari dagokionean, hemen ezberdintasunak nabariagoak dira talde ezberdinen artean. Talde bakoitzak kolore batekin identifikatu beharko bagenu, KEM-MOC horiarekin izango zela argi dago, azken baten taldearen kolore identifikagarria suertatzen da, bai hautaturiko bi karteletan erabiltzen delako modu zuzen batean. Aldiz, plantearen kartelean ez da erabiltzen baina azken hau berezia delako. Eta aurretik azaldutako arrazoiengatik kolore deigarri hau erabiltzean lehen mugimendua izan zen, haren ikur bilakatuz.

Kontrako tokian Ezker Abertzalearen kasuan gorria kartel guztietan erabiltzen du modu deigarri eta sinboliko batean. Haren atalean azaldu den bezala gorria, bizitasuna, indarra eta abar irudikatzeko erabil daitekeelako. Eta kontuan izanda haren joera, bereziki borroka armatua, ejerzituen auzia eta zein elementuetan erabiltzen duen, haren kolorea dela esan genezake.

Azkenik, Kakitzaten kasua ez nuke hain argi izango, hautaturiko kartelen artean aurkitzen diren kolore amankomunak espainiar bandera osatzen duten koloreak izango zirelako.

Elementu ikonografikoei dagokionean ikusten da nola elementu nagusi batzuk aurkitzen ditugun, amankomunekoak edo berezkoak direnak. Erabiltzen dituzten elementuenetarikoa bat, soldadua edo ejerzituen irudikapena da, hautaturiko kartelak ikusita hiru taldeetan ageri den elementua izanda. Lehenengo kasuan KEM-eko lehenengo kartelean soldadua kartzelaren parekotzat jotzen dute, baita ere, hirugarren kartelean zeinetan kasu honetan dinosauroaren antza dauka, ejerzitua zerbait atzerakoiaren sentsazioa emateko. Hori bai, kontuan izan behar dugu edozein motatako ejerzituren kontra joaten direla. Kakitzaten kasuan soilik lehenengo irudian

ageri da soldadua behin eta berriz errepikaturik espainiar banderaren gainean, argi utziz espainiar ejerzituaren kontrakoak direla. Azkenik, Ezker Abertzalearen kasuan ejerzitua hiru karteletan ageri da, orokorrean oso ohikoa da haren erabilera. Segun eta zein izan transmititu nahi den ideia, militarra edo ejerzituaren irudia zentzu ezberdina izango du, lehenengoan espainiar ejerzituaren kontra joanez baina, Euskal Herriar armada propioa eratzearen aldekoa. Bigarrenean, lehenengoaren antzeko moduan, Espainiar soldaduskaren aurka azaltzen da, baina KAS alternatiba bultzatua izan dela aintzat harturik, Euskadik armadaren kompetentzia hartzearen beharra defendatzen dute eta hirugarrenean, ejerzitu ororen kontra azalduz.

Beste elementu garrantzitsu bat, kaskoaren erabilera izango zen, hiru taldeek erabiltzen dute, bereziki MOC-en kasuan bere logotipoan erabiliz, ez da bakarra, baita ere, MILI KK, Kakitzat... haren logotipoetan erabili zuten. Kaskoaren elementua oso modu adierazkorra da bai milia, ejerzitua eta den delako gutzia irudikatzeke, azken batean oso elementu bereizgarria da. Bai, Kakitzaten logotipoan eta KEM-en bigarren kartelean eta logotipoan barnean irudikatzen duten elementua kaskotik atera nahian edo horren gainean zerbait berria eraikitzearen itxura emanez.

Baita ere, fusila edo armen erabilera oso esanguratsua izan daiteke kontuan izanda nola islatzen den. Esaterako, MOC-KEM-en kasuan haren izaera kontuan hartuz bigarren kartelean fusila puskaturik ageri da. Alde batetik edozein motatako indar armatuen kontra daudela erakutsiz eta bestetik, WRI-ren logotipoa baita, haren izaera internazionala azalduz. Bestetik, Ezker Abertzalearen kasuan bigarren kartelean ikusten da nola arma osorik dagoela eta talde honen bestelako karteletan ere lanean aipatu direnak aparte (De Nicolas *et al.*, 2018, 128.or), armenganako jarrera baikorra adieraziz.

Lorea gai honen ikonografiaren barnean oso erabilia izan da bereziki KEM-MOC-en kasuan. Honen esanahia naturarekiko lotura eta bizia edo belaunaldi berriekin lotu daiteke. Azkenean, landareak bizitza eta naturarekin lotura daukate. Kakitzaten kasuan hirugarren kartelean eguzki-lorea erabiltzen dutela ageri da, honen erabilera KEM-ekin alderatuz haren izaera euskalduna goraiatzeko izan daiteke. Honekin lotuta kaskoaren barnean Gernikako koadroko pertsonaia erabiltzea, taldearen euskaldun izaerarekin lotuz.

Bestelako metafora ikonografikoa ardia eta artaldearen erabilera izango zen, oso erabilia izan dena talde askorengatik (Ubierna, 1997, 149.or), esaterako, KEM-MOC-ek edota Kakitzaten bigarren kartelean. Elementu honen erabilera obedientzia eta soldadua irudikatzeke nahiarekin egiten da. Baita, lotura egin zitekeen pentsamendu kritikoaren faltarekin, ardiek azken batean lehenengo jarraitzen dutelako, modu metaforikoan ezer ez zalantzan jarri gabe.

Bestetik, guraizeen erabilera kasu honetan Kakitzat, oso mezu zuzenean erabili du Espainiar estatua eta militarrekin mozteko, baita Ezker Abertzalearen kasuan azkeneneko kartelean ebakigarria militarren antza duena mozteko guraizeen birtartez. Bietan Espainiar estatuaren bandera eta soldaduak agertuz.

Azkenik, eskua estutuaren erabilera, bai Ezker Abertzaleak eta Kakitzat erabili zuten, Ezker Abertzalearen kasuan oso izaera soziala eta iraultzailea emanez, aldiz Kakitzaten kasua positibotasun gehiagorekin ageri da hirugarren kartelean.

Tipografiari erreparatuz bereziki, bereizi nahi nuen *Intsumisioa* hitza idazterakoan tipografia, tamaina eta kokagune ezberdinak erabiliz, dinamismoa ematea lor-tu da. Hau kontrajartzen da ejerzitua, gerra edo haien inguruko kontuak aipatzen direnean letra zurruna, zuzena eta simetrikoa ageri da orokorrean.

Baita ere, ikusita mezuak Ezker Abertzalearen kasuan bereziki, oso mezu zuzenak erabiltzen dituzte eta orokorrean ikuslea haren parte izatea eragiten dute me-zuan integratuz. Honakoa baita ere, bestelako taldeetan agertzen da baina ez hain modu inplizituan.

Bereziki Ezker Abertzalearen kasuan mezu aldaketa sakona eman da, soldadus-karen alde agertetik kontra kokatzera. Ez hori bakarrik, baizik eta orokorrean ge-rren kontra azaltzea azkeneko kartelean ikusten den moduan, baina argi izanda ez direla mota guztietako gerren aurka azaltzen.

Ateratako beste ondorio bat, kontsultatutako iturrietan kartelen hautaketa egite-rako orduan, argi ikusten da nola normalean soilik eginiko urtea eta taldea jasotzen den, egilea kontua izan gabe. Kontuan izan behar dugu, kartelak taldearen izenean egiten zirela, azken batean, autoretzaren ezagutza mugimenduko pertsonen artean ezagutuz. Taldearen izenean egitearen kontu hau baita ere, erlazionaturik egon zi-tekeen kultura herrikoi eta ez instituzionala edota goi mailako kulturaren parte ez izateagatik. Azken batean aurkitzen ditugun kartel askok artistikoki onak dira baina jorratzen dituzten gaiengatik eta goi mailako kultura horren parte ez direnez egileak garrantzia galtzen du bigarren maila batean geratuz.

Genero kontuari dagokionean, argi izan behar dugu orokorrean bai KEM eta Kakitzatek genero berdintasuna defendatzen zutela, baina kontu bat da nolakoa zen hura maila teorikoan eta gero beste bat praktikan. Beraz, horri erreparatuz, ikusten da nola kartzeleratzeak eman aurretik, nolabaiteko parekotasuna eman zela. Aldiz, intsumisioaren estrategia aurrera ateratzean, bereziki protagonismo gehiena gizo-nek hartzen dute, mugimenduaren bilakaeran maskulinizazio orokor bat emanez. Nahiz eta maskulinizazio bat egon lan honetarako hautatuak izan diren karteletan izan lehen urtetarikoak edota berriagoetan protagonista guztiek gizonetzkoie erreferentzia egiten diete. Aldiz, emakumeak modu zuzenean irudikatzen diren kartel gehienetan zeinetan antimilitarismoaren gaia jorratzen den, talde feministek buru-turikoak dira.

Baita ere, KEIA-n aurkitzen diren testigantzetan emakumeari erreferentzia egi-ten zaionean amaren papera goraiatzeko da. Berdina gertatzen da AFOINA tal-deari erreferentzia egiten zaionean nahiz eta gizonen parte hartu. Modu honetan, testigantzen bideoetan emakumeen presentzia gutxi ageri zaigu, nahiz eta aipatu gizon zein emakume parte hartzen zutela. Modu berean Mabel Kañada (KEIN, art dig., 2019, Emakume intsumituak atalean) agertzen zen bideoan aipatzean hasieran

maskulinitate eredu berria proposatzen zuten gerora kartzelan Fernando Mendiola, Juan Kruz eta Gaizka Arangurenen (KEIN, art dig., 2019, Dispersioa estrategia anti errepresiboa atalean) testigantzan esaten dute nola aldizkari pornoen kontsumoa ematen zela. Modu honetan industria sustengatuz eta hasieratik defenditzen zituzten baloreekin kontraesankorra izanik.

Beraz esandakoa kontuan izanda, ikusten da nola momentuan egindako kartelak, uneko egoeraren isla diren, talde bakoitzaren berezitasunak agerian utziz. Aintzakotzat hartuz, lan honen analisia elementua kartelak izan diren, normalean hauetan soilik izaera artistikoekin lotzen ditugu, honetan erakutsi nahi izan da nola ikuspegi historiko eta sozial batetik aztertu izan ahal diren, haien arteko loturak erakutsiz eta ikerketa iturri bezala erabiliz.

## OHARRAK

1. Mugimendu Sozial Berriak landu dituzte bestelako autoreak aurkitzen dugu aipatutakoak aparte: Ibarra (2020), Pascual (2015, 2019) edota Sampredo (2002).
2. Pepe Beunza eta hasierako kontzientzia eragozpen politikoa landu dute zenbait autorek esaterako; MOC (2002, or.49-53), Beorlegui (2009, or.166) edota Francisca eginiko errebisioa (Fernandez, 2009).
3. Eragozpen fiskala, Ogasun aitortpena egiterakoan ordaindu beharrekotik defentsako ministeritzara bideratuta egongo zen diru kantitate hura ez ordaintzea.
4. Aldarrikapen taulak deitzen zieten kartel moduko batean haien ideiak eta helburuak zerrendatzea, modu eskematiko batean jendearen artean ezagutzera emateko.
5. Goian aipatutakoaren arira, mugimenduen barnean eztabaida eman zen feminismoaren aldetik, zeinetan sektore batzuk emakumea milia eta ejerzitan integratzearen aldekoak izan ziren, «borrokan» genero berdintasuna lortu ahal izateko. Baina, testigantzetan Mariluz, haren ustez, ez zen beharrezkoa gizarteak buruturiko akats berdinak berriz egitea (KEIN, art dig., 2019, Emakume intsumituak atalean). Honen arira, MOC-ek argitaraturiko liburuan (2002, or.140) emakumea indar armatuetan parte hartzearen inguruko ikuspuntua ageri da.
6. 80.ko hamarkadan eman ziren kartzelaratzak zerikusi gehiago zeukaten burutzen zituzten ekintzen-gatik, honakoak panfletoak banatzea edota kartelak itsastea. *En legitima desobediencia*, liburuan aipatzen den moduan, ongi azaltzen da nola 1980ko mar-  
txoan Bizkaiko udalerrri batean Daniel Gonzalez, ikastoletan panfletoak banatzen zegoelarik atxilotua izan zen eta haren akusazioa ejerzituarekiko irainak sustatzea leporatuz (MOC (ed.), 2002, or.106).
7. *El jueves*, aldizkarian *Historias de la puta mili*, atala egin zuten zeinetan horretan modu satirikoan milia-  
ren inguruko kontuak lantzen zituzten. Atal honek, eragina izan zuen momentuko zineman, honakoa Tebeosfera, 2020an argitaraturiko artikuluan ikus daiteken moduan, *Las adaptaciones al cine la obra de Ivá: Makinavaja e historias de la puta mili* (Asión eta Lana, 2020).
8. Kakitzaten lehen pausuk Euskal Herrian autore hauek ikertu dute: Jesús (Casquete, 2001, or.42) edo Pedro (Oliver, 2019, or.116).
9. Honakoa baita, KEM-en eman zen.
10. Esaterako, 1996an Berriozarren Intsumiso eguna ospatzean «martxa» edo ibilbide moduko bat egin ez.
11. Ezker Abertzalea talde zabala izanda bestelako autore hauek ikertu dute: David Beorlegui (Beorlegui, 2009, 170.or), Jesús (Casquete, 2001, 30-57. or) (Casquete, 2010), Rafael (Leonisio, 2012) edo Iñigo (Bullaín, 2014).
12. ETA: Euskadi eta Askatasuna, ETA-pm: ETA político-militar, ETA m: ETA militar, EHAS: Euskal Herriko Alderdi Sozialista, LAIA: Langile Abertzale Iraultzaile Alderdia, LAK: Langile Abertzale Komiteak, LAB: Langile Abertzaleen Batzordea.

## ERRENFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- AJANGIZ, Rafael; MANZANOS, Cesar; PASCUAL, Jakue (1991): *Objetores, insumisos: la juventud vasca ante la mili y el ejército*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- ARRIAGA, Mikel (1997): *Y nosotros que éramos de HB: sociología de una heterodoxia abertzale*. Alegia: Ediciones Oria.
- BEORLEGUI, David (2009): «Los nuevos movimientos sociales en Euskal Herria: los movimientos ecologistas, pacifistas y antimilitaristas desde la transición hasta el cambio de siglo». *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, (30). Or. 161-186.
- BEORLEGUI, J. Óscar (2012): *La insumisión en Navarra. Memoria para tiempos de desmemoria*. Pamplona/Iruña: Pamiela.
- BULLAÍN, Iñigo (2014): «Aproximación a la Violencia Política en el País Vasco y Perspectivas de una Justicia Restaurativa para Euskadi». *Oñati socio-legal series*, 4(3).
- CASTAÑOS, Jose Ramón (2010): «La autodeterminación vasca y la violencia política. La izquierda revolucionaria ante ETA». *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*, (112). Or. 31-40.
- CASQUETE, Jesús (2001): «Acción Colectiva y Sociedad de Movimientos». *El movimiento antimilitarista contemporáneo en el País Vasco-Navarro. Cuadernos Sociológicos Vascos*, 7. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- CHICO, Jose Manuel (2016ko otsailaren 1a): El PSOE del 'No a la OTAN' nos metió en prisión por negarnos a hacer la mili. (C. Tuya, Elkarrizketatzailea).
- DÍAZ, Diego (2012): «Rojos y abertzales: La metamorfosis de las izquierdas vascas en la transición». *III Congreso Internacional de Historia de Nuestro Tiempo*. Universidad de La Rioja. Or. 291-300.
- DE NICOLAS, Iñaki; SALGADO, Pablo; UBIERNA, Javi (2018): *Pegatas de Euskal Herria 1980-1989 2*. Andoain: Euskal Memoria Fundazioa.
- DURKEHIM, Émile (1993): *Las formas elementales de la vida religiosa*. Madrid: Alianza.
- EGAÑA, Iñaki (1996): *Diccionario histórico-político de Euskal Herria* (Vol. 34). Tafalla: Txalaparta.
- ELIZONDO, Edurne (2011): *Ez dugu nahi. Intsumisioaren abotsak Euskal Herrian*. Tafalla: Txalaparta.
- ELZO, Javier; ARRIETA, Felix (2005): «Historia y sociología de los movimientos juveniles encuadrados en el MLNV». *Ayer*. Or. 173-197.
- FERNANDEZ, Francisca (2009): «Oliver Olmo, Pedro, La utopía insumisa de Pepe Beunza». Barcelona: Historia Actual Online. Or. 224-225.
- GARBAYO, Maite (2021): «Mujeres que cargan: Las artistas y las imágenes de maternidad en la guerra civil española». *Re-visiones*, (11).
- GEERTZ, Clifford (1988): *La interpretación de las culturas*. Barcelona: Gedisa.
- HERMOSO DE MENDOZA, Ainara (2021): «Kontzientzia eragozpena eta intsumisioaren gizarte mugimendua Nafarroan, proposamen didaktikoa».
- HUNT, Lynn (1984): *Politics, Culture, and Class in the French Revolution*. Berkeley: University of California Press.
- LÓPEZ, Emilio; JIMÉNEZ DE ABERASTURI, Juan Carlos (1989): «KAS en agiria eta alternatiba / Manifiesto y alternativa del KAS». *Organizaciones, sindicatos y partidos políticos ante la transición: Euskadi 1976*. Donostia: Eusko Ikaskuntza. Or. 330-335.
- LOSIGGIO, Daniela (2020): «Aby Warburg y el pathos superviviente. De la psicología a la memoria social». Santiago: Aisthesis. Or. 103-121.



- MOC (ed.) (2002): *En legítima desobediencia: tres décadas de objeción, insumisión y antimilitarismo*. Madrid: Traficantes de Sueños.
- IBARRA, Pedro; ZUBIAGA, Mario; BARCENA, Iñaki (1996): *Movimientos sociales y democracia en Euskadi. El discurso y la estructura de oportunidad política de la insumisión, el ecologismo y el pacifismo vascos*. Mientras Tanto. Or. 91-124.
- LEONISIO, Rafael (2012): «Izquierda abertzale: De la heterogeneidad al monolitismo». *Coetánea: III Congreso Internacional de Historia de Nuestro Tiempo*. Universidad de La Rioja. Or. 377-388.
- OLIVER, Pedro (2019): «Lenguajes de paz. Las palabras clave del movimiento de objeción de conciencia e insumisión (y un ejemplo de territorialización: Navarra)». *Gerónimo de Uztariz* (35). Or. 101-136.
- (2021): *Ejertzitorik ez. No a los ejércitos: objeción de conciencia y lucha antimili en Navarra (1974-1989)*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- (2021): «El movimiento de objeción de conciencia e insumisión en España (1971-2002)». *HIS-PANIA NOVA. Primera Revista de Historia Contemporánea on-line en castellano. Segunda Época*, (19), 353-388.
- ORDÁS, Carlos (2016): «Noviolencia, objeción de conciencia e insumisión en España, 1970-1990». *Pólis. Revista Latinoamericana*.
- (2019): «El Movimiento de Objeción de Conciencia en la década de 1980». *Ayer. Revista de Historia Contemporánea*, 116(4). Or. 277-303.
- PASCUAL, Jakue (2015): *Movimiento de Resistencia años 80 en Euskal Herria. Contexto, crisis y Punk*. Tafalla, Txalaparta.
- (2019): *Movimiento de Resistencia años 80 en Euskal Herria. Radios libres, fancines y gaztetxes*. Tafalla: Txalaparta.
- REAL DECRETO 247/2001, de 9 de marzo de 2001 por el que se adelanta la suspensión de la prestación del servicio militar. *Boletín Oficial del Estado*, 60, de 10 de marzo de 2001. <https://www.boe.es/boe/dias/2001/03/10/pdfs/A08974-08975.pdf>
- SAMPEDRO, Victor (2002): «Estrategias sociales de innovación política: el caso de la insumisión». *El reto de la participación: movimientos sociales y organizaciones: una panorámica comparativa*. Madrid: A. Machado Libros. Or. 211-238.
- SATRUSTEGI, Imanol (2021): «Beste mundu bat nahi genuen». *Nafarroako ezker iraultzailea, 1970-1979*. Nafarroa: Nafarroako Gobernu.
- UBIENA, Jabi (1997): *Euskal Herriko Kartelak, askatasunaren irudak 1980-1986, 2*. Tafalla: Txalaparta.
- (1997): *Euskal Herriko kartelak, askatasunaren irudak 1986-1990, 3*. Tafalla: Txalaparta.

## ARTXIBATEGIAK

Archivo de la Objeción de Conciencia e Insumisión en Navarra. (2019). AFOINA  
EMD Fundacion Sancho el Sabio Fundazioa: Intsumisioa

## ALDIZKARIAK / HEMEROTEKA

CNT  
Egin  
Punto y Hora

## RESUMEN

En la presente investigación, se ha realizado un análisis histórico-iconográfico de carteles producidos dentro del movimiento de Objeción de Conciencia e Insumisión en Euskal Herria entre 1980-1990. Tomando como eje los tres principales grupos que marcaron las tendencias en torno a este tema, como lo fueron: Kakitzat, KEM-MOC y JARRAI. Todo ello, con el fin de conectar el mensaje teórico político de cada grupo con el mensaje gráfico (el cartel) y a su vez, hacer ver las diferencias y similitudes que se dan entre los distintos grupos. De esta manera mostrando las distintas tendencias ideológicas, tanto como de pensamiento y planteamientos en torno al tema, de esta manera analizando, la diversidad que se da dentro de un territorio común, tomando los carteles como eje. A partir de los cuales, se observa cómo se da una iconografía común entre los distintos grupos, asimismo estableciendo diferenciaciones entre ellos.

PALABRAS CLAVE: análisis, carteles, Euskal Herria, Insumisión.

## ABSTRACT

In this final degree project, has been carried out, a historical-iconographic analysis of posters produced within the movement of Conscientious Objection and Insubordination in Basque Country between 1980-1990. Taking the three main groups that set trends in this area. All this, in order to connect the theoretical political message of each group with the graphic message (poster). At the same time, show the differences and similarities between the different groups, which are: KEM-MOC, Kakitzat and JARRAI. In this way showing the different ideological tendencies as much as of thought and approaches around the subject. Showing the diversity that occurs within a common territory, taking the posters as the axis. From these, it can be seen how a common iconography is found among the different groups, also establishing differentiations between them.

KEY WORDS: analysis, Basque Country, insubordination, posters.

## LABURPENA

Gradu amaierako lan honetarako, Kontzientzia Eragozpena eta Intsumisio mugimenduan ekoiztutako kartelen analisi historiko-ikonografikoa Euskal Herri mailan aztertu izan da. 1980tik 1990 hamarkadetara bitarte eman ziren hiru talde nagusiak ardatz bezala hartuz. Honakoa, talde bakoitzaren mezu grafikoa, (kartela) haren mezu teoriko-politikoarekin lotzeko asmoarekin, aldi berean, haien arteko ezberdintasunak eta parekotasunak adierazteko, taldeak; KEM-MOC, Kakitzat eta JARRAI izanik. Modu honetan gaiarekiko eman ziren ideologia eta pentsamendu joera ezberdinak agerian utziz, lurralde zehatz bateko aniztasuna erakutsiz, ardatza kartelak izanda. Beraz, taldeen arteko ikonografia amankomun bat ageri da, baina aldi berean taldeen arteko ezberdintasunen adierazle diren sinboloak eta ezaugarriak baita.

HITZ GAKOAK: analisia, Euskal Herria, intsumisioa, kartelak.



# Vida y escritura conventual en Manila: Jerónima de la Asunción y Ana de Cristo\*



IRENE LLORENS MARTOS

*Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa*  
[llorens.138097@e.unavarra.es <https://orcid.org/0009-0006-8731-9058>]

## Introducción

Tras la conquista por parte de Miguel López de Legazpi en 1564 y al tratarse de uno de los territorios predilectos del rey Felipe II, Filipinas será objeto de numerosos favores y socorros, entre ellos, y siguiendo la práctica habitual de la Monarquía Hispánica, enviar ministros con el fin de evangelizar las islas. Además de órdenes religiosas masculinas como los agustinos (1565), los franciscanos (1577), los jesuitas (1581) y los dominicos (1587) (Quesada, 1713, p. 267) y a pesar de las imposiciones establecidas en el Concilio de Trento, entre ellas, la clausura a los conventos católicos femeninos, las religiosas adoptarán un papel relevante en la creación de nuevos espacios de religiosidad y expansión de la fe cristiana en las recientemente conquistadas islas Filipinas (Owens, 2014, p. 493). Uno de los nuevos espacios femeninos a destacar será el Convento de Santa Clara de la Concepción de Manila, fundado en 1621 por la clarisa franciscana Jerónima de la Asunción a petición de las autoridades de las islas, con el objetivo de dar refugio a las hijas solteras de los españoles de Manila. Con respecto a este último motivo, cabe señalar que la migración femenina desde Sevilla hacia Filipinas cobrará cierta importancia a partir de 1575, lo que provocará una presencia elevada de mujeres en las islas que, de acuerdo con las fuentes, generará entre sus familiares masculinos una gran preocupación debido a la dificultad de encontrar «maridos a propósito» para sus respectivas hijas o hermanas (Kortajarena, 2023, p. 9). Por este motivo, el procurador general de Manila solicitará la licencia para llevar a cabo la fundación con el fin de solucionar la preocupación por el patrimonio familiar y la descendencia.

Este trabajo presenta una aproximación a la vida y literatura conventual femenina de comienzos del siglo XVII en el contexto filipino a través del caso concreto de la biografía de sor Jerónima de la Asunción escrita por la religiosa Ana de Cristo, una de sus acompañantes en el proceso fundacional. A pesar de que el manuscrito de 450 folios nunca fue publicado, sí verán la luz dos obras derivadas del mismo:

---

\* [Enviado 2023-06-21 • Aceptado 2024-10-30 • DOI: <https://doi.org/10.58504/rgu.38.12>]

*Perfecta Religiosa* (1662) de Bartolomé de Letona y *Exemplo de todas las virtudes y vida milagrosa de la venerable madre Gerónima de la Assumpción, Abadesa y Fundadora del Real Convento de la Concepción de Virgen Nuestra Señora, de Monjas Descalzas de nuestra Madre Santa Clara de la Ciudad de Manila* (1713) escrita por Ginés de la Quesada, ambos frailes franciscanos del entorno de la Venerable Madre. A través del análisis de estas dos obras, así como de fragmentos conservados del manuscrito original, se pretende analizar la figura de la biografiada y la biógrafa, centrando la atención, en el caso de la segunda, en su escritura y supuesto bajo nivel cultural. Además, a través de su narración también se pueden apreciar una serie de aspectos característicos del sistema social de comienzos del siglo en relación a la situación y educación de las mujeres, y especialmente, de las religiosas.

A comienzos del siglo XVII, el convento será considerado un espacio de formación y producción femenina, ofreciendo además la oportunidad de sortear la subordinación patriarcal. Así pues, tal y como afirma Cristina Segura, «las imposiciones patriarcales, la domesticidad y la reproducción se soslayaban en los conventos» (2003, p. 114), permitiendo a las religiosas desarrollar una literatura propia. La obra de sor Ana de Cristo, al igual que la de muchas otras religiosas del momento, quedará enmarcada dentro de los considerados «géneros historiográficos» conformados por las crónicas, las biografías y las hagiografías, es decir, géneros con cierto carácter biográfico debido a la participación de las autoras en las acciones narradas. De hecho, la propia biografía de la Venerable Madre será escrita con la intención clara de favorecer en un posible proceso de beatificación, además de evitar la relajación de costumbres de las futuras religiosas y el olvido de sus antecesoras (Marcos Sánchez, 2018). A pesar de la brillantez de muchas de las autoras, los textos producidos no estarán exentos de una serie de filtros impuestos por parte de la censura de confesores y algunas superiores y quedarán relegados a un espacio al margen de la cultura letrada, una realidad perpetuada durante siglos, siendo necesaria una revisión del canon literario, aspecto resaltado por varios estudios (Rodríguez Ortega, 2022).

### 1. Jerónima de la Asunción y las clarisas franciscanas

Jerónima Yáñez de la Fuente, conocida como Jerónima de la Asunción, nace en Toledo el 9 de mayo de 1556 en el seno de una familia acomodada. Como otras mujeres de su condición social, será instruida por su madre, quien le enseñará a leer y escribir:

«Las esclarecidas virtudes y admirables costumbres de Jerónima fueron como efecto de la virtud, enseñanza y ejemplo de su madre» (Letona, 1662, lib. 1, fol.3r).

Con tan solo cuatro años de edad leerá la vida de Santa Clara, despertando en ella una profunda vocación religiosa, lo que le llevará, siendo tan solo una adolescente, a ingresar en el Convento de Santa Isabel de los Reyes de Toledo ((Crossley & Owens, 2016). La Venerable Madre no será la primera de su estirpe en optar por la vida conventual ya que dos hermanas de su padre habían ingresado con an-

terioridad en la misma orden, ostentando, al igual que ella, altos cargos como el de abadesa y maestra de novicias. Estos cargos, junto con el retrato de la religiosa que realizará el célebre pintor Diego Velázquez, evidencian el alto nivel socioeconómico y la posición de la familia Yáñez. A pesar de tener la oportunidad de una vida llena de comodidades y privilegios, sor Jerónima optará por la vida conventual bajo la Orden de Santa Clara, caracterizada por la defensa de un estilo de vida totalmente austero basado en la pobreza y la humildad (Núñez, 1996).

En 1599, el procurador general de Filipinas propondrá la fundación de un convento femenino enviando al padre Diego de Soria, obispo de Nueva Segovia en Filipinas, en busca de una religiosa que realizase dicha labor. La elegida será Jerónima de la Asunción que tras más de casi treinta años de clausura en su ciudad natal, y una vez consultado con el Consejo de Indias y según su biografía con Dios, aceptará la propuesta y junto con otras siete religiosas, emprenderá el viaje hasta la ciudad de Manila:

«Yo Padre mío (dijo la Venerable Madre), estimo el favor que V.P. me ofrece, mas quiero dar parte a los Padres y Prelados de mi Orden, para que dispongan lo que les pareciere ser mayor gloria de Dios: que aquí estoy y soy hija de obediencia, su Majestad haga en mí su voluntad» (Quesada, 1713, p. 276).

El grupo de religiosas que viajará para fundar el convento estará formado por la propia Jerónima de la Asunción, una monja de Belalcázar, dos monjas de Cubas (franciscanas de Madrid) entre las que destaca María Magdalena de la Cruz (vicaria de la fundación), y tres clarisas toledanas entre las que se encontrará María de la Trinidad (fallecida en la travesía desde Acapulco) y sor Ana de Cristo (Owens, 2014, p. 24), una de las figuras principales que se analizarán a lo largo de este trabajo. Esta última destacará por ser la encargada de la redacción de la biografía de la Venerable Madre, muy interesante por representar el punto de unión entre la literatura conventual y la producción literaria femenina y el contexto filipino de comienzos del siglo XVII.

## 2. Escritura y motivación de la biografía

Tal y como se ha venido diciendo hasta ahora, dos de las figuras más representativas y punto de unión entre el contexto filipino y la escritura femenina a comienzos del siglo XVII serán la Venerable Madre Jerónima de la Asunción y más concretamente su biógrafa sor Ana de Cristo. A diferencia de la vida de la superiora, son pocos los datos que se tienen sobre su biógrafa, tan solo que nace cerca de la villa de Madrid en el año 1565 y que, huérfana desde temprana edad, será acogida por unos familiares hasta su ingreso en el convento de Santa Isabel de Toledo con diecisiete años (Owens, 2014, p. 381). La religiosa mantendrá una estrecha relación con Jerónima de la Asunción debido a que de jóvenes serán vecinas. Años más tarde y tras la toma del hábito por parte de sor Ana, ambas se reencontrarán siendo Jerónima de la Asunción la maestra de novicias del convento en el momento de su ingreso.

Será precisamente esta relación tan próxima la que le llevará décadas más tarde a acompañarla en su viaje y posterior fundación del convento en Manila.

Al igual que muchas otras religiosas durante el período moderno, en el momento de partir, tal y como afirman las fuentes, Ana de Cristo dominará el arte de leer pero presentará grandes dificultades para escribir, nada sorprendente teniendo en cuenta las escasas oportunidades de acceder a la educación que tendrán muchas mujeres de su condición social. Según Sarah Owens, sor Ana menciona haber leído la vida de otra religiosa pero una vez en Manila, con la ayuda de fray José de Santa María, dedicará tiempo a «escribir y organizar sus ideas en papel» (Owens, 2014, p. 384). Tras perfeccionar el arte de escribir, algunas autoridades religiosas próximas como sor María Magdalena de la Cruz, vicaria de la fundación, y el propio fray José de Santamaría, le encargarán la elaboración de una biografía de la Venerable Madre Jerónima de la Asunción (Owens, 2018a, p. 502), cuya redacción comenzará aún en vida de la biografiada.

